

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Zestoa*



Aurkibidea

# Udalerria: Zestoa

## Sarrera



Eremu zabaleko herria da eta hainbat auzo ditu, batzuk udalgunetik urrun samar eta izaera bereziarekin: Aizarna, Iraeta, Endoia, Arroa goia, Arroa behea, Bedua, Akua, Lasao, Ibañarrieta, Txiriboga, Narrondo eta Presalde dira. Zestoako bainuetxea Euskal Herriko zaharrena da (1804an inauguratua) eta garrantzi handikoa izan zen XX. mendean zehar.

Argazkia: [Ekain, Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 3.657
- **Euskaldunak:** %85,7

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **39**
- Zintak: **54**
- Pasarteak: **667**
- Transkribatutakoak: **53**
- Audioak: **79**
- Bideoak: **371**

## Proiektuak

- 101L - Zumaia eleaniztuna
- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- Dialektologia-EHU
- Euskadi Irratia
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak
- Gasteizko Euskararen Ahotsak
- Nire pausoak
- Zestoako ahotsak
- Zestoako ahozko ondarea
- Zestoarren erretolika
- Zumaiaiko ahotsak

## Hizlariak

### **Matilde Aizpurua Zubizarreta (1926)**



1926an jaio zen Lasaoko turbina-etxean. Ama Elgoibarkoa zuen eta aita Itziarkoa. 6 anai-arreba ziren. Eskolan Lasaon ibili zen 6 urtera arte, eta horren ostean Zestoako nazionaletan. Arratsaldetan josten ikasten zuen eskolan bertan. 12 urterekin haur baten zaintzaile lanetan aritu zen. Gerora, taberna batean neskame, denda batean saltzaile eta Zestoako bainuetxeko dendan aritu zen lanean. Gerra garaian 10 urte zituen eta etxetik ihes eginda une gogorrak bizitzea suertatu zitzaion: Eibar, Durango, Algorta eta Santanderren egon ziren, besteak beste. Klean lo eginez bizi beharra ere probatu zuten.

### **Margarita Alberdi Juaristi (1930)**

Zestoan jaio zen 1930. urtean eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak Azkoitikoak zituen. 'Zestoarren erretolika' libururako egin zitzaion elkarriketa. Gerra garaia eta garai bateko Zestoa izan zituen hizpide batez ere.

### **Romana Aranguren Illarramendi (1928)**

Getarian jaio zen eta gurasoak ere getariarrak zituen. Hala ere, gaztetatik bizi izan da Aizarnako Igartza baserrian. 'Zestoarren erretolika' libururako egin zitzaion elkarriketa eta garai bateko arbasoen ohiturez eta baserriko bizimoduaz jardun zuen gehienbat. Elkarriketan Agustin Illarramendi (1923) ere azaltzen da, eta tarteka iloba ere bai, Maite Eizagirre (1989).

### **Javier Aristi Aizpurua (1930)**



1930ean jaio zen Zestoako 'Zubimuzu' baserrian. Aita Aizarnakoa eta ama Zestoakoa zituen. Zestoako mojetan eta maristetan ikasi zuen. 12 urterekin igeltsero batzuekin peoi lanetan laguntzen hasi zen. Arroan teilak egiten ibili zen, eta 18 urterekin fundizioan lan egiteko ofizioa ikasten; horren ondoren, 'Etxabe y Cía' lantegian ibili zen lanean. Soldadutza ez egiteagatik harrobian ibili zen lanean bi urtez. Nazionalistak ziren etxean, eta anaiak gerrara joan zirelako etxetik kanpora bidali zituzten; 40 egun egin zituzten Pasaiaiko lehengusu batzuen etxean ezkutaturik.

### **Joxe Migel Arregi Ibarguren *Ertxin* (1924-2007)**



Arteagagaraikoa (Ertxiñondo) baserrian jaio zen, herrigunetik hurbil. Nekazaritza-jarduera apaleko baserria zen. Aitonak eta aitak Ertxiñako lignito-meategian egiten zuten lan, biak langileburuak izan ziren gainera. Joxe ere, gaztetan, meatzaria izan zen, eta gerora hainbat lanetan ibili zen, egin zitzaion elkarrizketan ageri den moduan: zurgintzan, ferratzaile, okin... Ertxiñondon ferratokia egon zen, eta inguruko baserrietatik etortzen ziren ganadua ferratzera. Dena dela, urterik gehienak ogia egiten eman zituen; langintza horretan ari zela hartu zuen erretiroa. Pertsona umoretsua, kontalari aparta, eta edozein langintzatan trebea. Ehizarako ere zaletasun handia zuen.

### **Carmen Arrojeria Manterola (1925-2010)**



Zarauzko Urdaneta auzoan jaio zen 1925ean. 21 urterekin ezkondu eta ordutik Zestoan bizi izan zen. 17 seme-alaba izan zituen, 9 mutil eta 8 neska. Bere ama ez zuen ezagutu, bera izan ostean hil baitzen. Euskadi Irratian egin zioten elkarrizketa 80 urte zituela.

### **Juan Azkue Irastorza (1928)**



1928an jaio zen Aizarnako Etxeluze baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Aiako Altzola auzokoa. Zazpi anai-arreba ziren. Bost urterekin hasita 11 urtera arte Aizarnako eskolan ibili zen, eta geroago morroi ibili zen zenbait baserrian, Aldalur eta Ezenarro baserrietan, besteak beste. 18 urterekin Lasaotik Otaolara bidea egiten laguntzen ibili zen, eta horren ondoren Ibainarrietako harrobian soldadutzatik libratzeagatik. Udaltzaingo lanetan ere ibili zen Aizarnazabalen eta Zestoan eta azkenengo lan-urteetan Amilibiako zentrala zaintzen aritu zen lanean.

### **Roberto Bergara Goenaga (1916-2008)**



Aizarnan jaio zen, Urrutikoetxea baserrian. Hamaika urterekin Urduñara joan zen ikastera (fraideetara). Gerra ostean itzuli zen etxera. Aizarnako harakina izandakoa, baserriz baserri txerri-hiltzen eta behiak larrutzen ibilitakoa zen.

### **Joxe Mari Eizagirre Irure (1925)**



Santa Engraziko Irure baserrian jaio zen 1925ean eta bertan bizi izan da beti. Ama ere bertakoa zuen eta aita Akua auzokoa. Eskolan Etumetan ibili zen urtebetez eta geroago Zestoako maristetan. 15 urterekin Xabierrera joan zen gaztelaniaz ikastera. Soldadutzatik libratzeagatik Zestoako Ertxina mendiko meategian aritu zen lanean. Santa Engraziko Aristain baserriko alabarekin ezkondu zen. Euskara aberatsekoa eta hiltun ona, oso azalpen interesgarriak eman ditu Aizarnako bizimoduaz, Santa Engraziko jaiez eta, oro har, baserriko bizimoduaz.

### **Pako Eizagirre Irure (1946)**



1946an jaio zen Aizarnan, Zestoan. Ama Irure baserrikoa zuen, eta aita Zestoako Akua auzokoa. Hamalau senidetan 12.a da Pako. 9 urterekin Maristetara joan zen ikastera. Baserritik 9 kilometrotara zegoen herria, eta herriko taberna batean egiten zuen lo astean zehar. Hamar urterekin Oñatiko agustindarretara bidali zuten ikastera, baina bi zatitan egin zituen ikasketak, hezurretako tuberkulosia izan baitzuen tartean. Ikasketak gaztelaniaz baziren ere, harremana euskaraz izaten zen, eta bertan piztu zitzaion euskararen kontzientzia. 1967an Gasteizera joan zen Teologia ikastera, beste hainbat apaizgairekin bateraeta Eusebio Osa apaiza gidari zutela. Euskara irakasten hasi zen Gasteizen, eta bide batez, euskara irakasteko metodologia lantzen. Legebiltzarrean euskara eskolak eman zituen, baita gau-eskolak ere. Araotzen (Oñati) barnetegi bat egiteagatik atxilotu egin zuen Goardia Zibilak. Gasteizko AEKren sorreran egon zen, baita Olabide Ikastolaren sorreran laguntzen ere. Eskola pribatuan irakasle lanetan jardun zuen zazpi urtez, maisu-maistrei euskara ikastaro trinkoak emanez. 1982an oposaketak atera, eta IRALEn hasi zen maisu-maistrak euskalduntzen, bertan jubilatatu zen arte.

### **Tere Eizagirre Irure (1944)**



Aizarnan jaioa (Zestoa), 14 anai-arrebako familian. 20 urte ingururekin, misiolari izateko nahiari jarraituz, Jaenera joan zen ikastera eta han eman zituen 3 urte. Baina hori ez zela bere bidea konturatuta, Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. 1970-1974 bitartean lehenengo soldatapeko lana Itziarko kooperatiba baten administrazioan izan zuen. Garai horretan baserritarren mugimenduan ere parte hartu zuen. 1975ean joan zen Zumaia bizitzera, Ayra Durex enpresan lanean hasia zela (gaur egun GKN). 30 urte eman zituen bertan lanean, eta baita langileen eskubideen alde borrokan ere; ESK sindikatuan ibili zen eta "comités obreros" izenekoan ere parte hartu zuen. Emakumeen arloko gaietan ere izan du esperientzia: berdintasun foroa antolatzen eta 2021ean zabaldutako Emakumeon\* Etxearen proiektuan, besteak beste.

### **Kontxa Eizagirre Murua (1945)**

Zestoako Akua bailaran jaio zen 1945. urtean, Zubigoene baserrian. Aita Aizarnako Irure baserrikoa zuen. Eskolan Zestoako Mixerikordian ibili zen 14 urtera arte. 14 urte zituela, josten ikastera joaten zen eta neskame lanetan hasi zen Irure hotelean; geroago, Zestoako bainuetxean aritu zen. Ezkondu osteko bizitza osoa Arroa Goian egin du.

### **Alfredo Elortza Olabegoia (1945)**



Alfredo Elortza Olabegoia 1945ean jaio zen Zestoan. Ama berriztarra eta aita zestoarrak zituen. Aita goiz galdu zuen eta amak zazpi seme-alaba atera zituen aurrera Zestoan zuten denda bati esker. Hamabi urterekin, Alfredo Donostiara joan zen barnetegi batera ikastera eta handik Iruñera, Farmazia ikastera. Ikasketak amaituta, botika bat zabaldu zuen Eibarren. Zinegotzia izan zen 1979ko Udalean, San Andres Azokaren aintzindari eta Arrate Kultur Elkarteko lehendakari 10 urtez, Eibarko 80-90. hamarkadako drogen auzia gertutik ezagutu izan zuen.

Ego Ibarra Batzordeko (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren barruan elkarriketatua izan da.



### **Margarita Etxabe Arakistain (1922-2009)**

Zumaiko Narrondo auzoan jaio zen, baina Roberto Bergararekin ezkondu zenetik, 60 urtez Aizarnan bizi izan zen. Emakume atsegina eta hiltun ona.

### **Lazaro Garate Aristondo (1927)**



1927an jaio zen Arroabeko "Hiraulika" (kare hidraulikoa) lantegiaren ondoko etxean. Ama Arroako Mallu baserrikoa zuen eta aita Urretxukoa. 6 anai-arreba ziren familian. Arroatik Zestoako Osinbeltz turbina-etxera joan ziren bizitzera. Zestoan ibili zen eskolan. 14 urterekin eskola utzi eta etxera bueltatu zen; horren ondoren zenbait baserritan morroi ibili zen, mantenuaren truke. Azpeitian zapatagintza ikasi zuen eta Zestoan bere denda zabaldu.

### **Maria Ixabel Garate Garate (1947)**



1947an jaio zen Madariaga auzoko Benta Txuri baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Madariagakoa. Zazpi anai-arreba zituen. Madariagan bertan ibili zen eskolan 14 urtera arte eta geroago Azkoitian eskola partikularrean. Azkoitian ikasten zebilenean, haur bat zaintzen aritu zen eta gerora Elgoibarren egon zen neskame 16 urterekin. Aizarnako Ondarbaso baserriko Antonio Iruretarekin ezkondu eta bertan bizi izan da ordutik. Elkarrekin egin zitzairen elkarriketa.

### **Joxe Martin Ibar (1952)**

Ibañarrieta auzoan jaioa. Aita zuen bertakoa; ama Arroa Goikotik etorria zen.

### **Joxe Manuel Ibar Urbietta (1964)**

Ibañarrieta auzoan jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Elkarriketan, gehienbat, Ibañarrieta auzoko pasadizoak eta jaiak aipatzen ditu.

### **Alejandra Ibarguren Kerejeta (1905-2004)**

Zestoan jaio zen 1905. urtean eta bertan bizi izan da beti. Aita ere zestoarra zuen, Iraetako Lokatzanekoa; ama, berriz, Azpeitikoa. Elkarriketa egin zitzaionean 97 urte zituen. "Zestoarren erretolika" libururako egin zitzaion elkarriketa eta bere bizitzako gorabehera nagusiak aipatu zituen.

### **Manuela Ibarguren Kerejeta (1912-2006)**

Zestoan jaio zen eta bertan bizi izan zen beti. Aita ere zestoarra zuen, Iraetako Lokatzanekoa; ama, berriz, Azpeitikoa. "Zestoarren erretolika" libururako egin zitzaion elkarriketa, bere ahizpa Alejandrarekin (1905) batera.

### **Joxepa Igarola Arriaundia (1909-2001)**

Ibañarrieta auzoan jaio zen Elordi baserrian. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bizitzako zatirik handiena Elordi baserrian igaro zuen, baina azken urteak Zarautzen. Elkarriketako zenbait pasartetan bere semearen hitzak ere azaltzen dira.

### **Agustin Illarramendi Arruti (1923-2003)**

Getarian jaio zen eta gurasoak ere getariarrak zituen. Hala ere, gaztetatik bizi izan zen Aizarnako Igartza baserrian. "Zestoarren erretolika" libururako egin zitzaion elkarriketa eta garai bateko arbasoen ohiturez eta baserriko bizimoduaz jardun zuen gehienbat. Elkarriketan Romana Aranguren (1928) ere azaltzen da.

### **Feli Iribar Makazaga (1947)**

1964an, 17 urte zituela, maletak hartuta baserria utzi, eta Zestoako bainuetxera joan zen lanera. Zestoako bainuetxearen gaineko kontuak jasotzearen, elkarriketa egin zioten Euskadi Irratiko "Bide Batez" saioan, [Juanita Regil](#)ekin batera. Bainuetxeko lanari eta bizimoduari buruzko azalpen ugari eman zituen.

### **Pepita Iriondo Alberdi (1906-2000)**



Pepita Iriondo, Andereño Pepita, Zestoako Kale Okerran jaio zen. Txikitatik, behin baino gehiagotan joan behar izan zuen etxetik, neskame lanetan aritzeko. Maistra izateko ikasi zuen Donostian eta Santanderren. Ezkondutakoan herrira bueltatu zen, Arroako eskolan lan egitera, 1951ra arte, Huesca aldera joan arte. 1964an bueltatu zen Zestoara, eta handik gutxira andereño hasi zen zabaldu berri zuten Ikastolan. Zestoako Itxaropena dantza-taldea sortu zen bere ekimenez.

### **Xabier Iriondo Ibarguren (1934)**



1934an jaio zen Zestoan. 3 anai-arreba zituen eta gurasoak zestoarrak. Haurra zela, guraso eta sendikoak erbestera egin zituzten eta Baionara joan ziren bizitzera, denbora gutxirako izan bazen ere. Eskolan Zestoako fraideetan ibili zen 10 urtera arte; geroago fraideek eskola utzi eta alde egin behar izan zuten eta Xabier etxera bueltatu zen. Gurasoek edari almazena zuten eta han jardun zuen lanean. Pilotan ibilia da, bi aldiz txapeldun izana. 18 urterako gaixotasun batengatik pilota utzi behar izan zuen eta pilota enpresa batean hasi zen lanean Zestoan osaba batekin. Herri-kirolak betidanik oso gertutik jarraitu izan ditu.

### **Antonio Irureta Irureta (1939)**



1939an jaio zen Aizarnako Ondarbaso baserrian. Ama Ondarbasokoa zuen eta aita Lasturko Uxarru baserrikoa. Lasaon ibili zen eskolan bost urterekin hasita, eta horren ondoren Zestoan ibili zen 14 urtera arte. Basoan ibili zen lanean. 21 urterekin Burgosera joan zen soldadutza egitera. Azkoitiko Madariaga auzoko Maria Ixabelekin ezkondu zen eta Ondarbason bizi dira. Elkarrekin egin zitzaaien elkarriketa.

### **Kontxita Izeta Legarda-ereño (1939)**



1939an jaio zen Zestoako Gexala baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, mutrikuarra. 4 anai-arrebako familia zuen. Urtebete zuela Zestoako Koiote tabernara eraman zuten bizitzera; gurasoena zen eta haiek bertan egiten zuten lan. Zestoako mojetan ibili zen eskolan 16 urtera arte eta geroago bi hilabete pasa zituen Lasaoko Santa Ana eskolan. Josten ikasten aritzen zen arratsaldetan eskolan bertan. 16 urterekin Koioten hasi zen zerbitzari lanetan. Ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituen.

### **Juan Larrañaga Alberdi Narru (1921-2009)**



Iraetako Karmen-Enea baserrian jaio zen; aita bertakoa zuen eta ama Etorra baserrikoa. 8 anai-arreba ziren. Zestoako maristetan ibili zen eskolan. 15 urterekin Iraetako Amillubi baserrira joan zen morroi eta gerora Arroako teila-lantegian egin zuen lan soldadutzara joan zen arte. Soldadutza Gasteizen egin zuen.

### **Tiburtzio Lopetegi Zabaleta (1919-2012)**



Loiolan jaio eta lau urte zituela Iraetara eraman zuten, "kamineronekoa" deituriko baserrira. Gurasoak Loiolarrak ziren eta 10 anai-arreba zituen. Eskolan Arroako maisu batekin ibili zen Zestoako maristetan. 12 urterekin Azpeitiko Landeta auzora joan zen morroi, eta geroago Zestoako Akua auzoko beste baserri batera. 18 urte zituela, gerrara bidali zuten eta Gasteizen, Valladoliden eta Ferrolen egon zen, besteak beste. 26 urterekin Zumaian itsasontziak egiten zituzten lantegi batean aritu zen lanean. Goikoetxe baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da, Akua auzoan. Betidanik baserritik bizi izan dira. "Zestoarren erretolika" libururako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Margarita Murua Unanue (1925-2006)**

Arroa Goian jaio zen, baina bizitza osoan Zestoako Akua baserrian bizi izan da. Elkarrizketatzailearen amona da (Agurtzane Azpeitiak egindako grabazioa, "Zestoarren erretolika" libururako).

### **Miren Odriozola Beristain (1934)**

Aita Itzira baserrikoa zuen (Lasao); ama, aldiz, Errezilgo Suitxo baserrikoa. Senarra zestoarra. Bost seme-alaba izan ditu. Lehengo bizimoduaren gaineko hainbat azalpen ematen ditu.

### **Felix Olaizola Alkorta (1928-2011)**



Aizarnazabalgo Ibarrene baserrian jaio zen 1928ko otsailaren 2an. Aita Aiako Urdaneta auzokoa zuen; eta ama, Aizarnazabalgo Ibarrenekoa. 6 senide ziren. Eskolan Aizarnazabalen ibili zen 9 urtera arte eta geroago etxeko beharretan aritzea tokatu zitzaion, anaiak soldadu joan baitzitzaizkion. Umetatik hasita, "Xakabi" soinu-jotzailearekin ibili zen soinu txikia ikasten, baita erromeriatan jardun ere; gerora soinu handiarekin hasi zen. Soldadutzatik libratzeagatik, Iraetako harrobian ibili zen lanean; baina, hala eta guztiz ere, Burgosen eta Donostian egin behar izan zuen. Emaztea Iraetakoa zuen eta bertan jarri ziren bizitzen.



**Emili Olazabal Loyola (1916-2012)**

Palazioan jaio zen, Zestoan. Umetatik izan du lore eta landareetarako zaletasuna eta horren gaineko azalpen ugari ematen ditu Danbolin Euskara Elkarteak egindako elkarrizketan.

**Juanita Regil Gisasola (1932-2010)**

1945ean Hotel Alamedako dendan hasi zen lanean, eta bizi osoa eman zuen bertan. Euskadi Irratiko "Bide batez" saioan, elkarrizketa egin zioten [Feli Iribar](#)rekin batera, Zestoako bainuetxearen gaineko kontuak jasotzeko. Hoteleko bizimoduari buruzko azalpen ugari eman zituen.

**Xabier Unanue Alberdi (1943)**



Zestoako Iruita baserrian jaio zen 1943an eta 3 urte zituela kalera joan ziren bizitzera. Ama Iruitakoa bertakoa zuen eta aita Etorrakoa. 3 anai-arrebaren artean gazteena da bera. Eskolan mixerikordian ibili zen lehenbizi, mojekin, eta San Jose ikastetxean gero. "Guztiok Bat" lantegian ibili zen mekaniko lanetan. Alkate izana da Zestoan.

**Inaxio Unanue Aranberri (1917)**

Arroa Erreka auzoko Gorriñe baserrian sortu zen 1917. urtean. Aita ere bertakoa zuen eta ama Debako Lastur auzoko Zianaundikoa. Grabazioan Lastur auzoko [bere emaztea](#)rekin batera azaltzen da. Gorriñera ezkondu ziren, baina autopistak baserria botatakoan Zumaiara joan ziren.

**Luisa Uranga Ibarguren (1928)**



Santa Engraziko Aristain baserrian jaio zen 1928an. Etumetako eskolan eta geroago maistra baten etxean ibili zen ikasten 12 urtera arte. Lehenengo Zestoan izeba baten tabernan lanean hasi bazen ere, neskame ibili zen gehienbat Mutrikun, Urduñan, Madrilan... eta tabernan Donostian eta Zarautzen. Aizarnako Santa Engrazi auzoko Irure baserriko Joxe Mari Eizagirrerekin ezkondu zen. Elkarrizketa senarrarekin batera egin zitzaion.

### **Andresa Uranga Zulaika (1925-2019)**

Endoia auzokoa. 80 urte zituen elkarriketa egin zitzaionean.



### **Arantxa Zigaran Bidebieta (1952)**

Zestoan jaio zen 1952. urtean eta hantxe bizi da. Gurasoak eta senarra ere zestoarrak ditu. "Zestoarren erretolika" libururako egin zitzaion elkarriketa.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Herria, azpiegitura**

#### **1.1. Aizarnako jaiak**

- **Hizlaria(k)**: Bergara Goenaga, Roberto; Etxabe Arakistain, Margarita
- **Elkarriketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZES-001/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Aizarna asko aldatu da. Lehengo jaiak ere ezberdinak ziren: soinu-jotzailea, eta taberna pareta. Inguruko auzoetatik ere jende ugari etortzen zen.

#### **Transkripzioa**

- Eta Aizarna nolakua zan, oain bezalakua?
- ROBERTO: E?
- Aizarna, plaza ta, oain bezalakua zan lehen? Asko kanbiatu al da?
- R: Dexente, dexente.
- Bai?
- R: Dexente, bai, dexente.
- ALABA: Zer ibiltzen zenuen gaztetan ta kontau beharko ixkietzu, aita.
- R: E?
- A: Ze itten zenuen gaztetan kontau behar.
- MARGARITA: Jaietan ze iten zenduen, jaietan ta.
- R: Nexka launtzen.
- Neskak launtzen.
- R: Nexka launtzen ordun, ze ingo gendun, ba?
- Eta erromeriyak eta nun izaten zian, bertan?
- R: Bertan. Hori bai jai giro. Soñu-jotzaillia ta [...], baiña, betikok.
- Eta hemen, plazan?
- R: Plazan. Plazan erdi-erdin. Taberna, uain hor [...], o zer dao. Bai, pare hortantxe beti soñuba o zan. Soñu-jotzaillia zeatu zun ta parian danzan

[...] plazan itteko. Premiyua atea nun dantzan.

- Bai, e?

- M: Hori, ordia, geero, Roberto.

- R: Bai, gero, bai.

- Baiña...

- R: Gaztetan ez, zahartuta.

- A, bai, e?

- R: Zahartuo, ba. Urte batzuk bai, hori zala 're, e! Dezente.

- Dantza asko indakua zea, orduan.

- R: E?

- Dantza asko eindakua?

- R: Bai. Habilidadade gutxi.

- Pixkat bai.

- R: Habilidadade gutxi. Zero, zero "a la izquierda".

- Ta, dantza asko izaten zan? Jende asko dantzan eta?

- R: Bai.

- Afiziyua zeon?

- R: Haundiya ordun. Izuarriya, hola, dantzaik eta. Kalea bai, kalea joten zianen, bertakotzat, baiña buelta haundiya zekakek txarra [...]. Santa Engraziko zeatikan ta buelta, puf, haundiya.

## 1.2. Bainuetxe eta hotel ugari herrian

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-031/012
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:18:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Aisia » Kirola » Pilota  
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena**: Zestoan 14 hotel zeuden; bainuetxeak izendatzen ditu. Udan kanpotar asko joaten zen herrira, bertako bainuetxeetako urak gaixotasunak sendatzen laguntzen zuela eta. Etxe partikularretan ematen zitzaien ostatu kanpotarrei. Bainuetxeetako nagusiak madrildarrak ziren. Jende diruduna joaten zenean, pilota partidu garrantzitsuak jarri behar izaten zituzten.

### Transkripzioa

Orduan Zestua zan, ez do esplikatzeik: hamalau hotel, Balneaiuan egongo zian, ailegau zian zortzirehun lagun eta beste ehun lagun zerbiziu. Balneaiua, e. Gero Arocena, Asuncion, bueno..! Udan izaten zan espektakulo bat. Beraneante kubanak, edo kubanuak eta kubanak, portugesak, Madrilguak, Zaragozakuak. Hamengo balneaiuak, udak, egundoko fama zun, eta jendia sendau eitten zun gaiña. Hori-hori-hori eginda etorri eta hamendik jendia zuzenduta joten zan. Horregatik esaten dizut ba... Esaten badizut Zestua, orduan kaskuak eukiko zittun milla ta hirurehun... Duplikatu edo triplikatu itten zan orduan. Hotel danak betetzen zien eta gero itxe partikularretan eta're jendiak "con derecho a habitación", hola jende pobria, Zaragozako eta baserritar eta holakuak etortzen zien eta. Itxiak dan-dan-danak betiak egoten zien jendez. Bai.

Udaran saiatzen zan jendia orduan.

-Etxe partikularretan ematen zitzairen ostatu?

-Bai, itxe danetan. Gehienetan behintzat, e.

-Bainuetxeak zer ziren, jantoki baita?

-Bai, fuertia. Baiñuetxera etortzen zian, esan dizut ba, amerikanoak eta kubanoak eta kotxiak eta bildurgarriak-eta. Txofer eta guzti nausi hoiak, e!, txoferra con gorro de plata, traje cruzao, oin gutxi ikuste'a holakua, e! Orduan bai. Dan-danak etortzen zien bere txofer batekin.

-Eta balneario hortako nagusiak zer ziren, hemengoak?

-Ez. Jerente itten zun napar batek. Don Joaquín Beloki oso (ezauna zan) porke guk harea jenero asko eamaten gendun ba, eta nausiak berriz, akzionistak zien Madrilgo jendia zan inportantienak. Konde-ta. Bat hola esateko esango dizut ba Conde Barellano, ez dakit aitzerarik izango dezun, Ministro de Obras Públicas izandakua. Hura're etortzen zan honea udaran beti, eta akordutzen naiz, hura etortzen zanian abixatzen ziguen eta beti eta orduan partidua're berezia jarri behar izaten gendun. Jarri behar izaten gendun kanpoko pelotari onak. Gallastegi're hor egoten zan eta, izan danik haundienetako bat eta, Txikito de Iraeta-ta. "Y mañana el Conde Barellano va a ir y tal y cual"-eta. Sillak jarri eta segittun pelotariak zeatu eta ahal tzan partiduik onena jarri. Beste gaiñontzian izaten zien ba pelotariak esan dizutenak ba gaur frontoietan dabiltzan eskasena, terzerakuak eta segundakuak. Segunda-terzera. Askok herrikua eta hamen Azpeiti, Azkoiti, Zumaia, Zarautz; Legazpitikan-ta're bai, hamen zabiltzan pelotariak, dexente ondo jokatzan zuenak.

### 1.3. Gibela sendatzeko, bainuetxeko ura

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-031/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:18:37. **Bukatu:** 00:20:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Zestoako bainuetxea. Gibela sendatzen zuela hango urak zioten eta kaleko jendea taxian joaten zen bertara. Medikuek errebisioa egin eta paper bat ematen zuen eta harekin joaten ziren edalontzia hartuta ura edatera. Ura ibai azpitik ateratzen zen.

#### Transkripzioa

-Zenbat balneario ziren gogoratzen zara?

-(Ez du ulertu galdera, bakarria dagoelako). Ez hola fuerte-fuerteik, Conde de Garellano eta Duque de Hernani, txapelgorriekin frontoira etortzen zana, eta besteik gaiñontzian ez.

-Balnearioen izena?

-Balneario de Cestona.

-Bakarria?

-Bai.

-Ez zan besterik?

-Ez, ez. Horrek zittun "aguas medicinales para el hígado".

-Gibela sendatzeko?

-Bai, bai, bai. Eta hori ein ber izaten zan, baso haundiyekin juten zien

goizero-goizero jendia, hamendik juten zan kotxian zerbiziua, hoteletakuak berriz beraiek zazken automobillak balneariora eamateko, ta kaleko jendiak taxis batzuk ibiltzen zien, jun eta eaman. Eta zan baso haundi bat. Lelengo medikuan rebisiua pasatu ber izeten zendun, e, hartzeako han bertan, han bertan. Harek ematen zizun autorizaziua eta hasi, zenbatekin hasi. Lelengo baso haundiak, esan dizut, eta lelengo baso batekin hasi. Da, oiñ'e bai, ura oso gusto txarrekoa da, oso gusto txarrekoa da. Ura hartzia kostatze'a ikaragarri. Gero hurrengo egunian puxkat gehio, hurrengo egunian beste puxkat gehio. Harek eitten zun efekto bat laxante, jota danak, andre danak, tarjeta ez dakat baiña ikusiko bazenduke, danak... komun mordua zeon hor, eta danak saltaka, komunian (saltaka-aldiak) eta behiñ ia efektua eitten hasten zanian, lau edo bosgarren egunian-edo, egundoko (...)

-Eta ur hori nundik ateratzen zan?

-Behetikan. Ibai azpitik ertetze'u. Oaiñ'e han dago hura. Jendiak egundoko, nik ez dakit nundik propaganda in tzan, ein tzuen lehenguak-edo, gerra aurretik eta abar. Lehendikakua emen da hori.

-Bertako jendea joaten zen?

-Baita, baita. Kanpokua gehio. Bertakua batzuk bai. Baiña kanpokuak. Jeneralmente Zaragozakuak-eta, esateizut ba, etortzen zien kolore hori-horiakin. Dudik ez, jota, egiya da hori, neuk ikusitakua, sendatu eitten zittun.

#### 1.4. Euskaraz ikastetik erdara hutsera

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-042/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Jaiotetxea eta ingurua deskribatzen ditu. Jaunartze txikia Lasako eskolan zebilela egin zuen. Gerra hasi zenean aita hil zitzaion eta turbinako etxetik bidali zituzten. Orduan hasi zen Zestoako eskolan. Euskaraz ikastetik erdarara pasa behar izan zuten.

#### Transkripzioa

- Eta seiekin in zenduna ta beatzikin in zenduna berdintsua izaten zan?

- Ez, ez, ni, esan dizut, Lasako turbina, ez dakit konturatu zean, hor bado ba aceralia? Konturatu zea?

- Bai, bai.

- Haren parian, ibayan bestaldetik bi hiru etxe badaure. Ez dakit konturatu zean. Zubiya pasauta. Zubiya pasautako etxe hartan jayo nintzan ni. Oin, geroztikan beste bi hiru famili, o lau. Eta goyan beste etxe bat ein due, ta diferente dao, baiña etxia hura zan. Ordun juten giñan Lasaora gu, eskola. Sei urtekin o ez dakit zenbatekin hasiko nintzan ni eskola.

- Lenengo Lasaon ibili ziñan?

- Bai, ta handikan in nuan nik komuniyo txikiya esaten genduna. Sei urteko haura. Bueno, errezuak eta asko geyo ez gendun jakingo e? Ta gero, ta

gero aitta hil zan hogeita hamahiruan, ta bialdu giñuzen kalea.  
- A, eta ordun hasi ziñan hemen.  
- Eta orduan hamen. Eta gero gerra etorri zan, esan dizuten bezela, dana erderatu ber izan gendun. Holaxe.

## 2. Baserria

### 2.1. Aizarnatik Zarautzera eta Azpeitira feriara

- **Hizlaria(k)**: Bergara Goenaga, Roberto; Etxabe Arakistain, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZES-001/009
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:20:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Aizarnako baserritarrak Zestoara eta Zarautzera joaten ziren feriara. Azpeitira ere bai, dezente. Azpeitian asko saltzen zen.

#### Transkripzioa

- Eta, orduan, e, Aizarnatik eta, feriyara Zarautza izaten zan?  
- M: Bai.  
- R: Zestua 're bai, hillero, Zestua 're.  
- M: Zestua, Azpeiti, Zarautz. Hoiek ibiltzen zian, jeneralian.  
- R: Zarautza 're bai, Azpeitira 're bai.  
- M: Bai, ezkondu ezkeo 're beti. Feriya, gizonezkuan salida hori izaten zan.  
- R: Hiru hoiek fijo, pijo hoiek.  
- Zarautza bai, e?  
- M: Bai, Zarautza 're bai.  
- Eta normalian gehio Zarautza, o?  
- M: Nik uste... Azpeitira, Zarautza, hor ibiltzen zian. Geo, pixkana-pixkana galtzen jun zian hoiek, ta, erretirau. Baiña nik uste, Zarautza gehio ibiltzen zala jendia. Zarautza ta Azpeitira. Zestua...  
- R: Azpeitira gehienekua, Zarautz baiño.  
- M: Azpeitira hemendik gehienekua.  
- Gehio saltzen zan, Azpeitiyan gehio saldu?  
- M: Bai. Ta saldu ta eosi ta tratu gehio nunbait iten zan Azpeitiyan, ganauakin ta.

### 2.2. Baserri guztietan esne-behiak

- **Hizlaria(k)**: Bergara Goenaga, Roberto; Etxabe Arakistain, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZES-001/011
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:24:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** Lehen baserri guztietan ziren behiak, esne-behiak. Kamioia pasatzen zen baserriz baserri, eta esne guztia bildu. Orain bi granja bakarrik geratzen dira, baina lehen baino behi gehiago. Gainontzean, baratzea ere izaten zuten denek, baina txikia, etxerako lain.

### Transkripzioa

- Eta ganaua lehen ze izaten zian, esnetako edo?
- M: Daneakuak jenealen.
- Bai?
- M: Esneta 're iten zan, baiño uain bezela ez zeon pretauta esneta iteko jendia, e! A! [...] zana bai, esnia biltzen zan ordun 'e, ta...
- R: Bai, apaizai, puñetai ta, danai...
- M: Jenealen marmitaka batzuk atetzen zien, aurrenetik garai baten. Bildu etxian zeon esnia ta kamiona pasatzen zan ta zakanak eman. Baiño zenbat? Lau o bost behi eoten zian baserrin, izaten zianak. Baserri asko, bai.
- Eta kamiona bertatik pasa.
- M: Eta kamiona pasatzen zan esnia biltzea. Oain berriz bi baserri baiño Aizarna guztiyak ordun ateatzen zun, baiño gehio ematen due bitatik. Jenealen bi eongo dia honeta dedikatzen dianak hemen.
- [...].
- M: Bai. Hori berriya iten ai da, ta ez dakit ze in behar dun! Ez daki asko ze in behar dun beak hainbeste lanekin! Ta beste bat hemen goien, bi baserri [...] dedikatzen dianak. Hoiek daude oaintxe.
- Eta bestela, baratza izango zan, e...
- M: Baratza gutxi, itxeako lain.
- Gutxi?
- M: Bai.
- Ez zan saltzen kanpoa?
- M: Ez zan juten hemen... Zortzin behiñ o, oillo arrautzak eta holako jenerua bildu itxian sobre zekanak, eta Azpeitira saltzea. Ta honen gurasuak 'e nik hala ezautu nittun. Harek 'e itxian sobran zekana, behar zana, o ahal zana, itxian bertan ta igual, itxian jan gabe eaman, bizitzeatik. Ta hola etxeko jenerua eamaten sobratzen zan, ta. Honen gurasok eta guk 'e bai, berdin. Familiya hazitzeko, hamar seme-alaba badia, ta.

### 2.3. Txerri-hiltzaile eta behi-larrutzaile

- **Hizlaria(k):** Bergara Goenaga, Roberto; Etxabe Arakistain, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZES-001/013
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Roberto izan zen garai luze batean txerri-hiltzaile eta behi-larrutzaile. Kanpoan izan zen urte batzuez, gerratean, eta orduan ikasi zuen ogibidea. Herrira itzuli zenean, bera hasi zen harakin lana egiten Aizarnan. Askotan, gau erdian etortzen zitzaizkion bila, behia haizatuta,

edo kolpea hartuta... Jeneroaren zati bat ematen zioten, eta zerbait pagatzen zioten. Aizarnan ez da izango bera ailegatu gabeko etxerik.

### Transkripzioa

- A: Hau ibiltzen zan herrin karnizero. "E! Txerria hil behar deula. Etorri baserri honta!", ta juten zan baserrira txerri hori hiltzea ta.
- Zu izaten ziñan txerri-hiltzen eta?
- M: Herriko karnizerua.
- Oain izaten da, ez, e...
- M: Oaintxe bai, epokaik onena, garai, neguan, oain garai hontatik aurrea.
- Ta orduan hemen inguruko baserri guztietan zu, zu izaten ziñan...
- R: Bai.
- ... txerri-hiltzen?
- R: Bai, jauna, bai.
- M: Behi-narrutzen 'e bai. Hola izaten zan, ba, behi-narruk eta, o hanka hausi zula o gaixoik zeola o, jateko ona baldin bazeon, ta, etxez etxe. Behiak narrutu 're bai, honek iten zittun [...].
- Eta hanka bat hausi ta normalian ze iten zan?
- M: Geo zeak etorri zian, soziedadek, [terra] esaten giñun guk, soziedadek.
- Nola?
- M: Soziedadia, terra esaten zan.
- Terra.
- M: Ez dakit nola esplikat. Soziedade bat. Ganau baten galera baldin bazan, ba, etxe hoiek alkarrekin paatu iten zenun galera hura baserritarrai. Ta haragiya partitu iten zan. Ta honek iten zun hil ta partiketa. Zenbat itten zian, nolako ganaua zan, partitu kilotan honenbeste ta...
- Zatitu ta...
- M: Lan hoiek. Hor, hortan asko ibiliya...
- A, bai, e?
- M: ...lan hoietan.
- Eta nola hasi ziñan lan hoiek eiten?
- M: Karnizerua zan, ikasitakua.
- A! Kanpuan!
- M: Kanpuan ikasitakua, ta herriyan besteik ez zeon hola karnizero...
- A: Urduñan, lehen esan deguna.
- M: Bai, karnizero eon zanen, han urte asko in zittun. Zenbat urte in ziñuzen Urduñan?
- R: [...].
- A: Ahaztuta daka, ahaztuta daka.
- M: Esan dizut, ba, ahaztu iten zaizkiyo.
- R: Ez dao tokiik nere buruan.
- M: [...] ingo zittun Urduñan, karnizero, ta herriyan ez zan eongo karnizeroik. Anaia zaharraua zeon itxen lanen ibiltzen zana, baiño hura gerra denboan hil zanen, ta, hau etorri, ba, beau gelditu zan itxen.
- R: [...].
- M: Eta nola karnizero ikasiya zan, ba, honei [...] hots eiten ziyen, ta gaben igual, hainbeste bire Urdaneta, ta.
- A, bai, e? Aizarnatik kanpora ere bai.
- M: Bai. Hartu gantxua ta zea, kutxillua bizkarren ta oiñez.
- R: Gauen zean nao ta, "boun-boun!", atia hotsa, jo ta, etorri ta. Ez dakit [...], jode!
- M: Ordun ez gendun pentsatzen gaiñea, bildurtu 're iten ate jotzen zuenen gauza txarrik izan behar zunik.
- Holako konturen bat izango zala, ez?

- M: Holakotxe zean bat izango zala.

- R: Bai, ba.

- M: Oain, berriz, beste gauza batzuk pentsatzen dia ta.

- Eta gabian 'e...

- M: Bai, bai, paolakiñ 'e. O lastasuziyakiñ 'e igual. Lastasuziyakin ez dakit, baiño paolakiñ askotan.

- Izango zan lastasuziyakin ere bai, ez?

- M: Igual, igual. Baiño paola [...]. Baiño billa etortzen zitzaionen batek launduko zion, ta biyak segi.

- R: Bi bai, lau laun igual.

- M: Lau laun igual.

- Eta gabian presa izaten zan horrelako kontuak iteko, ala?

- R: Bai.

- M: Bai, segun. Kolpea akauta zeola, o akau in zala, o haizatu in zala, o... Segun bai, zenbat eta azkarro narrutu, haragiya hobia ateatzeko izaten zan.

- Haizatu ze izaten da, gaixotasunen bat, o?

- M: Ez. Asko janda haizatu.

- R: Haizatu, haizia o zea, jata... Arnasik hartu eziñik geatu.

- M: O zulatu in behar, o pulzoiakin zulatu 're behin baiño gehiotan.

- Baiña hori biziik dala.

- M: Biziik dala, bai.

- Biziik dala.

- R: Jatekuak kalte in diyalako 're baita.

- M: Udaran jan, beruan jan da, o 're baita. Belarra berotutakua jan dala, ta.

- Orduan, e. Larrutzen eta sendatzen 'e bai, ez?

- R: Partittu, partittu 're bai.

- M: Bai, bai, bai. Batzutan gertatu [...] ...

- Albaitero.

- M: ... zulau ta sendatzia 're gertatzen zan.

- R: Zailla. Gere moukua.

- M: Zailla. Narrututa hobe.

- A, bai?

- R: Ordun 'e beteinaio, ordun [...] beteinaioak.

- M: Narrututa hobe izaten zan. Haragiya konserbatzeko moukua baldin bazekan, aprobetxatzeko moukua, ba, galerik iya ez zun izaten, ta.

- Eta behia zatitzia ta lan astuna izango zan, ez? Gogorra. Behia zatitzia ta narrutzia ta.

- M: Bai, baiño gustoa. Laun artian ta gustoa ibiltzen zian.

- R: Garaian garaiako lana, normala, normala.

- M: Gustoa. Builla pixkat atea ta bata bestiai erritan inda.

- R: Ez, ez, ez, ez.

- Jai giruan.

- R: Ez, ez, ez.

- M: Gantxua [...] jaso eziñik behia sokatik eta, beno! Lanen ai zanen azkar in beharko zun gaiñea, beira!

- Eta gero zuri zati bat ematen zizuten?

- R: E?

- Zuri jeneruan zati bat ematen zizuten?

- M: Bai, jeneralen.

- R: Bai, zea, baiña pieza haundiik ez, e!

- Ez, e?

- M: Ez.

- R: Pieza haundiik ez.

- Eta...

- R: Uain, paatu o, dirutan.  
 - M: Bai, zeoze paatu [...].  
 - A, paatua izaten zan.  
 - R: Dirutan.  
 - Dirutan.  
 - R: Eman, ta...  
 - Eta txerri-hiltzen ere bai.  
 - R: Puf!  
 - M: Txerri-hiltzen asko.  
 - R: Hemen ez dek eongo, erten horrea ta eun guztiya pasta 're...  
 - M: Etxeik ez.  
 - R: ... ni aillau gabeko itxeik, txarriik hildako...  
 - M: Txerriik hil gabeko etxeik.  
 - R: [...]. Danak.  
 - Danak.  
 - R: Bai.  
 - M: Itxez itxe. Txarri hiltzen danen, danen. [...] danen. Ez dakit zeau ta akaso, [...] ta goiko hoietan 'e bai?  
 - R: Ni aillau gabeko tokiik ez dao.  
 - M: Ez, ganau o txerriya hiltzen aillau gabeko baztarrik ez.

#### 2.4. Ardien inguruko lanak: moztu, gazta egin...

- **Hizlaria(k)**: Garate Garate, Maria Ixabel; Irureta Irureta, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-040/014
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:21:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
 Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
 Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: 80 ardi inguru izaten zituzten etxean; aita ibiltzen zen artzain. Gazta amak egiten zuen eta saldu egiten zuten. Ardiak mozten aita eta biak ibiltzen ziren; eskuz guraizeekin mozten zituzten eta ardi-ilea saldu egiten zuten. Arkumea salduta etekin dezente ateratzen zuten. Arkumeak asto-zestoetan eramaten zituzten azokara.

#### Transkripzioa

- Eta ardik eta bazenduen etxen?  
 - E?  
 - Ardik bazenduen etxen? Artaldeik bazenuen etxen?  
 - Bai, beti eoten zin larogei bat ardi, beti.  
 - Larogei?  
 - Bai. Ta holaxen.  
 - Artzai ze ibiltzen ziñen, zu ibiltzen ziñen artzai?  
 - Aitta zan ni baino geyo arditan. Ni ere ibiltzen nintzan asko, baina askotan nola nik kanpoa erteten nun, aitta sufizientia zan, ta haura zan, ta geo aitta zeau zanian, hau zartu zan, artzantzau. Ni beti kanpon lanea, ta hau ni baiño geyo da artzantzau. Bai.  
 - Eta txabolan bat o bazenuen, o mendia o juten ziñeten?  
 - Bai, hamen e bagendun txabola bat, erre in zan. Ta hamen daukau bestia, ta han goyan bestia, ta zaharra zan, iya eroriyan zeon, ta hura erorittu

zamarra dao. Bai.

- Ta gaztaik eta, itten zenduen?

- Gazta bai. Gazta oso ona itten gendun.

- Zeiñek itten zun, amak?

- Ama zanak. Bai, oso gaztaya ona zan. Bai.

- Ta hue saltzen zenduen.

- Gaztaa saltzen gendun, bai. Asko ez zan izango, e? Etxien e jan ber izaten zan ta...

- Ardi-moztek eta, zuek itten zittuzuen?

- Ardi-moztek, buenoo... aitta ona zan, aitta zana, jezu, ardian lana. Baita neu're, mutikozkor zamarra, aitta nahiko lan in ber izaten nun, heldu ardiyai, ta hankak lotzen lagundu ta. Drigi-draga.

- Bi lagunen artean mozten zenduten?

- Bakarrak, hankak lotu ta, tripa azpiyak garbitu ta... Oiñ, oiñ hori ere ez det itten. Oiñ, ekarri itten det ardimoztailia.

- Ordun ez zan ba makinaik eta ezer egongo?

- Ez, ez, ez. Ardi-guaizak.

- Ardi-guaizakin?

- Bai.

- Ta [...]?

- Saldu ta dirua hartzen zan e, ordun. Gaur ez due bate baliyo, baiña ordun, ordun gauzak gaur baiño geyago baliyo zun. Danan berra zenduan e? Arkumia gaur baiño diru geyo zan. Hamar kilo arkume gaur e tres kuarenta, dos kuarenta o hola eongo da. (...) Ta... E? Hirura bai? Dos kuarentan ta hola diela ta. Ordun e hamar kiloko arkumiakin hartzen zian milla bat duro e? Ta gaur e hoixe dao. Bizimouak ia ze gorako in dun, oin dala hogeitertetik honea.

- Ba ordun e, garai hartako garesti izango zan, baiño...

- Orduan arkumiakin, jo, arkumiakin dirua hartzen zan puxka bat. Bueno. Bai, gure ama zanak eta aitta zanak beti esan izan zezen, Axpeitira plaza eaman ezkerreko arkumia, merketxexeo izanda bada ere, zaldu. Bestela hurrungo astian, zea, hankak lotuta bi aldiz eta baldin badabill, mermau itten zula. Irabazi ezin da, miña.

- Ta gañea, atzea, arkumea hura hartu ta ekarri in ber da berriz e.

- Atzea ekarri. Hankak askau iten giñuzen e honuntzian beti e? Han Azpeitikan ta hankak askau, ta ipiñi asto tortan, ta bueno, ba.

- Asi ke, bi zeatan lotuta eukitzea txarra?

- Bai, hombre. Ea atea kontuk geure hankak lotu bagiñun ze ingo genduken.

## 2.5. 12 urterekin eskola utzi eta morroi

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:09:48
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** 12 urterekin eskola utzi eta morroi joan zen Azpeitiko Landeta auzoko Arostegi baserrira. Baserri handia zen. Goizez baserriko lanak egin eta arratsalde bertako umeak zaintzen zituen. Azpeitian hiru urte egin ondoren etxera itzuli eta beste bi urtean Zestoako Ereioberri baserrian egon zen morroi. Berak 50 eta 80 duro irabazten

zituen urtean eta kaletar gazteak, berriz, mantenuaren truke aritzen ziren. Irabazitako dirua etxean entregatzen zuen.

### Transkripzioa

-Hamabi urterekin utzi zenuen eskola eta morroi joan zinen?  
-Bai. Orduan bakizu, morroe Landetan Aroztegira morroe jun nintzan.  
-Landetako aroztegira?  
-Aroztegira, bai. Martxialen... Han hiru urte ein nitun morroe.  
-Eta zer lan egiten zenuen?  
-Lana? Baserriyan eiten zan lana. Nausiak agindutakua. Ganauakin itulan. Itulan ba al dakizu zer dan?  
-Aroztegia, aroztegia zan?  
-Ez, ez. Baserriyen izena zan.  
-Aroztegi?  
-Aroztegi. Baserria.  
-Baserriko lanak egiten zenituen.  
-Basarri haundiya zan, eta basarriyan beti izeten zan gaztientzat'e lana. Batzuk itulan, ganauen aurrien itulan in ber-ta; beste batzuk zera laguntzen. Gero atsalden aitta zaharra eta ama zaharra eta gero andra-gizonak gaztiak; eta batek umezaitzan igual-ta, esaten zana in ber. Ure ekarri, bestela urik eta gauzik ez zan baserri askotan, urik ez, eta urek ekarri-ta. Eta han ein nitun hiru urte. Ta gero handikan etxera etorri nintzan pixkat hazi giñanian, eta gero hamentxe Eriyoberri (Ereioberri), beste bi urte. Ez [nitun] osau, gerrak erten zun...  
-Erioberri?  
-Eriyoberri, baserri bat hementxe. [...] partian dao, hamentxe goian dao Eriyoberri hori.  
-Horra etorri zinen morroi?  
-Bai, etxera etorri eta etxian ein nitun bi-hiru hillebete eta nahi zeen baten bat eta gero hor bi urte eta gerrak erten ziun. Guk hamazazpi urte genduzkela gerrak erten zun.  
-Morroi egon zinen etxe hartan mantenu aldera ala?  
-Ez., ez, ez. Orduan pentsazu, berrogeta hamar duro urteko jornala, eta ikeragarria zan ordun saso hartan. Ordun behiak biltzen eta ikaragarri zertzen zan. Mantentze aldera hor egoten zin. Kalekuak egoten zin holakuak jeneralin, hola gaztiak, bi hillebetarako eta barkaziotan eta zerak. Baiña nik ez. Berrogeta hamar duro. Eta gero hor gehio, hor larogei duro, honebeste urte aurrera ni joan bezela beti zera eitten ze(b)en, altzau.  
-Eta irabazitako jornala?  
-Oin bezela ez, amai eta aitai, ordun gurasuak kobratzen zeбен. Oin bezela? Oingo gaztiak gaiztuak dia, e.  
[...]

## 3. Aisia

### 3.1. Santa Engraziko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Bergara Goenaga, Roberto; Etxabe Arakistain, Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZES-001/015
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:32:00. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- **Laburpena:** Erromeria eta jai handienak Santa Engrazin izaten ziren, eta gehienbat Santio jaietan. Jende asko izaten zen, inguruko auzo guztietakoak biltzen ziren bertan.

### Transkripzioa

- Eta esan diazue hemen erromeriya izaten zala, Aizarnan bertan, plazan. Jaiero?

- M: Santa Engrazin bai, igual, jaiero, e?

- R: Santa Engrazin jaiero?

- M: Ez?

- R: Ez, ez.

- M: Tabernan o izango zan, baiño nik ez det ezautu hola kalen jaiero. Festetan ta.

- Festetan.

- M: Festetan, bai, dana. Eozer, Paskua biarrena ta sekulako festa iten zan ta, Ama Birjiñetan, ta. Gaiñuntzen tarten plazan, zeoze, omenaldi bat o zerbait baldin bazan, bai.

- R: Omenaldiya zeana...

- M: Zeozer zea baldin bazan, baiño bestela Santa Engrazin nik uste gehio izaten zala. Ni neuk ez naiz akordatzen hemen hola, jaiero, soiñuakin, ta...

- Noiz izaten da Santa Engrazin?

- M: Santiyotan.

- Santiyotan.

- M: Bai, Santiyotan jeneralen.

- R: Uain, ba al dakik Santiyo noiz dan?

- M: "Veinticinco de Agosto... de Julio".

- Julio.

- M: "Veinticinco de Julio".

- R: Ondo, ondo, ondo.

- M: Baiño, bestela erromeia jaiero han segurua ingo zan. Han aittutako errezelua dakat nik jaiero Santa Engrazin soiñua.

- Eta Santiyo egunian jai haundiya izaten zan Santa Engrazin?

- R: Jende asko juten zan ta.

- M: Nik uaingua, nik ezautu deten ezkeo, bai. Oain, lehenotik ez dakit.

- R: Buel tako barriyuetako jendia bai, Urdanetakok eta zeak eta.

- E: Bertako, bertako... Bertan ingurun baserri asko dia urrutikuak eta asko dia.

- R: Bai.

- Barriyo asko, ez?

- M: Honen edade multzukua 're bai, buru onakin daona badao han, Joxe Manuel, Joxe Manuel Leon.

### 3.2. Fidel Etxaberen pilota bikote

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-031/008
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:11:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Kirola » Pilota

Aisia » Kirola » Futbola

- **Laburpena:** Futbolean eta gehienbat pilotan ibili ohi ziren. Eliza ondoko frontoi txikian egiten zuten pilotan. Fidel Etxabe ezagunarekin ibili zen txapelketetan eta jubeniletako txapeldun izana da. Ez zuten irakaslerik, euren kasa aritzen ziren.

### Transkripzioa

-Zer jolas egiten zenuten orduan?

-Jolasak? Ba ia behiñ aillegau giñaneako ba, fubolian be bazeon pixka bat baiña gehiena pelota. Pelota ta fubola. Fuboleko patio bat bazeon, eta behin hamabi bat hamahiru bat urte ezkerro ba “Torneo jugadores infantiles”, eta hamendiken’e jun izan giñan.

-Futbolean ibili zinen zu?

-Ni pelotan. Fubolian ta’re jokatu nun puxkat baiño ez, gutxi, oso gutxi. Beti-beti pelotan. Frontoian giñan beti, beti frontoian giñan. Gero sortu zan elizan onduan beste frontoi bat, frontoi txiki bat, apaizak eta zertu zuen, eta organizau zuen, kanpeonato bat osau zan, veteranos, libres, eta gero juveniles. Han erten nun nik orduan nere lagun bat, gero pelotari profesionala ona izandakua, Fidel, Etxabe Once, ona izandakua. Eta bi urtetan geuk atera gendun txapelketa jubenilletakua hamalau eta hamabost urtekin, harek hamalau zittun eta nik hamabost urte. Eta bi urtetan jokatu zan eta bietan geuk atara gendun txapeldun.

-Eta zein maixu zenuen pelotan?

-Iñor ez.

-Zeuen kasa?

-Geure kaxa. Danok hamen frontoi kanpuan daon frontoi zar hortan geure kaxa, danok frontoian. Hortxe, beste zerik ez zan, mendira ibilli pixkat eta holakotxe afiziyuak. Saltaka, korrika pixkat bagendun baiña ez zan organizatzen holako festibal askoik-eta. Ba garai hori hoixe, hortantxe. Gero pelota hortatiken, gero ia segi(tzen) gendun pelotan. Beti ia pelotan.

-Parejaka ibiltzen zinen?

-Bai.

-Esan dezun horrekin?

-Bai, Fidel Etxabe, Etxabe XI. Hori profesionala ona izan.

-Eta kanpora pelotara-eta?

-Ez. Azkoitira-ta torneotara jun nintzan, ta baiña ni ez.

### 3.3. Udan egunero pilota partiduak

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ZES-031/010

- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:15:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Kirola » Pilota

Aisia » Oporrak

- **Laburpena:** Pilotak Azkoitia eta Zestoako denda batean erosten zituzten. Uztailaren aurrenetik irailera egunero jokatzen ziren partiduak

Zestoan, udatiar asko ibiltzen baitzen herrian. Bere pilota bikotearen aipamena egiten du.

### Transkripzioa

-Pelotak-eta nundik?

-Guk zeratikan. Hamen bazan denda bat, Zestuan bertan, Gaztaiñunekua-edo, ferreteya, hortikan zeatzen giñuzen, eta bestela berriz Azkoittitikan.

-Pelotak ze materialekin eginda zeuden?

-Oingo bezelakotxiak. Motelauak, ariña, goma barruan eta zera. Pelota txiki batzuketan jokatzen gendun. Atzian'e frontoian bazan beste zera bat "Txokokua" esaten ziuena, eta oso... danak burrukan danak hantxe, pelotan han jokatzerak, jai goizian-ta txandaik hartu ezinik-eta. Eta gero luzia nahi zunak ba... Eta pelotak ba... ez, koxkorak, infantillanak-edo oso zerak hasieran. Geroxio ez. Baiña behiñ..., e, orduan Zestuan egunero julio lehenbizitikan setienbrian hamabost arte, egunero-egunero jokatzen zien partido-pelotak egunian bi.

-Egunero?

-Egunero. Profesional maillan, ez zien profesionalak, guk'e jokau eitten gendun eta. Batzuk profesionalak zien eta bestiak ez, baiña egunero-egunero hamengo beraniantiai-ta zera emateko, egunero-egunero bi partido jokatzen zien. Ta han jokatzen gendun ba guk bigarren partidua ta hola. Ta gero, nik neuk, lehen esan dizuten bezela... ezbeharragatik laga in ber izan nun. Beste gazte danak hor ikasi zuen pelotan. Batzuk aillegau zien profesionaletara neure lagunak lau eo bost-o, eta mundu hortan gero, eta gero afizionautan-ta're esan dizuten hori, Fidel hori, Etxabe XI hori. Hori munduko txapeldun izan zan Uruguayan Ezkurrakin batera parejaka. Munduko txapelduna. Eta Españikua bi aldiz izan zan beste lagun batekin. Oso pelotari ona izan zan. Gero profesionaletara pasa zan eta ondo erantzun zun.

-Pelotarako laguntzarik bazegoen orduan?

-Ezta ezer e, ezta ezer e. Orduan ahal tzuena ahal tzuena, ibilli egunero ta frontoian ibili danak alkarrekin hantxe, kuadrilla danok, eta hori ta bestia ta hola ta. Holaxe jokatzen zan pelotan eta; laguntasunik ezta ezer e. Norbere kasa in behar tzan. Orduko pelotariak erten zuenak danak afizioz eta jardunda.

### 3.4. Osabarekin pilota enpresan

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-031/011
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Pilotan jokatzeari utzi zionean, osaba batekin frontoiaren subasta hartu eta pilota enpresa batean sartu zen.

### Transkripzioa

-Baina zuek baten bat izango zenuten partiduak eta jokatu behar zenituztenean entrenadore eta...

-Enpresarioa, baiña ez. Hortaraxe nua. Gero nik pelota utzi nunian, ia

pelota utzi eta ia operatzeko eta zera ta, enpresa mundu hortan sartu nintzan. Osaba bat eta banittun hortan dedikatzen zienak. Zestuan itten zan, urtero-urtero-urtero frontoia subastau itten zan. Ta paatu in behar izaten zendun. Paatu in ber izaten zan kanoi bat, subastau, eta pliego cerrao sartzen zan. Eta orduan beti izaten giñan bi edo hiru grupo beti izaten giñan subastan alkarren zean. Zenek hartzen zun, gero harek enkargau behar tzun ze partido jarri, nola antolatu eta danak. Baiño juliuan hasieratikan setienbrian zera arte egunero-egunero Zestuan.

### 3.5. Ekainetik irailera egunero 2 pezetan zinea

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-033/010
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:23:45
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Zinera joateko ohitura handia zuen umetatik. Zestoan ekainetik irailera bitartean egunero pelikula ezberdina ematen zuten. Neguan asteburuetan izaten zen zinea. Elizondo izena zuen zinemak. "Oeste"koak izaten ziren pelikula gehienak eta bi pezeta balio izaten zituen sarrerak. Azpeitiko eta Zumaiako zineetara ere joaten ziren.

#### Transkripzioa

-Lehenago aipatu duzu zinea. Zinera joateko ohitura bazenuen orduan?

-Izugarriya.

-Zenbat urtekin hasita?

-Ba nik txiki-txikitatik ezautu det zinia, eta ia behin hamasei-hamazazpi urte ezkeo. Eta geo, asko esatia izango da eta grabauta uztia gaiñea ondo dago, ez det uste beste herririk izango danikan iñun, asko esatia izango da, e, baiña Zestuan hasi ekaiñean, maietzian, bai hori da, "junio", San Pedrotatik hasi eta Zestuko festak iraillean hamarrera bitartian, egunero botatzen zan pelikula, baiña egunero diferentia. Udar. Egunero, egunero botatzen zan, zazpiretan eta hamarretan bi sesio, zazpiretan eta hamarretan, eta hasi ekaiñan azkenian San Pedro hurrengo egunetikan, eta setienbrian hamarra bitartian egunero-egunero-egunero botatzen zan, egunero-egunero pelikula diferentia. Egunero.

-Pelikulak hoiek erderaz?

-Honbre, klaro! Erderaz, hori dudikan'e. Eta nik gordeta baauzkat gaiñea orduko programaziyuak eta. Egunero botatzen zan, udaran, e. Eta neguan zapatu ta jaian. Zinia Zestuan izanda...

-Nola zuen izena zineak?

-Cine Elizondo.

-Elizondo?

-Elizondo.

-Frontoian esan dezuna?

-Frontoia berritu egin zan eta zine bezela jarri zan.

-Baiña aurretik?

-Aurretik frontoia zan eta frontoian izara botatzen zan eta jaietan botatzen zan pelikula. Eta neguan "sesión infantil" bat izaten zan eta zaharrantzako're bai, bi pelikula botatzen zien. Baiña egunero-egunero, eta ni hamazazpi urte ezkeo ez zan izango udaran egunikan zinia ikusi gabe

geldituko nintzanikan.

-Udaran joaten zinen?

-Udaran juten nintzan, gure etxian ez zeon diruik baiña neretzako... nik zinia ikusi det beti, beti. Eta hirurogeta lauan, hirurogeta hiruan nobienbrian antolau genun lehenbiziko aldiz forum saiua eta gaiñera euskeraz, neu tartian nintzala, soldautzara jun nintzan urtian, eta geroztikan ba larogeta hamaika urte arte-edo forumak eta gero Zestuko topaketak eta bueno, hor historia haundi bat dao. Eta lehenbizi bota zan pelikula ere gogouan daukat: "Cuatro en un Jeep" bota zan.

-Ze tipotako pelikulak izaten ziren?

-De todo. Oestekuak gehienak, eta pelikulak danetikan, pentsauko dezu, larogeta hamar pelikula botatzen bazien hiru hillabetian ba "allí había de todo. De 3, 3R". Bueno, 3Rtik gorakuekin elizara jo behar zan-ta ez zan botatzen. Bueno, hor anekdota asko daure "que no vienen a cuento", baiña bueno. Baiña zinia bai, Zestuan zinia izan da...

-Zineko entrada zenbat diru zan?

-Ba orduan mutil-koskorak bi pezta pagatzen gendun; bi pezta, bi pezta t´erdi-edo; gero hemeretzi-hogei urte eta hor ba bost pezta, ta gero hamar pezta-ta. Baiña nik hortan suertia euki nun. Nik pelota ta zinia hoiek ez zian... Eta jaietan arratsaldian juten giñen Azpeitira lauretako trenian, bostetan pelikula ikusi eta gabian hemen.

-Azpeitira joaten zineten?

-Azpeitira jaietan, bueno, hori ez hamabost urtekin, baiña ia hemezortzi-hemeretzi-hogei urtekin-ta ba... Bi zine zien. Eta gero Zumaira´re bai, Zumaira asko juten giñen, Zumaiian hiru zine ezautu dittut nik. Oin bakarra dao, ez dakit batek funtzionatzen dun. Zestuan ere itxi zan-ta.

## 4. Familia eta harremanak

### 4.1. 1934an jaio zen Zestuan

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-031/001
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1934an jaio zen Zestuan, kalean. Gurasoak ere zestoarrak zituen. Aita harakina izan zen eta edari almazena izan zuten. Hiru anaia eta arreba bat ziren.

### Transkripzioa

--Izena eta abizena eta noiz jaiotakoa zeran esaten badidazu?

-Xabier Iriondo Ibarguren. Baina ni beti Xabier. Treinta y kuartuan jaiotakoa naiz.

-Hogei eta hamalauan?

-Bai.

-Eta ze egunetan eta hilabete?

-Hogei eta sei febrerua, ahaztu zat euskeraz nola jartze´an febrerua.

-Otsailla.

-Otsaillan hogei eta sei.

-Nun jaio zinen, hemen?

-Zestuan, Zestuan.  
 -Baserriren baten?  
 -Ez, kalia.  
 -Gurasoak zer zenituen, hemengoak?  
 -Bai, bertakuak.  
 -Baserritarrak?  
 -Ez. Bueno, ama kale-baserrikua zan, kale onduan zan kale-baserri bat, baiño ez, kalia esateko. Eta aitta're karnizerua zan lehenbizi eta gero edari-almazena gero jarri gendun. Baiña nik neuk (...) edari almazen hortatikan, porke haiek lehenuo bi anaiak ein zuen kanbiyua, karnizeria eta edari-almazena zazken aitta zanak jarrita ta kanbiatu ein zun, eta guk ia, nik eaman nun edari-almazena, gero segittu nun. Gero transportian'e sartu giñen fuerte pixkat-eta; bizimodua hola izan da.  
 -Zenbat anai-arreba?  
 -Gu hiru. Ez, hiru anai ta arreba bat.

#### 4.2. Lagun artean herrian

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-031/007
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:08:59. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Lagunak herrikoak zituen. Eskola garaian ez ziren herritik ateratzen, Azpeitira festara noizean behin. Orduko etxeko diziplina oso gogorra zen.

#### Transkripzioa

-Eskola garaian lagunak zer zeneuzkan?  
 -Herrikuak, herrikuak. Kanpora, eskola garaian-ta kanpora ezta erten'e hola iñora. Azpeitira festan bat edo baldin bazan baiño ez. Edade haretan gurasuak eta ez zuen lagatzen.  
 -Disziplina oso gogorra zan?  
 -Bai, bai. Etxian'e gurasotik hasita. Orduan ez zeon oin bezela ume batek protesta ein dula eta jun da, gurasuak zerana jun, maixuana edo eta berak erritan-ta. Orduan etxian enteratzen bazien erritan bat ein zizula edo zerak, han beste bi zaplada. Eta ixi-ixilik egon ber.

#### 4.3. 1943an jaioa Iruita baserrian

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-033/001
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:12
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Zestoako Iruita baserrian jaio zen 1943an eta 3 urte zituela joan ziren kalera bizitzera. Ama Iruitakoa bertakoa zuen eta aita Etorrakoa . 3 anai-arrebatan gazteena da bera.

### Transkripzioa

-Izena eta abizena eta ematen badizkidazu.

-Xabier Unanue Alberdi, zestuarra.

-Ze urtetan jaio zinen?

-Mila beratzirehun eta berrogeita hiru, otsaillak bi, “día de la Candelaria”.

-Zestuan kalean ala baserrian jaio zinen?

-Jaio baserriyan. Baiña gurasuak esaten dianezen hiru urtekin jatxi emen giñen kalea ta. Gero udaratan-ta baserrira juten giñan udara pasatzera, aitonan-ta baserrira, baiña bueno, ni nere amazanek esan ohi zun bezela, baserrian jaiotako kaleumia.

-Ze baserritan jaio zinen?

-Oñ Idoieta, Iruitta baserriya esaten degu.

-Iruita?

-Iruitta, bi t-kin.

-Eta gurasoak?

-Baserritarrak. Iruitta baserrikua ama eta Etorra baserrikua aitta.

-Nungua aita?

-Etorra baserrikua.

-Eta zenbat anai-arreba?

-Hiru. Bi anai eta arreba. Neu gaztena.

-Asi ke hiru urtekin kalera.

-Hiru urtekin kalea.

#### 4.4. Umetako jolasak; pilota gustukoen

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ZES-033/005

- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:11:05

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Umetako jolasak aipatzen ditu, pilota zuen gustukoena. Eskolan frontoi txiki bat zuten eta han eta herriko frontoian aritzen ziren pilotan. Udan partida asko izaten ziren herrira hurbiltzen ziren kanpotarren gozamenerako. Jolas baten inguruko aipamena egiten du.

### Transkripzioa

-Umetan ze jolas izaten ziren?

-Pelotan. Fubolik ez zeon ta ba pelotan. Gero ba frontoian, fubolian baiña pelotan, hemengo deportia pelota zan. Gero zaharrauak ba kanpeonato playerotan Zumaian-ta jokatzek zuen, guk'e bai eskolatik ertendakuan jokauko gendun, baiña hemen bakarrik pelota zan. Eta azkenengo urtetan berrogeta hamazazpian balonzestoko pista bat jarri zuen. Hura're ezda-bidakua izan zan, baiña ez zuan zerik. Hemen pelotan. Hemen beste deporteik ez zeon.

-Zeuen kaxa eta bazenuten pelotako maixuren bat?

-Eez! Maixoa nola izango zan ba. Geure kaxa. Kanpeonatuak eta eskolakuak organizatzen zian baiña ez, geure kasa.

-Ez zegoen pelotako entrenadoreren bat?

-Ez, hoiyek gero, hoiyek berriak dia.

-Pelotan frontoian ibiltzen zineten?

-Bai, kolejiuan bertan frontoi txiki bat zan. Eta gero beste bat hemen Gurutziagan dagona, Frontón Gurutzeaga. Oin dala gutxi, milla beratzirehun ta seian, ehun urte bete zittun, milla beratzirehun ta seikua zan frontoi hori. Eta hemen udaran-ta partiduak korredoriekin-ta jokatzen zian eta galtza zuriekin-ta. Udarán, udaran San Pedrotatik hasi eta festak pasau arte egunero izaten zan partido pelota. Udarán, beraneo, kanpotarren etortzen zien garai hortakua. Baiña hori geroko kontua da. Bueno, orduan'e jokatzen zan, baiña guk jokatzen gendun frontoi txikiyan, eta frontoi atzian. Ondikan'e jokatze'a.

-Futbolean?

-Fubolian ez zan orduan jokatzen. Bazien kanpuan-ta zarrak jokatzen zuenak, (...) zien hemen Azpeitiyan-ta jokautakuak eta terzeran jokautakuak-eta, baiña hemen bertakoikan hemen pelota zan guk ezautu deuna.

-Eta bestelako jolasak? Kaniketan-edo?

-A!, hoiek bai, betikuak, kaniketan-ta, txirrindukin-ta.

-Zerekin?

-Nola da hori, errueda bat.

-Nola esan dezu?

-Txirrindu..., nola esaten zakon, txirrintxa-edo..., hola burni batekin eamaten zana. Hori azaltzen da pelikulan, sekula ein detan parreik haundiña orduantxe ein nuan, Pedro Armendarizek rodau zuan ikazkiñena, nola zan hua, famosua, ikazkiñena. Este, nere burua, zahartu ein gea. Hor azaltzen zan jolasian mutil-koskorak txirrindu batekin-ta kalia-ta.

-Eta tabatan-edo, puxtarriak-edo, ez dakit nola deitzen diozuen, ardi...

-Bai, hoiekin'e bai, holako (...I txiki batzukin, jolasten gendun baiña... Ni neu beti pelotan jokatu det, (...). Tasio, pelikula. Tasion azaltze'a hori, gure umetako... Baiña han'e kaniketan bezelaxe eta beste gauzetan bezelaxe batzuk beste batzuk baiño hobio zian, eta onak zianak hartan ibiltzen zien eta txarrak giñanak ez giñan ibiltzen.

-Horrek esan nahi du zuek pelotan onak zinetela.

-Onak ez giñan baiña bueno.

-Eta ibiltzen zineten herri diferentetan?

-Ez, hemen.

#### 4.5. Joxe Mari eskolan, Aizarnan eta Zestoako maristetan

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Irure, Joxe Mari; Uranga Ibarguren, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-044/002
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:03:28. **Bukatu**: 00:05:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberría, Eider
- **Gaia(k)**:  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
 Euskara » Euskararen egoera  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Luisa eta Joxe Mari elkarrekin ibili ziren eskolan. Luisa Aizarnako Aristain baserrian jaio zen. Joxe Mari Aizarnako eskolatik Zestoako maristetara joan zen ikastera eta osabaren etxera Akuara joaten zen laguntzera. Maristetan erdaraz ikasten zuten. Luisak Etumetan eta Errezilgo baserri batean ikasi zuen.

## Transkripzioa

- Ze ibili ziñeten, alkarrekin eskolan?
- Luisa: Bai, alkarrekin ibili giñen.
- Zu nundarra zea?
- L.: Ni? Hemengo etxien. Ni.
- Joxe Mari: Hortxe.
- L.: Hortxe basarri bat, Aristain.
- Nola? Aristain?
- L.: Bai.
- Ta umetatik eskolan alkarrekin?
- L.: Ibili giñan, bai, alkarrekin.
- J.M.: Eskolatik itxea ta hasi giñan eskutik helduta etortzen, ta geo nobiyo in.
- Nobiyo in! Eta Etumetan in zendun urtebete esan dezu?
- J.M.: Bai, urtebete o holako bat uste det. Urtebete edo bi edo, holako bat. Ez dakit hamaika urtekin, ez dakit beatzi urtekin o ze hasiko nintzan eskolan. Geo hamaika hamar urtekin jun nintzan Maristeta Zestuara, hor bi urte pasa nittun...
- Ta hemendikan Zestua oiñez?
- J.M.: Ez, Akua, nola aitta Akua baillarakua zan, aitta zanan etxetikan joten nintzan handikan Urbiondo, badakizu, Akua baillaratikan.
- Oseake Akua jun ziñaten bizitzea?
- J.M.: Ez, ez, ni jun nintzan osaban ta etxea eskola juteko, Zestuara eskola juteko. Ta geo han esne partittu kalian, ta hayei laguntzen niyen, ta geo eskola jun, ta han bi urte pasa nittun.
- Ze maisu zenduen maristetan?
- J.M.: Maristak. Maristak zian ordun.
- Ta nundarrak zian?
- J.M.: Ez dakit hoixe.
- Kanpotarrak o?
- J.M.: Ez, ez zian izango kanpotarrak. Hiru eskola zian, hiru klase, hiru marista eoten zian, bakoitza bere grupuakin eoten zian, ta hantxe.
- Eta euskeraz ala erderaz itten zenduen?
- J.M.: Erderaz uste dut ordun geyena erakusten zala. Bueno, guk geure arten ta dena euskeraz ingo gendun. Baiña, bai, garai hartan Aizarnan'e bazan eskola, baiña ni ez nintzan behiñ'e izen ibili Aizarnan. Lehen esan deten honetan ibili ta geo Zestua hasi nintzalako, baiña Aizarnan eoten zan jeneralen maistra kastillanua. Eta gaiñea eskolan kastillano, erderaz in behar.
- L.: Ta maixubai're bai.
- J.M.: Garai hartan, normalian maixua'de bai.
- L.: Maixua're erdalduna.
- Zu ze ibili ziñan beti Etumetan?
- L.: Etumetan, ta gero hor beste zea bat maistra bat bazan, hua ere Errezildarra. Errezilko parten du basarriya. Harek etxien ematen zun eskola, ta hala, ez dakit zenbat denpoan ibiliko nintzen, ideaik ez dakat. Urtebete? Bi?
- J.M.: Karrera bukau bittarten.
- Ta zuk ere dana euskeraz ikasiko zendun ez?
- J.M.: Bai, bai.

#### 4.6. Nobiotan, igandeetako zita

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Irure, Joxe Mari; Uranga Ibarguren, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-044/017
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:39:39. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gaztetan ezagutu zuten elkar. 6 seme-alaba dituzte. Igandeetan elkartzen zirenean jartzen zuten ordua hurrengo iganderako, orduan ez zegoen telefonorik.

##### Transkripzioa

- Noiz ezautu ziñeten? O noiz hasi ziñeten alkarrekin? Ezautu igual umetatik, baiña...
- Luisa: Bai, umetatik ezautu, bertatik bertakok eta. Noiz hasi? Ba, hamaxei bat urtekin, hamazazpi urtekin eo...
- Joxe Mari: Nik ze izango nittun, zuk honbeste bai, geyo... hemezortzi urte eo. Nik hogeta bat-eo, hiru urten aldia dakau ta, nik hogeita bat. Geo ibili giñen hamar urte ingurun, nobiyotan ibili giñan, ta ointxe bi urte in ditugu berrogeita hamar urte, bodas de oro in genula.
- Zorionak!
- J.M.: Sei seme-alaba: bost seme ta alaba ekarri dittugu. Zuek puxketako lana badezue honbeste ume ekartzen.
- Ez gea aillauko gaiñea sekula. Eta orduko hola nobiok eta alkarrekin ateratzeko, ordun telefonoik eta ez zan izango?
- L.: Ke ba, ezer.
- Ta nola eoten ziñaten? Jaiko erromerín?
- L.: Jai goizen mezeta juten giñanen, atsaldeko zita in. Yasta.
- J.M.: Ba lehen esan det, Aizarnan mezatik etorriko giñan, hamabost o hogei lagun o elkarrekin.
- L.: Etxea alkarrekin.

#### 4.7. Azpeitian jaio eta lau urterekin Iraetara

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/001
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:55
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1919an jaio zen Loiolako Bizkiturri baserrian. Ama Bizkiturrikoa zuen eta aita Agerrekkoa, loiolarrak biak. Lau urte zituela Iraetako Antonenea baserrira joan ziren bizitzera, Kamineronekoa ezizenez ezaguna. 11 senidetan bigarrena zen Tiburtzio.

##### Transkripzioa

- Izen-abizenak ematen badizkidazu.
- Tiburtzio Lopetegi Zabaleta.
- Noiz jaio zinen, ze urtetan?

- Ba etorriko'ye datorren hillen aurrenien larogeta hamar... hemeretziyen, hemeretziyen izengo giñen jaiyuak gu.

- Hemeretziyen?

- Bai. "Mil nuevesientas (dieci)nueve". Larogeta hamar (...) hemendik hogei egun barru, hillen aurrenien.

- Ze hilabetetan jaio zinen?

- "Primero de abril".

- Gerra (akabau zanian) hogei urte, gerra akabau zanian. Hamen (geunden) gu soldau gerran.

- Jaio nun egin zinen, hemen bertan?

- Ez, Loiolako Bizkiturrin. Baserriyan izena. Hantxe erreka-zuloan, zera bado ba, taberna hori, oiñ saldu in due, Uranga Taberna. Haretxen ondo-onduan jaiotakuak gea gu. Handik alde ein gendun lau urte giñuzela alde ein gendun hortiken.

- Hangoa zer zenuen, aita edo baten bat?

- Ez, ama hangua, baiña bakizu orduan jesuitak-eta zien, eta jesuitak ze in tzuen, terrenuak eta danak-eta. Hor Iraetan baserriya librau ein zala ta gure aitta zana ta horrea zea ein giñan.

- Aita nongoa zenuen?

- Agerrekua, Loiolako Agerrekua, Agerreaundi.

- Aita ere Loiolakua zan?

- Ama Loiolako Bixkiturrikua, aita Agerrekua.

- Loiloakoa?

- Bai, hantxe gain-gaiñian. (...)

- Eta orduan lau urterekin Iraetara etorri zineten?

- Bai, bai, Iraetara, lau urte giñutzela.

- Baserriren batera?

- Kamiñerokua. Bueno, etxe horrek ditu izen asko. Baakizu zer dun? Hor lehen emen tzan Kamiñerokuan kamiñerua gizona eta orduan multak-eta izeten zien, karreteruak-eta asko, eta ardua emateagatikan zeratu emen tzion, libre laga, eta "Ardo" izena ipini. Eta gure aittite zanai, berriz, aman aittei, Loiolan jesuitakin nola hazi zan, "Patroia" berriz hari. Eta etxiak berez izena du Antonenea. Antonenea du, baiña iñok ez du ezautu izen hori, Kamiñeronekuakin beti. Horrea (jundakuak?) gea gu.

- Zenbat anai-arreba zineten?

- Gu asko. Ikaragarria botako dizut, e. Hogeta bost hillebete barrun gure amak izan zitun lau mutill. Hogeta bost hillebete barrun. Gu bixkiak, eta hurrenguek'e bixkiak, haiek'e mutillak. Haiek hemen bizi izan balie larogeta sei urte. (...)

- Zenbat anai-arreba?

- Zortzi anaia ta hiru arreba. Hamaika.

## 5. Euskara

### 5.1. Eskolan Zestoako fraideetan

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Ibarguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-031/003
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:04:12. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

- **Laburpena:** Edari almazena zuten gurasoek eta Zestoa eta inguruko auzoetan ibiltzen ziren banaketan Eskolan Zestoa bertan ibili zen eta fraideak zituen irakasle. Sarreran ilaran jarri eta Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Euskaraz eginez gero zein zigor izaten zuten azaltzen du. Igandeetan ere eskolara joaten ziren.

### Transkripzioa

- Ordun gendukan guk, ba, edari-almazena: gaseosak eta sifoiak eta zerbezak saldu ta, ardua saldu ta... Zestua ta barriyuan. Hasieran nik hori izan nun. [...] Hori hasiera zan, hori familiyana. Bestela? Oin zuk hasi ya hortik aurea galdatzen, eskola ta gauzak, eta nahi dezun bezela.

- Bai, hori, eskolan ia nun ibili ziñen?

- Honea etorri giñan eta hementxe aldamenian zan eskola, hementxe aldamenian.

- Zer zan, monjena?

- Ez. Zera zian, Viatoristas edo ez dakit zer zien, frailliak. Frailliak zien.

- Fraillek zer ziren, hemengok?

- Ez. Kanpokuak zian. Viatoristak edo; Salesianos edo Viatoristas. Hoixe ez nizuke esango oin.

- Eta zer ikasten zan?

- Sumar, restar, multiplicar eta dividir juxtu-juxtu. Hortxe. Eta orduun gertatzen zana zan (...) lelengo eskola sarreran danok jaso, formauta jarri, eskubiko eskua jaso, eta 'Cara al Sol' kantau ber izaten gendun beratzittan eskolara sartzeako.

- Obligazioa.

- Obligauta. Etxera erten hamabittan. Bazkalonduan, berriz, gauza berdin-berdin-berdiña.

- Oseake goizen ta eguardin sartzerako garaian...

- 'Cara al Sol'. (...). Gero goizian maixuak ematen ziyon batei kanika bat. Eta zuk iñor somatzen bazendun euskeraz hitz egiten, harei pasau behar ziyozun.

- Kastigu bezela?

- Bai. Hori segi illuntzea arte. Eta illuntzian zenek zakan kanika haura, harek egunero kastigua izaten zun. Hori egunero, e. Euskeraz ez hitz egiteagatikan.

- Dana erderaz ikasten zan?

- Dana erderaz. Orduan besteik ez zeon. Igandetan goizeko hamarretako eskolaa. Danok formatu, eliza meza nausira. Erten eta libre. Arratsaldian berriz bezperak eiten zian, lauretan o ez dakit noiz, atzera danok formatu, atzera elizaa berriz'e. Diziplina hartan eon giñan baiño...

## 5.2. Apaiz bati gertatutako anekdota

- **Hizlaria(k):** Olaizola Alkorta, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-037/039
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:00:36. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**

Euskara » Tratamenduak

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Euskara » Tratamenduak » Berorika

- **Laburpena:** Etxean gurasoei berorika hitz egiten zieten, baita mediku eta apaizei ere. Apaiz bati gertatutako anekdota bat kontatzen du.

### Transkripzioa

- Zuek etxen ze itten zenduen, hika ala zuka?

- Zu.

- Zu?

- (Alaba) Anayen artian ere bai?

- Ez, anayen artian ez. Hayei ta beorri.

- Meikuei ta apaizai ta berori.

- Bai, beori. Ez al dakizu? Mutiko zar batek meikuai, oo, apaizai beti, "hi ta to, hi, ta hau ze in ber dek, ta hi..." ta apaiza hasarratu ta itten, ta esan diyo aittei apaizak: "aizu, aiku, zuen mutill horrei beti hik ta tok horrekin tratatzen nau. Ta hoi ez da edukaziyua apaiz batei esateko", ta "Arrazoia dauka. Arrazoia dauka. Nik esango diyot"... "Ze esaten diyok apaizai, hik eta zeatik" eta "ba hoixe okurritzen zat eta". "Apaizai bai jauna, ta beorri, ta hola esan ber zayok apaizai. Bai jauna, ta beorri, ta hola". "Ta, ba esango diyot ba". Hurrengo hurreau zayo apaiza bati ta "bai jauna ta beorri, bai jauna ta beorri" apaizai. "Ta bai jauna ta beorri" ta "O! Zeiñek esan dizu hola esateko?", "Aittak eta amak esan ziek hiri esateko".

## 6. Ohiturak eta bizimodua

### 6.1. Dotrina derrigorrezko ikasketa

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibarguren, Xabier

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ZES-031/005

- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:06:41. **Bukatu:** 00:08:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

- **Laburpena:** Mutilak bakarrik joaten ziren Xabierren eskolara. Dotrina derrigorra izaten zen eta apaizak hartzen zien ikasgaia. Gaztelaniaz ikasten zuten. 10 urte inguru zituela, fraideek herritik alde egin eta eskola gabe geratu zen.

### Transkripzioa

-Zer joaten zineten, neska eta mutil denak batera?

-Ez, gu eskola hontan ibilli giñan mutillak bakarrikan. Mutillak bakarrik ibili giñan eskola hontan.

-Dotriña ikasten zenuten?

-Bai. Dotriña hori bai. Hori derriorrez. Dotriña, erlijioa, klasia zan bestiak bezelaxe, oiñ, bakizu, oiñ ez dao eta hor dabilta burrukan, baiña orduan ez, obligatorio. Dotriña bai, eta gero komuniua eitterakuan dotriñakin

pasatzen giñan herriko apaizana. Haiek jauna emateko aber bazakizun edo ez zakizun. (...) ez bazakizun dotriña hori ez zizuen ematen, urte hartan komuniuik ez zizuen ematen; hurrengo urterako, ikasi arte.

-Eta dotriña hori euskeraz?

-Ezta. Erderaz, erderaz, erderaz.

-Baina apaiza herrikoa zan.

-Herrikoa zan.

-Euskalduna zan?

-Euskalduna zan. Baiño ez. Ez det uste behintzet. Ez, ez, ez. Orduan ez zan beste zerik. Herriko apaizak eta're ez zakien, sermoia ere erderaz egin behar izaten zuen eta dana, dana hori zan. Ba hor eskolan ibilli giñan eta gero zeoze gertatu zan. Nik zenbat izango nitun ba, zortzi, bederatzi hamar bat urte-edo ta, zeoze eztabaida gertatu zan udaletxiakin edo zeakin eta, zera hoiek, hermano hoiek alde ein zuen. Eta gero orduan eundoko, iñor billatu eziñik-eta ibilli zien, maixu bat ekarri eta beste bat, eta hola interinuak eta hola ibilli zien eta ezen formalidadeik ez. Nik dakitt hamaika bat urtera aillegau nitzala postura hartan. Gero hura jun zan eta kitto. Gero handikan atzea etxian geldiu eta hantxe etxian lanian.

-Hantxe bukatu zitzaizun?

-Bai, nere eskolak bukatu zien hamaika-hamabi urtekin.

## 6.2. Eskolan mojekin eta La Sallen ibilia

- **Hizlaria(k)**: Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-033/002
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:01:12. **Bukatu**: 00:04:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Eskolan mojetan hasi zen miserikordian. Mojek euskaraz egiten zieten. 7 urterekin La Salleko anaien eskolara (San Josea) joan zen. Lagunartean euskaraz egin arren maisuekin erdaraz ikasten zuten. "Hermano" batek Xabierri eta lagunei euskaraz erakusteko ahalegina egin zuen eskolaz kanpo.

### Transkripzioa

-Eta eskolara?

-Bueno, ni akordatzen naizena da txikittan monjetan egon giñala lehenbiziko, ez naiz akordatzen, etorrita derrepente hasi giñan-edo. Baiña monjetan egon giñala bai, eta Sor Maxima zala gure monja. Oindik bizi da gaiña sor Maxima. Harekin gooratzen naiz Mixerikordira nola jutun giñan eta nola eskolan egoten giñan. Lehenbiziko urtiak han pasau giñuzen. Mixerikordian, monjetan. Orduan eskola nazionala zan hemen eta monjak. Monjak neskana bakarrik zan baiña txikiyak mutill eta neska jutun giñan. Baiña aparte, mutillak mutillakin eta neskak neskakin.

-Eta maestrak monjak?

-Monjak.

-Hemengoak ala kanpokoak?

-Bueno, euskeraz bazekien Sor Maximak behintzat; bestiak, Sor Carmenek ez zekin, oindik bizi da hura're, baiña ez. Sor Maximak bai, euskeraz eiten

zigun. Txikittan, e, han monjetan. Eta gero hemen hasi giñan zazpi urtekin, milla beratzirehun eta berrogeta hamarrian, eta urte hoixe izan zan La Salletarrak Zestuara etorri zien urtia. Hermanos de Lasalle, milla beratzirehun eta berrogeta hamarrian, eta zazpi urtekin hoiekin hasi nintzan hemen San Jose ikastetxian. Hiru gela zittun eta hiru hermano etorri zien milla beratzirehun eta berrogeta hamarrian.

-Nungoak ziren hoiek, kanpotarrak?

-Ez. Bi behintzat bai, zuzendaiya Eusebio, Hermano Eusebio Urbistondo, Atzerrekakua zan; bestia Hermano Luis ez naiz akordatzen nungua zan, geroztikan gaiñea ez det jakin nungua zan, eta bestia Hermano Ignacio, hau lurrekua zan, bizkaitarra. Hiru hoiek etorri zien. Eta hamalau urte arte ba San Jose ikastetxian.

-Eta hemen danak mutillak?

-Hemen mutillak bakarrikan. Neskak Mixerikordian.

-Eta zer ikasten zenuten?

-Orduan ematen zan ba beste geroztik beti eman izan dianak, Matematika, Relijuiua, Geometria, Historia, Historia Relijiosua. Baiña gero puntuatzen zunak Matematika, Geometria ta hoiek. Este, Erljiyua, eta dozenerdi bat gauza.

-Eta euskeraz ala erderaz?

-Erderaz. Klaro. Eskolan-eta euskeraz eitten gendun, euskaldunak zian-ta. Guk euskal girua bizi izan gendun, baiña.

-Lagun artean euskeraz egiten zenuten?

-Dana euskeraz. Hemen ez zan erdaldunik orduan.

-Debekurik eta ez zenuten euskeraz egiteagatik.

-Ez. Eskola erderaz ematen zan baiña guk errekreoan-ta euskeraz eitten gendun. Eta gerora urte bat, nik hamabi urte, hamahiru urte, askotan kontau det eta, berriz'e kontau eingo det eta, batzuk akordatze'ia, izan zan hermano bat, bizarduna, Hermano Manuel, eta harek tartetan euskeraz erakusten saiau zan. Ni lehenbiziko aditzak Nor, Nori eta Norentzat-eta, ze haiek, zerbait ematen zigun, baiña haiek aparte. Berak ba ematen ziun baiña oso gutxi; eta gaiñea hola bi hillabete, hillabete bat edo nik ez dait, berak bakaziotan etortzen zanian. Hermano zahar bat zan, bizar zuri batekin. Hermano Manuel. Baiña ez, euskeraik guk ez genun ikasi, eskolan ez genun euskeraik ikasi.

### 6.3. Eskolara sartzean errezatu

- **Hizlaria(k)**: Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-033/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:05:55
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola nazionalean La Sallen baino bigunagoak ziren. Xabierrek eskolara sartzean errezatu beharra izaten zuen.

#### Transkripzioa

-Eskolara sartutako garaian eta kantatu beharrik izaten zenuten?

-Ez.

-Askok esaten duen monjetan edo frailletan sartu ta kantau...

-Bai-bai, nik badakitt hori. Hemen La Salletarrak egon zienian'e, eskola

nazionala bazeon, ta nere anaiya zaharraua eskola nazionalekin eon tzan. Bi eskola zien, La Salletarrena, San Josekua, eta gero eskola nazionalekuak. Eta hoiek kantatzen emen tzuen, kantatzen emen tzuen, baiña guk ez gendun ezautu. Guk La Salletarrekin guk kantau ez, guk aittaguria errezaue skolan sartzerako, filatan sartu eskolara eta Santo Kristua eta hiru-lau irudi, hori betikuak eta errezaue-ta. Baiña eskola, guk eskolan kantau ta sekula ez. Guk ez giñun ikasi frankismoko signoikan. Eta baten batek esaten badu behintzat, neekin egondakuak. (Zerian egondakuak) bai, eskola nazionalaletakuak bai, baiña guk ez.

-Eta eskolara zer arropa eraman behar izaten zenuten?

-Normala.

-Ez zeneukaten uniformearekin (joan beharrik)?

-Ez, ez, ez. Guk ez genun uniformerik-ta sekula santan ibilli.

#### 6.4. Jaunartzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-033/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:40
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Jaunartzea Zestoa egin zuen. Dotrina ikasi behar izaten zuten jaunartzerako eta apaizak hartzen zien lezioa. Jaunartzean arropak bakoitzak aukeratzen zituen, baina lazoa eta gurutzea derrigorrezkoak ziren. Neskek eta mutilek aparte egiten zuten jaunartzea eta baraurik joan behar izaten zuten.

#### Transkripzioa

-Eta jaunartzea-ta nun egin zenituen, komunioa? Hemen Zestuan bertan?

-Bai, bi komunio. Komunio txikiya eta komunio haundiya. Nik uste'et bakarra ein nula, baiña nere aurrekuak eta bi eta gure (anaiak-eta) ere bi ein zittuen, bat zazpi-zortzi urtekin eta bestia hamar urtekin.

-Eta komuniua egiteko ze, dotriña bakarrik ematen zenuten ala?

-Bai, dotriña. Azkenengo astebetian edo esamiñ bat edo hola eitten zan, baiña ez, ez. Hori, azkenengo zera hori, astebeteko hori apaizakin eitten zan. Txartel bat ematen zuen hua ein zendula-ta.

-Erropa?

-Erropak dotoriak, dotoriauak.

-Bakoitzak nahi zuena ala?

-Bai, bai, gure garaiyan bakoitzak nahi zuna. Nik bakarrik daukatena goguan obligatoriyua zana zan holako lazo haundi bat, kurutze batekin lazo haundi bat zan besuan jarrita, eta gero kurutze bat, baiña (ahal zien?) erropakin. Gu kale-umiak giñan-ta, hemen diruik ez zan-ta, aita igeltserua-ta.

-Neska-mutillak elkarrekin joaten zineten?

-Mutillak mutillekin eta neskak neskekin.

-Eta baraurik joan behar izaten zenuten?

-Bai. Honbre, por supuesto, ez da ur tragoikan'e. zortzi t'erdietan izaten zan meza.

## 6.5. Luistarren kongregazioa

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-033/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:17:50
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Zestoan egon ziren apaizak izendatzen ditu. Igandero joaten ziren mezetara eta arratsaldean bezperetara joan beharra izaten zuten. Hiru meza izaten ziren: ehiztariena, kongregaziokoena, etab. Luistarren kongregazioaren inguruko kontuak kontatzen ditu.

### Transkripzioa

-Eta apaiza hemen bertakoa?  
-Azkoittiarra, Don Jose Azkoitia. Bestia Don Emeterio Isasti, getariarra. Eta geroxio Don Jenaro... Hiru apaiz zian. Lehenbiziko urtian beste bat. Lau apaiz ezautu giñuzen guk.  
-Mezetara ze joaten zineten, igandero?  
-Igandero, eta bezperak arratsaldian lauretan, eta bostetan zinia.  
-Ze izaten zan bezperetako hori?  
-Ba eliz-funtzio bat. Normal, "vulgar y corriente" baiña bueno letzen zian pasarte, elizako pasarte batzuk, guk ez genun jun nahi izaten baiño bueno. Jai arratsaldia izaten zan eta jai arratsaldian elizara jutia ba... Baiña ohitura halaxe zan eta juten giñan eta hua bukatzen zanian bostetan zinia izaten zan, zine infantilla.  
-Osea ke elizara joatea obligazioa zan.  
-Bai, bai. Obligazioz ez esanda obligauta giñala. Ohitura zan eta gauza normal bat bezela.  
-Mezak euskeraz?  
-Mezak euskeraz. Bai, bai. Udaran-ta etortzen zien kanpoko apaizak-eta, baiñuetxia zala-ta hemen jende asko ibiltzen zan. Haiek beren mezak eta ematen zittuen baiña zortzi tt´erdietako meza; hemen hiru-lau meza ematen zien, goizian ehiztariantzako-eta izaten zana, seiretan-zazpietan-o, zortzi tt´erdietan Luistarrena, hamarretan meza nausiya. Hiru meza beti izeten zian.  
-Kongregazioan egon zinan?  
-Bai. Izango ez giñan ba!  
-Zer egiten zenuten?  
-Ze eitten gendun? Eskolatik ertenda geo sartu giñan kongregazioan, Luistarren kongregazioan. Ba ze eitten zan?

## 6.6. Zestoako zinema 1952an egina

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-033/009
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:57
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak  
Aisia » Kultura » Zinema

- **Laburpena:** 1952an egin zen Zestoako zinema. Umeak zirela, frontoian izarak botata ematen zituzten pelikulak. Luistarren eginkizunak aipatzen ditu.

### Transkripzioa

-Ba Luistarretako gure garaiyan iriki zan zentrua. Elizan zinian goian beste lokal haundi bat zan. Zinia berrogeita hamabiyen egin zan Zestuk zinia. Bueno, aurretik frontoi bat zan eta plaza berduras, eta jai arratsaldetan-ta botatzen zuen hola kortina batzuk eta bota, izar batzuk eta pelikula batzuk botatzen zien. Ni beti zinezalia izan naiz, historia asko daukat hor, eta akordatzan naiz mutil-koskorretan nola egoten zan frontoian goititik behera botatzen zan sare bat.

-Teloia?

-Teloi etzan, izar batzuk goitik behera eta pelikula botatzen zan. Eta frontoi hori gero bihurtu zan, milla beratzi zirehun ta berrogeta hamabian ein tzan zinia, eta ziniakin batea ein tzan zentrua. Zentrua zan lokal oso on bat. Baiña zentruan'e bi zera zien, bi lokal ezberdiñ, bat mutillena eta bestia neskena. Eta gero zeuren biblioteka bat, eta gero zeon beste despatxu bat, eta gero zeon mostradore bat, gero zeuren pinponak, billarrak, letzeko lekuak, eta bueno, hor sartu giñan, berrogeta hamabian inagurau zan hori. Eta ia guk berrogeta hamazazpian eskolatikan erten gendun, eta eskolatikan erten ondorenan ba ia sartu giñan Luistarretan. Eta Luistarretan guk, lenotikan'e, ez zan guk inbentau genuna, aurretik zetorren zera bat zan, tradizio bat zan.

-Edade bat behar zen sartzeko?

-Ez, ia behin hamazazpi-hemezortzi urte ezkerre-ta. Eta haiena zan ba zentrua mantenitzea eta gero ba festak organizatzia-ta. San Luisetan-ta festa haundia izaten zan, (...) festak organizatzia, kanpeonato pelotak organizatzia, eta orduan ba gaztiak organizatzen genduzen festa guztiyak. Gero parte hartu, eta organizau eta norberak eitten duna nola beti ona izate'an.

-Luistarrak eta Mariatarrak.

-Mariatarrak bere aldetikan eta Luistarrak beste aldetikan. Eta gero bazan beste erakunde bat, Acción Católica-kua, hoiek zahatxuauak zien, haiek bazuen beste, beste kongregazio bat zan, baiña bueno. Danak Luistarretan ibiltzen. Luistarretan eta Mariaren Alabak. Bere medaillekin-ta.

-Zer eramaten zenuten, medalla bat?

-Medalla bat eta txuri-urdin zinta bat.

-Hori danak?

-Hori danak..

### 6.7. 1953 eta 1983 urteetako uholdeak

- **Hizlaria(k):** Azkue Irastorza, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-038/022
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider

- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Zentrala deskribatzen du eta bertara ura nondik iristen zen azaltzen du. Zestoan uholdeak izan zirenekoa kontatzen du; 1953an eta 1983an izan ziren uholdeak. Lehenengoan "La Guipuzcoana"ko autobusa eraman zuen urak eta hildakoak izan ziren.

### Transkripzioa

- Eta len hor esan dezu ufalak-eta egon zian garaien ta...
- A bai, sartu zan hemen e?
- Hemen erreka ondo-ondon daukazue. Bertan ia esateko.
- Bai. Baiña oaiñ ez, baiña gauzak... baai, makina busti zun e? Ya, hau oain goratuta dao e? Leno makina hemen zeon alternadoria eta han itxita urakin turbina zeon, ha hor .... Zulo hori, e? Ura sartzeko zulua da hori.
- Osea ke zulo hortatik uda sartzen zan leno?
- Hor makina zeon, hor turbina zeon. Ta itxita turbinatikan alternadoreako zea itxita zeon eta harek ibiltzen zun alternadoria. Ta alternadoria busti zun, erdiraiño eo harrapatu zun. Baiña oaiñ e puxka bat, baiña ez, metro bat baiño, ordutik gauza asko: leno ura hor goittik etortzen zan, jakiña, ura, hor deposittua haundi bat zeon, izugarrizko deposittu bat hor albuan, eta hemen zulua behera eta azpittik erteten zun, hor hondoa, zulua oindik hor dao, hor azpittikan erteten zun. Baña ordun sartu zan e? Beste baten, el otxentai... izan zian ur-jaalak "el cincuenta y tres" ta "ochenta y tres", izan zian. Iraetan ta esan zuen otxentaitresekua haundiyagua izan zala, baiña hemen ez e? Ta zinkuentaitresekua, autobusa eaman zuna, zinkuentaitresekua zan.
- Autobusa eaman zun?
- Bai, zea, han, hor dao Zestuan, kantera baiño pixka-pixkat beheroxio, oo goraxio, pixkat-pixkat, goroxio hantxe do zea noaiño izan zian urak, oain aldautu do, baiña noaiño izan zan. Ta autobusen zenbat laun hamabi o hamahiru o ez dakit, ez dakit zenbat zian.
- Ta hil in zian?
- Baai, bai, autobusa ekarri zun, hor presa zeon ordun, ta presan ondoaiño ekarri zun. Ta egun pillua pasa zun gañea azaltzen, autobusa zeara...
- Gipuzkoana?
- Gipuzkoana, bai. Usuola. Usuola . Ordun Usuola zan horren... Usuola.

### 6.8. Herriko dendak; nola apaintzen ziren

- **Hizlaria(k):** Izeta Legarda-ereño, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-039/023
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Herrian denda asko zeuden, eta haietako batzuk izendatzen ditu: Kooperatiba, Elortzanekoa, etab. Ile-apaindegira

Azpeitira joaten zen lehengusu batengana. Permanentea eramaten zuten neskek eta nola egiten zen azaltzen du. Makillajea ere eramaten zuten batzuetan.

### Transkripzioa

- Eta hemen Zestuan denda asko zan?
- Dendak oin baiño geyo.
- Bai?
- Bai, hombre. Hamen Gurutzegin bertan zeon zapatei bat, kastellonekuak ferreteiya, koperatiba ere bazan, erdikalia, tekal okerrian beste denda bat bazan, mertzeriya. Itxita daude danak oin. Eta Elorzaneko...
- Pelukeririk eta bai, bazan? Juten ziñaten pelukeria?
- Nik lehengusua naukan Axpeitira, ta Axpeitira, bai. Han itten zien permanente ta, han iten ziskun. Permanentiak, jota burua erreta.
- Permanentea eramaten zan?
- Permanentia ta asko eramaten zan, baai. Bai, permanentia eamaten zan, itten zuen rulua in, poltsa bat uretan eukitzen zebe bustita, ta haura ipiñi, fru-fru-fru-fru-fru, ta barruan ez dakit ze eukiko zun. Geo in, zea bat jarri ta lotu, eta euki ez dakit zenbat denboan, ta burua erreta ta eoten zien ordun, uuuuu, ttanttua [...].
- Makillajeik eta, makillajeik izaten al zenduen?
- Ez, nik gaztia nintzala ez, baiña pixkat gerotxuo bai. Ta gustatzen zitzaite gañea asko. Ni pintau asko in naiz leno, oin laga diyot baño pixkat pintatziai, baiña, pixkat begiyak pintatu gustatzen zitzaidan .
- Ez zeon...
- Ez zeuden.
- Ez zeon gaizki ikusia pintatzea?
- Ez, ez, no, no tanto.

## 6.9. Algortako errefuxiatuen etxean

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-042/016
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Durangon zeudela, baserri batera joan ziren; baina, tropak gerturatzen ari zirela-eta, Algortara bidali zituzten errefuxiatuen etxera. Matildek 10 urte zituen orduan eta gaixotu egin zen "sukar tifoidea" harrapatuta. Bi hilabete egin zituen ospitale batean, mairuak herrira zetoze eta bidali zuten arte.

### Transkripzioa

- Jun giñan basarri batea, pentsau zazu ba ze resguardo eukiko gendun, baña behintzat basarri batea, lagun bat
- [...] billatu zenduen baserri batea?
- Bai, hurrungo egunetan mendira juten giñan, baña baserrira. Ez dakit zeñen amastadia o, hori ez dakit nik. Ta hantxe eoten giñan. Ta han pasau giñuzen ez dakit zenbat denbora. Baña hara ere ai zian ba tropak

aurreatzen, eta noa jungo eta Algorta.

- Algorta?

- Bai, Algorta.

- Han zer zendun ba?

- Refugiauak. Ez al dakizu zuk hori? Danak aidian bialtzen dittuela ta, nahi du...? Ba hori. Han ere zer gendukan guk, gu “eran”, esaten da ba, “errantes, nómadas, pues eso”... ai ama!

- Esandako tokira jun in behar?

- Jun, ta gu Algorta. Ta bueno ba, Algorta ba. Eta Algorta jun, ta ordun dana txaletak eta dana rekisauta zaben ba, etxiak danak rekisatzen zittuen, ta zean, ta. Txalet batian sartu emen giñuzen. Txaleta emen zan. Baiña istoriya ere beste bat e bada hor. Ni kalenturakin hasi. Hamar urte, neska koskorra. Ta kalenturak eta kalenturak eta, ez nintzan ondo eongo itxura, eta beste ospital txiki bat zan, haura ere seguruena rekisautako ospitalen bat izango zan. “Lo que sea”. Eta erderaz esaten dana, “fiebres tifoideas”. E? “Vaya regalo”. Nik.

- Billatu zizuen?

- Nik. E? Han ingresauta. Familiya etxian, ta ni ospitalian. Bi hillebete.

- Bi hillebete?

- Bi hillebete. Baiña, horreatikan ba nik esaten det e? “Libro de Petete” txikigiya da guretzako. Ixtori guztik, eta...

- Ta bi hillebeten egon ziñan han e?

- Bai, egun bat geyo o gutxiyo, baiña bi hillebetian. Ta handikan ere erten ein ber gendun ba, moruak zatozten ba, moruak. Moruak? Enfin. Eta handikan e erten ein ber gendun nunbaittea.

- Baina sendatuta atera ziñan ala...?

- Ez, artian ondo sendatu gabe neon ni.

- Alde in behar izan zendun.

- Bai, artian jaikitzen hasi gabe. Egun haientantxe jaikitzen hasiko emen nintzan, jaiki niñun nik egunik onduena.

- Eta egun haietan ama ta beti juten zian?

- Bai, bai, egunero ez bazan, bai, egunero izan leike. Juten zian, eoten giñan pixkatian, ta ni neska koskorra hantxe, eta bueno, hor juten zian.

- Bazituzun gehio ere edadekuak?

- Bai, beste ohian ere nere edade modukua zan, bai, ta gero beste kuartutan ez dakit, porke esaten dizut, ez nintzan jeikitzea allegau ta!

## 6.10. Errefuxiatu garaiak

- **Hizlaria(k)**: Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-042/022
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:45:42. **Bukatu**: 00:47:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerratik ihesi ibili ziren garaian, errefuxiatu modura ibili ziren; jangelatan ematen zieten jaten. Zomorroz betetako babak izaten zituzten jateko.

### Transkripzioa

- Ta bitarte hortan amak nunbaitten lan egiten zun?
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez, orduan ez zeon, ez, ez, ez. Han ez zeon lanik. Han gu zaittu, gu zaittu, eske refugiauak giñan gu, gu refugiau giñan, eta eta gaiñea jaten ematen ziguen komedoriak esaten ziuena. Komedoria lentejak eta babak. Bai, baiña akordatzen naiz ni, babak zamorroz betetako hoik, ta jan ezin, baba beltzak hola zamorruakin, eta jan ezin. Eta ez dakit jaten zittuen, o ez zittuen, nik ez nun behintzat jaten, ni gaixo gaixo gaixo-ondorena neon, Santanderko Riañoeko hortan. Ta akordatzen naiz juten giñala holako toki batea, etxe batea, eta haura komedoria o komedoria esaten zitzayoen, han perola ateratzen zittuen batzuk, banba ta banba, ta burruntzalika bana o zeoze, eta yasta.
- Txarra baiña ona e?
- Bai.
- Besteik ez danen.
- Ez dakizue zuek e?
- Ez, hoi probatu gabe, bizi gabe ez dao jakiteik.
- Zuek ez dakizue, zuek ez dakizue ezta ezta...
- Zuek kontatutakoa, baiña ez dago hoi jakitteik probatu gabe norbeak. Gosea ordun pasauko zenduen?
- Bai, bai, ni baiño geyo bestiak. Nik, esaten dizut, ni gaixua, ta nik nik esnia ta arrautza nahiko banuan, jateko gogua jateko gogua ere akaso ez nun geyegi eukiko, ez dakit. Baiña bai, ni bai, ta gure amak esaten zun "graziyak esnial" esne ona, ta esnia nahikua, eta graziyak hari, ba bizi. Bestela, komedoreko garbantzu hoiek jan ber izan banittun, ez nittun jango ta!
- Haragiik eta arraiik eta izaten zan? Ez?
- Hori, oaingo lujak dia hoiek. Han ematen ziguena potajia jeneralian. Ez naiz ni akordau're iten asko, akordatzen...
- Eta erropaik eta erak ez zizuen ematen? Ez?
- Ez zuen emango, ez zuen emango. Ni ez naiz akordatzen. Baiña klaro, hamendikan jun ta galdu zitzaigun haiekin zazpi hillabetian ez giñan ba ibiliko baiña! Ba ez dakit ba nola itten gendun, erropa kontu hori ez naiz akordatzen.
- Baten batek lagunduko zizuen, juten ziñaten etxetan o igual ta?
- Ez naiz akordatzen.

### 6.11. Eskolan Arroan eta Zestoan maristetan ibilia

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:55
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Eskolan Arroan ibili zen bertako maisu batekin 6 urtera arte, ondoren Zestoan ibili zen. Dotrina izaten zuten ikasgai nagusi eta apaizak ematen zien ikasgai hori. Baserrian lan ugari izaten zuten eta ezin izaten zen eskolara egunero joan. Zestoan Maristak zituen irakasle. Maristak euskaldunak ziren eta euskaraz irakasten zieten.

### Transkripzioa

-Eskolan non ibili ziñen?  
-Eskolan iñun ez. Natural-natural ezer ez. Arruan maixu zahar batekin ibilli giñan, ta gero Zestuan Maristak egon zian, baiña eskolan zea, hamabi urtekin morroe erten gendun-ta.  
-Arruako eskolan ibili zinen, Arruan?  
-Herriko Eskolan.  
-Maisua nongoa zen?  
-Maixua? Bertan bizi zien familiya, eta bera zaharra, eta bi seme bazittun eta haiek´e... Oin dala bakizu, oin dala ia larogei urte dia ta.  
-Zenbat urte arte egon ziñen han Arruan?  
-Gu Arruan ibilliko giñan, bost-sei urtekin jungo giñan eta gero Maristak jarri zittuenien, baiña hor denpora gutxi, orduan hamabi urtekin, bakizu, nora-nora zera in ber.  
-Eskolan zer ikasten zenuten?  
-Gauza gutxi. Orduan eskolan ze ikesten zan ba?  
-Ze izaten zen orduan?  
-Ordun dotriña izeten zan, dotriña izeten za. Gero zeoze ikesiko gendun baiña. [...]  
-Dotriña maisuak berak ematen zizuten?  
-Ez, ez, hori apaizana jun ber izeten zan, e. Komuniyua bestela apaizak. Etxien ahal badezue amakin dotriñie ikasi ta zeera jun ber. Bakizu, guk ez gendun izen, baserrien aitte ta lanien ibiltzen zien, baserrien lanien eta, beti etxien baten batek [...] in ber eta eskolara... Ibilli giñen baiña orduen zien dirudunak bakarrik eskolara zera eitten zeбенak. Gure modukuak lanea gaztetan erten ber izeten gendun.  
-Maristetan maisuak zein ziren? Zestua etorri zinenean, nondarrak ziren?  
-Ez dakit nunguak izengo zien haiek. Hola zer batekin ibiltzen zien haiek. Apaizan jantziyen ibiltzen zien. Maristak.  
-Kanpotarrak ziren?  
-Ez euskaldunak zien, euskeraz eiten zeбен haiek.  
-Ikasi erderaz egiten zenuten?  
-Dana euskeraz guk. Guk ikasi al gendun ba erderaz. Soldautzan´e horrenbeste urte pasau...  
-Batzuk izaten dira umetan...  
-Guk beti ordun dana euskeraz; dana. Gero gerrak erten zun eta akabo gure eskolak izan zien.

### 6.12. Soldadutzatik neskei karta bidez egindakoak

- **Hizlaria(k):** Lopetegui Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/009
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:15:56. **Bukatu:** 00:16:37
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Txaboletan egiten zuten lo. Zorritz beterik egoten zen ingurua eta behin neska bati gutun bidez egindako bihurrikeria aipatzen du.

### Transkripzioa

--Lo eta nun egiten zenuten?

-Txabolan. Bota mantak eta txabolan lo zorri artian. Gero ikeragarriak eiten giñuzen han. (Neskei ta emetar?) bat bagendun kartak primeran eskribitzen zuna, eta neskan (...) karta sobrian sartu zorriak eta bialtzen genizkon zera-ta. Soldauak ze erregalo dan... Eta hamen bagendun neskazahar aberatsa, lehen esan deu ba, hotelekuak, eta hoiek tximiniko kia baiño zerago zien, okerrak zea ta hoiei eiten (giñun) kartatan atso, zorriyak bialdu neska zar hoiei. Besteik ez zeen merezi ta.

## 6.13. Coruñan eta Madrilen Francorekin

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/015
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:23:34
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Bi pasadizo kontatzen ditu: Coruñan Franco euren itsasontzira sartu zenekoa, eta Madrilen hura bertan zela desfilea egin zutenekoa.

### Transkripzioa

-Behin zera ein gendun bai, zan agostun hamalaua, eta Franco xaharrakin zeran ibilli giñan, eta Coruñan, bai ba, nola ez zan sartzen, traiñeruekin eaman tzeben Franco xahar hori gure barkora.

-Ikusi zenuen aurrez aurre Franco?

-Ikusiko ez nun ba. Eskailletan gora igo ber, (...) eta gu armauta, eta musika (...), eta zer da ta eguna gurekin pasau zun maniobratan, kaiñoiekin maniobratan. Eta Madrillen'e bai, Madrillen. Gerra akababauta, (...) edo ez dakit zer zan, desfile printzipala han ein zan, alemana-ta, goguan daukat goien abioiek zera egiñez, antzarrak eta nola letrak eiten zituen, eurie ta haizie?, forma hortan ez baiña zea ertengo ete gendun. Berak'e ez zun egun edarra pasau, ez guk'e, baiña harek egun guztian hola besuakin jarrita Franco xaharra, eta desfilatzen.

-Zer moduzko gizona zan?

-Haure? Gizon haundiye ez zan baiña gogorra bai haure. Ñio!

## 7. Ekonomia eta industria

### 7.1. Edarien biltegian lanean

- **Hizlaria(k):** Iriondo Ibaguren, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-031/006
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
- **Laburpena:** Eskola amaitu zitzaionean, etxera bueltatu eta gurasoen edari-biltegian hasi zen lanean.

### Transkripzioa

-Eta gero hantxe ba etxian sifoiak partittu eta holako karro zahar batekin ba... Gaseosak partiu eta mundu hortan ibilli giñan, pixkat ibilli nintzan. Danok, famili guztiyak. Anaia zaharrauak pixkat, harek huandiao, harek bazittun hamasei bat-edo ta, hamabost-hamaseiekin taillerrera, bestia berriz karnizerira jun zan eta gero ni berriz (ibilli) nintzan itxeko edari-almazen horrekin-eta, aitakin eta amakin.

## 7.2. 14 urterekin "Guztiok Bat" lantegira

- **Hizlaria(k):** Unanue Alberdi, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-033/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:14:10
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** 14 urterekin eskola bukatu eta "Guztiok bat" lantegian hasi zen ofizioa ikasiz lanean, tornuan. Astelehenetik zapatara lan egiten zuten eta asteko hogei duro kobratzen zituzten. Diru hura etxean entregatzen zuten.

### Transkripzioa

-Eta hamalau urtekin eskola bukatu egin zenuen?  
-Bai. Eta lanian hasi giñan.  
-Nun hasi zinen?  
- Gero Guztiok Bat izan tzan mekanikan. Hamalau urtekin, "catorce de octubre de mil novecientas cincuenta y siete".  
-Ze izen zuen lantegiak?  
-Guztiok Bat. Oindik segitze'u, oiñ Itziarren segitze'u.  
-Eta zuk ikasitakoarekin zerikusirik bazuen?  
-Zerikusirik ez...  
-Hantxe fabrika ikasi behar izan zenuen?  
-Hasi nintzan ofiziu ikasten eta. "Aprendiz", gero "oficial de tercera" eta "oficial de segunda"-ta, urtiekin.  
-Ze lan egiten zenuen zuk?  
-Tornuerua. Tornero ikasi gendun eta tornero izan giñan.  
-Nolako piezak egiten zenituzten?  
-Tornuak eitten giñuzen, bertan eitten zian. Orduan Zestuan industriak eta zera haundiya zuan, orduan Guztiok Bat sortu berriya zan. Gu sartuta sortu zan. Aurretikan Iruzu zuen izena eta gero ia Guztiok Bat sortu zan. Orduan zan Eguren tornuak eitten zittuna, beste enpresa haundi bat, eta gero zan fundiziyua, Fundiciones Echave, eta mekanika kontuan, urte hoietan berrogeta hamarkada, hirurogei arteko eta hirurogei eta hirurogeita hamar arte industriak indar haundia euki zun Zestuan. Eta gu hor hasi giñen eta hor segitu genun bukau arte, praktikamente.

-Zenbat orduko, lan orduak zenbat?  
 -Zortzi. Eta zapatuan atsaldeko bostak arte. "Sabado Inglés" eta hori gerora, Hori gerora sortu zan. Zortzietatikan hamabittara eta ordu bat ´erdietatikan bost et´erdittara, gure horariyua zan, Zortzietatik hamabittara eta ordu bat ´erdietatikan bost et´erdittara.  
 -Soldata zer moduzkoa izaten zan?  
 -Nik lehenbiziko kobratu nuna aste guztia lana ein eta hogeit durukua eaman nun etxera.  
 -Ordurako huskeria bat izango zan?  
 -Ordurako asko.  
 -Asko zan hogeit duro?  
 -Bai. Beste taillerretan zerbait gutxio kobratzen zan.  
 -Asteko soldata hogeit duro?  
 -Hogeit duro. Nire lehenbiziko sobre batian, goguan daukatena, etxera eaman nuna, hogeit duroko haundiya.  
 -Askok esaten dute irabazitako soldata gurasoei entregatu behar izaten zitzaiea.  
 -Bai. Eta gaiñera con mucho honor, ohorea,  
 -Norberak irabazitako...  
 -Hogeit duro hogeit duro zien, e.  
 -Nagusiak hemengoak ziren?  
 -Bertakuak zian, bai. Zulaika Hermanos, Jacinto Zulaika, Andres Zulaika eta gero Irure, Patxi Irure eta Felix Irure zian soziuak.  
 -Langile asko zineten?  
 -Bueno, hasi giñanian hogetaka giñan baiña gero ehun da pikotik gora izan zan enpresa. Bai, garrantzitsua zan. Bai, langille (...) eta gero sortu zan holako zer bat eta, baiña ez, bertako jendia dana.

### 7.3. Meategiko lana

- **Hizlaria(k):** Aristi Aizpurua, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-035/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:27:18. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak  
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- **Laburpena:** Meategian lanean zebiltzanean, 800 metroko sakoneran sartu eta eskuz egiten zituzten zuloak.

#### Transkripzioa

- Eta han ze itten zendun?  
 - Han? Eztul hau de... Han itten giñuzen, lau lagun juten giñan, ta bakoitzak bi lagunek hartu bagoia, eta juten giñan zortzirehun bat metro bai barroa. Ta zuloak iñ eskuz, zeakiñ borra ta. In zulu in...  
 - Borrakin?  
 - Ta tirua in geo, ta metxa ta sartu, kargau, su eman, ta kanpoa. Ta gu bazkaldu ta juteko, berriz, kiak eta danak alde inda eoten zien. Berriz karreau bagoiak, ta berriz'e zulu in hurrungo eguneako, ta...  
 - Lan peligeroso izango zan ba hori ezta?  
 - Ta su eman, ta fuera, hurrungon eo txandaka.

- Lan peligeroso izango zan ba hoi ezta?
- Bai.
- Eskapadan batzuk ingo zenittuzten.
- Ez gendun guk zeaik izan.

#### 7.4. Zumaiaiko Itsasontzi lantegian lanean

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/018
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:30:14
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Gerratik bueltatu eta 26 urterekin Zumaian hasi zen lanean itsasontzientzako piezak egiten. Lanean nola hasi zen azaltzen du; hasieran 12 pezetako soldata zuen eta 8 orduko lan-jarduna. Trenez joaten zen lanera. Garai hartan bizikleta zuena aberatsa izaten zen.

#### Transkripzioa

-Etxera etorri eta Zumaian hasi zinen lanean.

-Bai, Zumaian.

-Zumaian nun esan duzu?

-Horri esaten ziyoen, nola esaten ziyoen horri? A bai, "Cara al Sol".

-Nun zan hori?

-Hor behetik gora, herriko plaia bakizu nola dauren, han behetik gora hasten da ba taillarrak? Ahaztu ein zat taillarran izena.

-Te tailler zan?

-Han dana barkuak eiten giñuzen, zerak, kalderak-eta, deposituak, uran deposituak-eta eiten zien hor ze hortan. Barkuak, piezak-eta.

-Zenbat urte han hasi ziñenean?

-Nik eukiko nitun ba hogeta sei urte. Hogeta zazpi urtekin ezkondu, hogeta sei urte.

-Ze lan egiten zenuen han?

-Han? Borraketan eta suan kontra. Oin bezelako (...) eta ez zan, eta borraketan ein behar izeten zan. Sutan berotu burniya eta gero holako mahaiaikin kalderak, deposituak ekartzen zizkun ta, dana sua ein eta gero haiek danak borraikin zera in ber. Bazien han ofiziyua zaukenak-eta, eta haiek esandakua ein behar guk.

-Erakustaillea bazenuten orduan?

-Bai, bai, erakustaillia bai. Ofiziala. Guk ez gendun ofiziorik eta ikesteko astirik izen. Gu beti astolanian gu, beti astolanian. Ai! Nolako mundualdia pasauta gauren!

-Eta han nolako jornala irabazten zen, ona?

-Zestuan beratzi pezeta. Eta nik Zumaian banitun lagunak han Ferrolen egondakuak. Eta ze ein nun, jai baten etorrita, Zumaira jun behar det. Eguerdian jun nintzan eta nerekin batera nerekin batera Ferrolen soldau egondakuakin topo. "Etorri behar al dek?"-eta. Gu baiño urtebete zaharraua zan eta, lehenuo etorrita-ta, esan niyon: "Ez zekit, Zestuan beratzi pezeta ematen diye jornala-ta, han gehio aituta natxiok eta." "Nausiye hoixe dek", esan zian. Jun nintzan eta: "Etorri bihar"-eta. "Ez.

Erropaik-eta ez daukat eta hurrenguan etorriko". Eta halaxe hasi ta bi urte pasau nitun. Eta hamabi pezeta jornala orduan, hamabi pela, zan ikeragarriya! Ez oin bezela, jai ta aste lan ein ber izeten zan ordun. Ikaragarrizko jornalakin. Botak-eta.

-Zer egiten zenuen astelehenetik zapatara lana?

-Bai. Zortzi ordu. Oin, jaiak izeten baldin bazien, San Jose egune eta holako zerak izeten bazien, egun bat orduak sartzen ein behar izaten zien, ez ziun ematen ordu (...) Zumaian.

-Eta zer egiten zenuen, bazkaldu eta dena bertan?

-Ez, bazkaia oin bezela? Orduan ogirik baserritarrei ez ziyuen ematen eta talua erre goizien eta bezperan babak egosi ta talua etxetik eamaten gendun. Oin bezela? Orduan ez zeon taillerrian jateikan.

-Nola joaten ziñen, trenean?

-Trenien. Bizikleta zuna aberatsa zan ordun! Bizikleta. Trenian. Goizian zazpietan trena eukitzen gendun. Ez gu, e. Axkoitiko, Axkoitiarrak'e bazien gurekin (batera) zeera juten zienak, Zumaira. Oin bezela? Oin jendiak ez daki nola bizi dan, e!

## 8. Politika

### 8.1. Bizikletari erremolkea erantsita opilak banatzera

- **Hizlaria(k)**: Garate Aristondo, Lazaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-041/023
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:53:03. **Bukatu**: 00:55:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Bainuetxean "botones" lanetan aritu zenean enkarguak egitera herrira joan behar izaten zuen bizikletaz. Bizikletari atzean erremolkea jarri eta han eramaten zituen 700 lagunentzako opilak. Errazionamenduko kartila bat izaten zuten eta egunero hartutako janariarekin zigilua botatzen zitzaien kartilan. Ogiaren errazionamendua.

### Transkripzioa

- Eta zuk "botones" lanen ibili ziñenen, enkarguk nola eamaten zittuzun, bizikletan?

- Bizikletan.

- Eta hemen ingurun itten zittuzun enkarguk ala kanpoa're bialtzen zizuen?

- Noiz o noiz kanpoa're bai, baiña normalian hemen bertan, kaleko...

Botikaa-ta asko. Botikaa ta zapateira ta... beste... panadeira ta. Ogiyak-eta're eman ber izaten zian. Akordatzen naiz batian...

- Oseake gehiyenbat jana-ta eamaten zenun?

- Bai, baiña jana're, [danentzako]... konparazioko, ogiya eamaten nun nik egunero, urte baten o ez dakit bi urtin o, bi udaratan o eamango nun, ta lenuo beste batek beste batek eamaten zun, eta ba pare bat urtian o nik eaman nun. Ta eamaten gendun bizikletan remolke bat jarrita, atzian, bizikletan atzian remolkia, eta han zakua bota ogiyakin, ta ez zan karga haundiya izaten, baiña zazpirehun inguruan, zazpirehun lagun inguru zauren. Eta orduan ba zazpirehun bollo eaman berko zien behintzat. Ta

normalian ehun gramo izeten zan, baina izan zan garaya larogei gramo bakarrik zaona razionamendua. Ta xelebria zan ordun e? Ordun han bakoitzak kartillakin jun ber zun kanpotarrak'e. Apopillo...

- Kanpotarrak e bai?

- Bai, bai, han, han apopillo, ta jan ta lo ta dana itten zun, baiña razionamentu kartilla eaman in ber.

- Nola izaten zan razionamentuko kartilla, ze izaten zan?

- Ba kartilla txiki bat izaten zan, nola esango dizut nik? Ba doziñan tamaiñan modukua. Eta, ba, loriyan ta ere igualtsu. Eta seilluak eukitzen zittun, egunen eguneko seilluak. Ta zeako, egunero, egunero ogi billa juteko ere, kartilla hura eaman ber, ta egunero tak.

- Seillo hura...

- Seillua zuk hartzen zenun ogiyan seillua laga ber han.

- Ze ogi izaten zan?

- Ogi beltza. Zean, razionamentua ematen zen, normalen geyenian izan zan ehun gramo, baiña bolada bat izan zan larogei gramo ematen zula harek. Baiña ogi beltza, zea, zahi ta guzti, integrala.

## 8.2. Durangon bonbardaketak etxea suntsitu zienekoa

- **Hizlaria(k)**: Aizpurua Zubizarreta, Matilde

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref**: ZES-042/014

- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:24:36. **Bukatu**: 00:27:07

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Etxeberría, Eider

- **Gaia(k)**:

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Durangon bizi ziren etxe ondoan eliza zegoen. Haren kontra bonbardaketan hasi eta bertan zegoen jendea hil zen; Matilderen etxea (hutsik zegoena) bota zuten. Senitartekoak elbarri eta zaurituta geratu ziren. Matilde eta bi anaia amarekin geratu ziren, baina bonbardaketa hasi zenean, ihesari eman eta beste anaiengandik galdu ziren.

### Transkripzioa

- Etxe hontan bizi giñan. Gero jun giñan beste kaleko beste etxe batea. Eta eliza zeon hamen onduan, ta eliza intendentziya izan emen zan.

“Intendencia militar” eo tropan, beak jakingo due ze izango zan. Ta holaxe kontra e? Etxia hauxe ta eliza hauxe. Durango zan, oiñ ez dakit nola dan.

Eta objetibua emen zan eliza harrapatzia. Ez dakit eliza harrapatu zuen, elizan mezan zauden beatzitan, goizeko beatzitan haik. Goizeko beatzitan bonbardeau zuen, elizan, eliza zea inguruak, eta Durango dana puskau zuen. Eta elizan barruan mezetan zauden jendia auskalo zenbat hil zian. Ta guk etxe hau, gu bizi giñan laugarren pisu haura, jota beheraiño, zizko.

- Ta zuek nun zeundeten?

- Beste etxea jun orduntxe zazpi egun, ahizpak haurrak izateko eta...

- Eta hutsik zegon etxea, ala zuetako...?

- Ba, ez, hutsik zeon, geu bakarrik gelditu giñan han, geutzako bakarrik. Alkilatu, zea e? Rekisautako etxen bat, txaleta o hola zan ta.

- Baiña puskatu zan, o bota zuen etxe hartan, momentu hartan zuetako iñor ez zan.

- Ez. Gureik ez. Baña...

- Ya junda zendeten bestea.

- Baña gure beste familiya haietakuak hildakuak e bazian, nere edadeko mutil gaz[te] koxkor bat desaparezitu in zan eskombro tartian. Haren ama zanen izeko inbalida gelditu zian, gero hori gero Eibarrekuak zian, ta ikusten giñuzen, baina inbalida gelditu zian, hankak hausita, ta enfin, ta zea. Ta gu “por milagro, por lo que sea”, erten gendun osoik.

- Librau ziñaten.

- Bai. Nere ahizpa bezperan haurra izatea Basurtoa. Bixkiyak.

- Dana pare-paren, bete-beten.

- Nere anayak, galdu giñan bonbardeuan goizian beatzitan, ta orduan, zea ematen ziguen, estee, razionamentua eo esaten dana. Gosayak eta hola, zeozer, ni ez naiz akordatzan ze ematen zuen baña, kafe ta esnia eo zeoze ematen zuen, komedoria esaten zitzayon han, nunbaittea jun ta ume bakoitzantzako eo. Bueno. Han zan bat... o biyak? Ez dakit nola zan. Behintzat galdu giñan: ama birekin, eta ahizpa? Bai, ama, ama hirukin: bi ahizpa ta mutil koskorra. Ta beste biyak por ai galduta.

- Galdu in ziñaten?

- Galdu, bai ba, bonbardeuan danok alde banata igesi in gendun ta, gu txikiyak amai segiko giñun, baiña beste biyak...

### 8.3. Kaletik ihesi, mendian ezkutatuta

- **Hizlaria(k)**: Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-042/015
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:27:07. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bonbardaketatik ihesean, mendi batera joan ziren eta handik aireplanoak ikusten zituzten; Durango dena apurtu zen. Eguerdirako, etxera jaitsi ziren eta anaia batekin egin zuten topo; beste anaia hildakoak jasotzera bidali zuten soldaduek. Arratsalderako, atzera mendira itzuli ziren eta lurrian egon behar izan zuten ezkutatuta. Ilundu zenean, etxera bueltatu ziren. Hasieran ez zuten anaiaren berririk, baina gero aurkitu zuten.

#### Transkripzioa

- Ene ba, nun gea? Ezin leike esan, “hor ikusten dittut” esaten deu, baiña ezin leike esan ikusi ez dunak gerra zer dan. Ezin leike esan. Jun giñan mendi batea. Oaindikan emozionau itten naiz. Jun giñan mendi batea. Eta abioiak, zeak aireplanuak hola, ffuutxutxutxutxutxutxu... behe-behe-behe-behitikan, behe-behe-behe-behe-behitikan.

- Durangon bertan mendi batea jun ziñaten?

- Bai, behe-behe-behe-behian, hantxe segi ta segi ta segi ta, ta bun-bun-bun-bun-bun... bun-bun-bun-bun-bun-bun-bun-bun... Durango puskau zan, dana kia, dana, dana puskau zan. Ta geo eguardiyan jetsi giñan etxeaiño, ia berriz zeoze.

- Zuek bakarrik ala zuekin batea jende gehio?

- Asko, jende asko. Nunbaittea erten ber zan ba, ta jende asko mendira. Pentsa zazu, ezer ez e? Baiña arbolak, ta iruitzen zitzaigun zala aterpia zeoze...

- Salbazioa.

- Bai, eta jun giñan ba zeara mendira, ta geo eguardiyan etxea, aber ba, patata batzuek jatea. Holakotxen bat jango gendula uste det, pasa ta geo holaxe. Ta anai bat azaldu zan. Gure amak leyua iriki, etorri giñala esateko. Eta anai bat etorri zan. Ta, “nun da ba bestia?” Martzelino zun izena. Ta “Nun da ba Martzelino?”, ta “hildakuak jasotzea eaman due”. Hildakuak holaxe zabillen ba, “aquello era”... holaxe, holaxe, holaxe zauden. Ta “hildakuak jasotzea eaman due”. Eta bueno...

- Zenek eaman zuen?

- Ba, soldauak eo, baten batzuek, han aginduko zuen baten batzuek. Eta gu berriz’e mendira arratsaldian. Ta goizian gaizki, arratsaldian gaizkiyo. Nik esaten det, errezatzen ikasi baldin banun orduntxe erreza nula, musuaz lurrian pea-pea-pea-pea-pea inda holaxe. Ta, baiña berta-berta-bertatikan ametrallatzen giñuzen e? Ez zun, ez giñuzen jo berko, ta ez giñan hil. Baiña berta-bertatik jatsi iten zian holaxe, esan ber ziet, zea arbola adarra ikutzen zittuela. Behe-behe-behe-behe-behitikan... papapapapapapapapa... Hantxe geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi, ta pixkat illundu zanian, gure abioi zar hoiek erretirau zian, ta gu ere bai etxea. Baiña anaya falta. Hildakuak etxea, hildakuak jasotzea eaman zuen anaya falta. Eta, ta ez giñakiun, o hil zan, ez zan, jaso zuen, ezar ez giñakiun, ez harek guria, ez guk harena. Eta nere ahizpa jun zan, ba, komedoria esan dizuten bezela afai billa, ez dakit zer, kristalez betetako garbantzuak o ez dakit zer, ez dakit zer eman zigun e? Baiña kristal pusketakin, klaro.

- Dana txikituko zan?

- Hoixe. Eta ez giñakigun anaian berriik, eta lagun batek esan emen zion, Marzelino zun izena, esan dizut, ta “Marzelino estaziyan dao, ez daki zuek bizi zeaten o ez zeaten, ta etxea juteko bildurrez dao”. Esan emen zion. Jun biyak, lagun biyak, nere ahizpa ta laguna estaziyoa, ta hantxe txokor-txokorrian emen zeon anaya. Klaro, bildurrez akabatzen. Ez zakiyan harek gu bizi giñan o ez giñan. Hoi danak pasau in ber dia. Ta etorri zan behintzat, eta bueno...

#### 8.4. Getxotik irtetea, arropak galdu zizkieten

- **Hizlaria(k)**: Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-042/017
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:33:03. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberría, Eider
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Mairuak zetozela-eta ospitaletik atera zirenean, Getxoko portuan barkura sartu eta Laredora eraman zituzten, soinean zuten arropa soilik utziaz.

#### Transkripzioa

- Bueno, bazatozten ba, etorri ber zuen hoiek, eta artien erten in ber gendun ba nunbaittea, kasuen. Eta Getxon geunden gu, oain Getxo, Algorta, baiña Getxo. Neguri. Ta ez dakit nun egongo dan han, puertua eongo zan, puertua egongo zan. Sartu giñuzen danok ume ta andre pillo bat, zean, en gasolinderas edo zea hoitakuan, txukutxukutxukutxuku juten

dien hoitakuan. Ta lau prenda eukiko, lau erropa eukiko giñuzen, lotuta hola, izeten dia ba, toreruak eta ibiltzen due ba zea, paiñuelo haundi batian hola lotuta, halako bat, idea daukat, ez dakit asko, baiña idea daukat, hala zialakuk gure lau arropa haiek. Guk hamen sartu ber gendun ta dzenda! Ta beste gasolinera batea gure erropak, eta haiek Santurtzin ta gu Laredon.

- Banatu in zizuen?

- Klaro. Haiek guk jun ber gendun ontziyan eaman bazittun, guk hurrungo egunian ze jantzi bagendukan. Baiña sondiñen genezkan erropakin bakarrik gelditu giñan.

- Baiña zuek danok, danok batea.

- Bai,

- Erropa bialdu arren, zuek danak batea.

- Bai, anai-arrebak bai. Anaya ordurako soldadu! Soldadu edo militarrek hartu zuen, ta hor zabillen.

- Oseake soiñean zeukazuenakin bakarrik utzi zizuen?

- Soiñen gendukanakin bakarrik. Nere aurreko mutilla... oin bizi da, oaintxen, ointxen in ber ditu datorren astian hogeita bostian in ber dittu larogeita beatzi urte. Nere ahizpak. Haura bizi da Ermuan. Biyok bakarrik bizi gea oin. Sei giñan. Eta haura, ni baiño aurreagoko mutilla, bi urte zaharragua zana, ni, eta bestiak koxkorritua, ni baiño gaztiagua zana. Ta ama. Gu danok toki batea jun giñan, baiña erropak beste nunbaittea. Por ahí.

- Eta zuek noa jun ziñaten?

- Laredoa.

- Laredoa?

- Bai.

## 8.5. Kantabrian egon zireneko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-042/018
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Laredon autobusetan sartu, eta Santanderko herrixka bateko baserri batera. Etxe hartan familia bat bizi zen, ganadu eta landare-lanetatik bizi ziren. Arreba bat beste etxe batera eraman zuten handik gertuan, eta elkar ikusten zuten.

### Transkripzioa

- Ta Laredon? Nun aterrizatu zenduen han?

- Laredon...

- Nun? Noa eaman zizuen?

- Hartu, eman giñuzen zean, autobusetan hartu eta nunbaittea, ba al dakizu zer dan nunbaittea? Nunbaittea, kristo ez dakit aillauko zan toki harta. Erderaz esaten dana, aldea bat e? Santanderko zea batea, Riaño, ez Asturiaskua e? Santanderren bazan, eongo da, zea, herri txikin bat izengo zan. Nik ez naiz geyegi akordatzen, baiña, Riaño, baserri batian. Baserri bat, baiña...

- Baserri bat?

- Bai, baiña beak zian zeak, este, “pasiegos no eran”, ez naiz akordatzen oin izena nola esaten ziyoen. Beak juten zien itxura etxetikan mendira belarra, been negoziyo eta ganauak eo mendiyan zeuzken. Ta guk gelditzen giñan astian, astian aste bat egun batzuetan bakarrikan, etxian, gure ama ta gu. Ta beok etxekoandria, han etxekoandria, ta hiru-lau mutikoxkor bat zittuen, ta haiek juten zian mendira been belarrak eo negoziyuak eo ganauak eo ez dakit zer zauzken. Ez dakit zer zauzken.

- Baiña zuek etxe harta, zenen bidez jun ziñaten o? Hauntzaxea eraman zizuen ta bale o?

- Ez, gobiernuak edo, gu, esaten dizut ba, baten batek agintzen zigun ta...

- Hoi da.

- Ta zuek hairi laguntzen aitzen ziñaten han?

- Herri, herri... guk? Lagundu ez.

- Ez? Ez zenien...?

- Guk, guk aillatzen giñan tokita, baten batek herriko herriko jauntxuak, baten batek bazakiyen gu aillatu ber gendula, refugiau pillua, pillua.

- Ta haiek bialtzen zizuen ze etxeta jun?

- Bai, eta gu jun giñan etxe horta, ta gure ahizpa ta izeko ta beste etxe batea. Ahizpa ezkondua e? Bere, ta bi ume txikikin. Esan dizut ba, bixkiyak izan zittula? Eta bat hantxe hil zitzaion lau hillabetekin.

- Eta alkar ikusten zenduen?

- Bai, bai, bai, urrian geunden, urrian geunden. Baiña ni artian “convaleciente” esaten da ba?

- Gaixo hartan?

- Gaixo? Gaixo, gure ama gaixua. Han baiño, han aiña arrautz, eta han aiña esne ez det edan! Baiña, on eingo zian, oindikan bizi naiz ta.

- Ta ze jaten zenduen?

- Hoixe! Nik hoixe.

- Arrautza ta...?

- Han neuk, nik neuk, nei amak, bai ba, ahula neon ni, gaixua neon, eta alimentatzeko beste gauza geyegi ez zan eongo, eta arroz kon letxe in, arroza ta esnia bazeon nahikua, porke ganadeiyak eta zea. Oin, nola hartzen gendun, pagauta, zenbat pagatzen gendun eo... hori ez naiz akordatzen e? Ez, ez nundik ekartzen zuen, dendan batetik... hori ez naiz akordatzen. Baiña, arroz kon letxe eta zea arrautza, arrautza natilla eo hola inda... bueno, haretzek salbau ninddun ni e?

- Eta, zeaik, botikaik eta ez zenduen?

- Ez. Ospitalian hartzen nun baiña... ospitalian ematen zien zeoze... akordatzen naizela uste det selukumil ematen ziela. Ta beste oin bezela botika, buruko miña daukaula ta pastilla?

## 8.6. Etxerako itzulera gogorra; kalean lo egin beharra

- **Hizlaria(k)**: Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-042/019
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:38:08. **Bukatu**: 00:41:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

- **Laburpena:** Laredotik Riañora eramán zituzten. Atzera etxera bueltan, abiatu zirenean beraiek bezala ihesean zebiltzan milaka lagunekin elkartu ziren. Laredoko kalean lo egina da Matilde. Bidean zetoze, soldadu zegoen anaia aurkitu zuten. Gogoan du Bilbotik etxera trenez bueltatu zirela.

### Transkripzioa

- Ta ordun Laredon zenbat denbora in zenduen?
- Ez, ezer ez. Geldittu ta jun. Ta gero Riañoa, ta han pasau giñuzen beste...
- Riañon, zenbat?
- Hori ba, bi hillabete t'erdi eo... eon zaitte, hori, eon, kalkulau gutxi gorabera e? Gutxi gorabera. Febreruan hemendik jun giñan, Durangon eon giñan, bi hillabete o horrela, gero Algorta beste bi hillebete t'erdi, lau hillebete, eta gero Riañon, ta etorri giñen atzea setiembreian. Zazpi hillabete, danea zazpi hillabete. Eta etorri giñan "nómadas, pero nómadas bien eh?"
- Eta atzea, buelta noiz in ziñaten?
- Hoixe esatea nijuan. Hoixe esatea nijuan. Lehenbiziko tramua ez dakit nola in gendun. Gero oiñez, baiña pilluak e? Ez gu bakarrik e? Andre ta ume! Klaro, atzea bueltan bagentozen, bakoitza bere... Lekeitiokuekin eta juntau giñan e? Hor, zeon, Riañon ta Lekeitiokuekin. Ta klaro, aurea ta aurea ta aurea ta aurea, ta haraiño jun giñanian "no hay más" esan gendun, ez guaz geyo aurea. Eta anaya soldadu gendukan, eta haiek'e Asturiaseaiño jun emen zian. Eta handik aurea juteik ez. Ez ziyoen utzi. Itxura, zeak zeuden tropak, beste aldeko tropak. Ta prisionero in zittuen, eta kanpo... Kastron uste det egon ziala, kanpo konzentraziyuan eo, baiña millakak e? Kanpo, zeon. Eta ba gu ez dakit nola etorriko giñan, ni Laredoko kalia lo inda nao. Ta ni bezela beste milla.
- Beharko?
- Beharko. Eta hurrengo goizian "pies, pa qué te quiero?" berriz'e segi. Laredon beittu gendun ia aber anaya han ete zeon. Bueno, barkatu, Santandertik alde honta, Laredo lenuo dao? Ala Kastro dao lenuo? Laredo eongo da. Hamendik Bilbotik haruntz Kastro eongo da lenuo Laredo baiño? Bueno, beittu gendun, ta han ez zeon. Gero Kastroa jun giñan berriz'e, "haciendo piernas", jun giñan Kastroaiño. Ez dakit zenbat kilometro in giñuzen egunian eo...
- Mordo bat bai, ingo zittuzuen!
- Ez dakit. Eta gero behintzat Kastron, eta hainbeste zea zauren, este este, refu... este, oaintxe esan dizut ba, prisionero! Ta italianuak haiek zaitzen. "Gusta macarron?" guri. Gosia... baita guk harriya're bai. "Sí!". Makarroia ematen zigun, aizu. Haiek bai mutillak, orduan, momentu hartan behintzat. Anaya billau gendun, han zeon, ta harekin behintzat eon giñan, ta gero ez dakit. Gero akordatzen naiz Bilbotik honea...
- Joe, zea izango zan e? Anaye billatu zenduen...
- Bai, eta gero behintzat Bilbotik honea uste det trenian etorri giñala. Hori seguru ez dakit, hori ez dakit, hori ez dakit.

### 8.7. "Gorrien" diruak baliorik ez

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zubizarreta, Matilde
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-042/020
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:42:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** "Gorriek" beraien diru propioa atera zuten eta Matilde eta sendikoak etxera bueltatu zirenean diru hark Euskal Herrian ez zuen baliorik, beraz, ezer gabe zeuden. Ezagun batek dirua eman zion Matilderen amari. Orduko dirua nolakoa zen deskribatzen du.

#### Transkripzioa

- Eta beste gauza bat, lau pezeta eongo zian, baiña haiek Euskadiko diruak zian, porke zuk ez dakizu, jakin, igual ez dezu jakingo, baiña Euskadik Euskadi Euskadi aldekuak, esan daiun nazionalistak eo zeak, been dirua atea zuen, been zonako euskal euskal... gorriak esan daigun bizi zian aldeko zonakuak been dirua atera zuen. Ta alde honta etorrira, harek ez zun baliyo. "Y qué?" Eta baten batek eman emen ziyon gure amai ez dakit zenbat, hamar euro eo... asko da ba hamar euro, baiña... ordurako e? Gaiña, idea, idea daukat [...] zuan soldadu bea, baiña nola oain esan deu Juan Jose Urrutia? Horren aittak. Horren aittak eman ziyola uste det, eskuetan ber gendun zeoze ta, Euskadiko dirua bai, baiña ez zun baliyo hamen! Ta holakotxe istoriak, holakotxe istoriak.

- Ze diru izaten zan ordun?

- Iguala. Txanpona e? Zea, baiña oin jarriko bagenduke Franco, o Francon alden, eta Erregian irudiyak eta, badaure ba? Ba orduan ez dakit ba zein izengo zan, Sabino Arana eo... eo gobiernuko, Euskadiko gobiernua, eo holako zea irudi, baiña hura zan Euskadikua. Ta gero beste zuriyentzako ez zun baliyo harek.

#### 8.8. 18 urterekin, gerrara soldadu

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:13:07
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** 18 urte zituela, gerra hasi zen eta soldadu joatea tokatu zitzaion: Gasteizen instrukzioak egin ostean, Somosierrara eraman zuten. Mendiko txaboletan pasa zituzten bederatzi hilabete. Guardiak egiten zituzten egunero eta su-egurra prestatzen aritzen zen beste bi euskaldunekin batera. Inguruan erdaldun jende ugari bazuten ere, ez zuten erdaraz ikasi. Emakumerik ikusi gabe denbora luzez egon beharra suertatu, eta horren inguruko anekdota bat kontatzen du. Sei urte egin zituen soldadu, 49 hilabete lehorrean, eta ondoren Ferrolgo kuartelean.

#### Transkripzioa

- Gero gerra erten tzun eta hemezortzi urtekin zera jun giñan, soldau. Gure kinta [jun] zan. Kinta Cuarenta. Hemezortzi urtekin.

- Hemezortzi urtekin gerrara joan zinen?

- Bueno, estraiñako Bitorira jun giñan. Bitorian instrukziak ikesi eta gero

Somosierrara. Madrilko zea hortan.

- Eta soldadu joan zinen?

- Soldau, soldau, soldau, hantxe txabola zarretan lo eñez zeran, mendien.

- Kanpamentuetan?

- Bai. Kanpamentuek, ez, txabolak. Ordun kanpamentuik ez zan. Bueno, kanpamentuak baiña guk txabolak genduzkan, Segovian mendiyen, Somosierran. Hantxe beratziz hillebete egin giñuzen.

- Ze esperientzi? Nola pasatu zenuten?

- Gu bastante ondo egon giñan. Tiroik ez gendun izen, guardiek in ber beti. Bai ba, Madril holaxe zeon, bertan, eta hauraxe zaitu. Soldau asko, e. Eta egurra eamaten gendun eta ondo jan eta edan eiten gendun zeatiken gu hiru euskaldunok giñen, eta egurra nola eamaten gendun, beti furrielak'e ta zerak beti jaten ondo ematen zigun guri. Beste batzuk berriz lo, baiña egurra asko erretzen zeon ba zera eiteko-ta.

- Zer egiten zenuten?

- Sua, bakizu; guk han ordun ehun eta hogeit bat lagunek bazkaldu behar izeten zan eta hareako suak-eta.

-Sutako egurra?

- Bai ba. Sua kanpon edozein tokitan, gaur hamen sua, bihar beste toki baten-eta, beti zeon in ber eta beti egurra preparauta. Gero gabien guardia beti. Gabien guardia in ber izaten gendun guk. Beste batzuk berriz hantxe etzanda lo igual. Hantxe egoten zien extremeñoekin eta kastillano jendie dana. Eta guk ez gendun ez erderarik ikusi eta ez ezer han. Kabo furrielak ez zun sekula, harek'e ez zun euskeraz sekula, "ardua" (...) guri.

Soldautzako (...) Beratziz hillebete mendi baten egin giñuzen-ta. Askotan esate'et eta, gero ezin ba emakumeik ikusi eta ezer e mendian han, eta komandanteak eaman digu rubia bat eta geuk elkarri: "Hi hoi dek henbra ekarri diguna" egiñez soldauak alkarri. Rubia bat eaman zun-ta. Emakumia nolakua zan arrastoik'e ez eta. Soldauen sistema ba al dakizu zer dan?

- Hantxe egon behar, beharko.

- Bost urte, ia sei urte egin giñuzen guk soldau, e. Egin giñuzen berrogeta beratziz hillebete lehorrien eta gero Ferrolera jun giñen soldau. Ferrolgo kuartelin egin nitun hamalau hillabete.

## 8.9. Gerratean zebilela, ingeles eta alemanen arteko borroka

- **Hizlaria(k):** Lopetegui Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:15:56
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Kanariar irletan kruzero batean egon zen soldadu. Ferrolen, eguneko pezeta bat ordaintzen zieten. Ingeles eta Alemanen arteko borroka aipatzen du; hildako ugari izan zen han.

### Transkripzioa

-Ferrolen hamalau hillabete egin zenituen?

- (...) Gero Crucero Canarias Ferrolen egin nitun nik hogeta beratziz hillebete. Hamalau hillebete Cuartel Dolores, eta gero Crucero Canarias. Han hamabost hillebete. Hogeta beratziz hillebete egin nitun nik. Bada zeozer. Morrontzan eguneko errialakin jun eta Ferrolen eguneko pezeta ematen

ziun.

-Egunean pezeta?

-Bai. Jornala. Orduan jornal earra izaten zan haura. Gosiak akaatzen hantxe. Gosiak ze ete du?

-Gerrako istoriaren batzuk izango dituzu, anekdotaren batzuk.

-Istoriak? Ez dao kontau're eitteik eta. Hildako ugari bai hor alemanak eta inglesak zera bota zeбенian. Inglesak alemanai bota barkua, eta gu jun giñan hura salbatzera, gu juterako danak itota zauren. Salbabidakin, eta bi jaso ta hurrengo egunian Itziarkukin (Islandia?) aldian-edo auskalo nundik zihar ibilli giñan, mendiyak bakarrik ikusten zien eta.

-Itsasoan ez zineten ibili sekula?

-Itxasuan ba!

-Igeri-eta?

-Igeriyan nik ondo egiten nun. Itsasuan ez hainbesteraño ibilitta baiña. Iraetan pasatzen zan lehen eta.

-Itsasuan bonbak elkarri botatzen-eta?

-Guk ez, guk ez gendun bonba bota. Inglesak eta alemanak. Hori zuen aittittek eta akaso, hori zala hirurogetaka urtiak dia, hirurogeta hamar. Ba gerra akaau zala're guk hogeiegun euki giñuzen, (...) gerra akabau zan, hogeiegun bai. Zeatikan, soldautzatik jatxi eta mezan apaizak zea eman tzun eta sermoian gerra akabau da, esan ziun. Zeoze (...) esaten jardun gendun. Kapitanak etorrita bihar mendi hoiek hartu bihar dizkiu ta, elurre dana zera einde zeuren. Baiña harek bazekien zeoze, eta hurrengo egunian zer da eta herri txiki batea eaman eta gero meza eman eta gerra akaau zala. Hogeie urte, ordurako einda geuden beratzi hillabete, gero kuartelin-ta ia urtebete inguru bai.

-Kapitanak eta jatorrak tokatu zitzaizkizun?

-Haiek berak nahi zeen bezela haiek. Haiek jan ondo-ta, gero asistentie eukitzen zeбен eta haiek gu baiña hobeto ibiltzen zien. Jornal galanta-eta. Gu, zera. Eta gu bakarrik ez, asko, millaka soldauak.

## 8.10. Gerrako itsasontzia

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/014
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:21:40
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Itsasoan gerran zebiltzala, lehorretik atera eta itsasontzi aleman bat urperatuta topatu zutenekoa kontatzen du; han hildakoen aipamena ere egiten du. Gerrako itsasontzia nolakoa zen deskribatzen du; mila soldadu inguru ibiltzen ziren.

## Transkripzioa

-Goiz baten esnau giñan eta (...) kalderak eukitzen zituen makinaria zera eiteko-ta. Haundia, berrehun metro luze zan haure. Gu milla soldau inguru da ibiltzen giñan zerak, milla soldau inguru-ta. (...) barkuak kargatzen arrainekin-eta, gasoille ta zera eiten-ta. Asteartie zan goguan dauket hori, eta hamabik aldera, orduntxe zeera erten behar gendula, itsasora erten behar gendula, bazkaian zea, eta hamen bermeotarrak eta soldauak bazien, haiek bazekien (...), bestea in ber gendula ta. Ferroldik erten

gendunian, barko alemana ziok ia urpera eiñian, eta gu asteartian erten eta asteazkenian guk billau gendun eta harek itota salbabidiakin. Eta bi jaso giñuzen, eta haiek dana marinero bezela jantzi zuri-zuri, eta eliza, kapila bertan eukitzen gendun, eliza bertan, eta han kandela piztu eta goardian marineruak; gu Infantería Marina giñan gu, marinak, eta hurrengo egunian, apaiza bertan ibiltzen gendun ba guk, eta hurrengo egunian entierua ein eta bere musikak eta zerak ein buelta eta. Atzera gero Coruñara sartu giñen, zapatuan. Asteartian erten eta Coruñan sartu giñun.

-Barkuak nolakoak ziren?

-Harek aeuzkan, dauzka, kaiñoiak hortxe earki ikusten zazko, hamasei kaiño, haundiyak, e, kaiño haundiyak. Lau alderdi baten, aurrian beste lau, atzian beste lau eta bestaldian beste lau. Hamasei kaiño. Eta kaiño bakoitzak (hainbeste) mutill eukitzen zitun. Eta harek mendi... Azpeiti ta dana txikiuko zitun barko harek, gure kuzero barko harek. Milla bat soldau. Han ibiltzen zien elektrizistak, linterneruak, igeltseruak, ofizio guztikuak, eta bertan eitten zan, fabrikara juten zien bezelaxe. Gu soldauak, gu beti armak, fusilerakin gu. Eta egon zin zerak, burniyak, eta atzera uretara bota zin aleman bi hoiek; bestiei ordena Madrildik hartuko zeen, hango jefiak, kapitanak-eta... Haiek uretara bota eta hurrengo egunian Coruñara sartu giñen. Erten asteartian eta zapatu illuntzian Coruñara.

-Coruñan zer moduz?

-Coruñan barku haundirika ezin zan (...) Konparazio batera hamendik, nola esango'et, ermittara bezela, zeraik ez, eta handikan gero atzera Ferrolera etorri giñen. Ferrolen barku haundiyak zera eiten zien; zeatik ura ber du ba zera eiteko, barku haundi hoiek eta sartzeko-ta.

### 8.11. El Escorialen desfilatzen

- **Hizlaria(k):** Lopetegi Zabaleta, Tiburtzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-045/016
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:23:34. **Bukatu:** 00:25:08
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Coruñatik El Escorialera joan eta desfilatzen aritu zirenean, alemanek dohainik egin zuten; Tiburtziok eta bere taldeko soldaduek, ordea, ordaindu egin behar izaten zuten.

### Transkripzioa

-Escoriales, ba al dakizu nun daon Escoriatz (Escorial esan nahi du) hori?  
-Bai.

-Guri han edarra ein tziun. Alemanak (...) Zea hortaa jun giñanian, handik... zortzi egun pasau giñuzen desfilatzen..., alemanak hango zea ikustia debalde eta guri kobrau eiten zigun, Escoriatzen (Escorialen), Escoriatz hori famaua da ba zer hori, hori Madritikan zera dao.

-Madrident ondoan?

-Escoriales. Franco xaharra-ta han enterrau zituen ba gero. Sekula ez ziñan harea jungo?

-Ez naiz izan ni.

-Eliza harek gauza haundia zun, bo!, famaua eliza're ta. Alemanak debalde, eta guri kobrau eiten zigun zea eitia. Lotu beratzi eta afusilatzeraz nola eramaten zituen ordun, orduan zan afusilatzementua.

-Sekula ikusi zenuen afusilatzen baten bat?  
 -Guk ikusi ez, baiña guardia pranko ein, eamaten eta, karzelatan-ta guardia asko eiten gendun Ferrolen-ta egoten giñanian, bu!  
 -Kartzelatan egiten zenuten guardia?  
 -Ehun soldau igual egoten zien ganbara haundi baten, eta periodikua (...) gerran hor extranjerien-ta. Batek igo zun mahai baten gaiñera ta dana ixilik letu, batek letzen zun-ta. Hara!, zenbaitek historia earki esango luke, nik berriz ez det baliyo hola zera eiteko-ta.

## 8.12. Soldadutza (II): gosea eta lagunak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Alberdi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZES-047/014
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:27:42. **Bukatu**: 00:29:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
 Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza  
 Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Gosea pasa zuten, eskale asko. Zer jaten zuten. Jornalik ez, eta janaria erosteko dirurik ez. Tabernetan platerkada patata jaten zuten. Euskaldun kuadrilla handia ziren. Zer egiten zuten elkarrekin.

### Transkripzioa

- Baiño ordun hau de do're gosia. Orduan jateko, orduan, orduan ogi koskor bat jateagatikan'e...  
 - Gosea pasa zenuen?  
 - Bai, bai, bai. Gosia, hala're guk ikusten gendun gure ate ondoa etorrita majiña bat ta...  
 - Eskian?  
 - Lentejan ta eskian ta.  
 - Ze jaten zenuen?  
 - Haragi gixaua hori, haragi gixaua saltsan ta, patata, naranjita; gaiñuntzian, egunian holakoxe bi bollo, egun guztirako. Ta eguardian hayek ematen zigun, ta deskuidatzen bagendun, eguardiyan bertan dana jan. Ta gabia, ba "a buscar".  
 - Aguantau in ber?  
 - Aguantau in ber.  
 - Kanpoa ateatzen ziñetenen ta...  
 - Bai.  
 - Diruik bazenuen? Irabazten zenuen jornalik?  
 - Jornalik batez.  
 - Ez zeneukezuen?  
 - Egunian bi errial, jornalik diruik batez.  
 - Eta bi errealekin jateko eo erosteko aillatzen al zan?  
 - Ez, ezer ez, ez. Zea han Bar Crespo bazan, soldauok juten giñan, ta bi pezta kostatzen zan platerkaa patata.  
 - Bi pezta?  
 - Bi pezta. Jun ta arratsaldian ba hoixe jaten gendun, platerkaa patata jun ta jan ta...

- Kuadrillan tabernata ta juten ziñeten?  
 - Bai, bai, juten giñan, juten giñan.  
 - Zer zittuzun, hemengo jendea bazan ala...?  
 - Baaai, bai, bai, asko. Asko gañea hamengo jendia.  
 - Euskaldun jendea bazan?  
 - Bai bai bai bai bai. Gu euskaldunak giñan han koadrilla haundiya, hemen Bergara aldetik, eta zeakuak, eta... hamen bertokuak'e bai. Gu tokau giñan Iraetatikan lau kinta batekuak. Ta laurok Vitorira jun giñan. Ta ondo arreglatzen giñan, bixkiyak zian bi, ta haiek'e eskolaikan'e ez zakiyen, ta zeaik ez, ta infanteyan o zean, bandan tanborrero sartu zien. Ta txarriyak eukitzen zittuen txarri pillua han. Ta txarri-gorratzen eoten zian ta han txerritokiyan.

## 9. Lanbideak

### 9.1. Madrilgo diskoteka bateko pasadizoa

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Irure, Joxe Mari; Uranga Ibarguren, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZES-044/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:36:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**  
 Lanbideak » Neskameak  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Urduñ eta Madrilén bazituen lagunak. Madrilén zegoela, Azpeitiko familia baten etxera joaten zen askotan. Diskoteka batera sartu zeneko pasadizoa kontatzen du. Luisa sukaldean aritzen zen lanean eta 1.000 pezetako soldata zuen hilean; diru dezente zen.

### Transkripzioa

- Han kalea eta ateatzten ziñen, ordun [...]  
 - Luisa: Bai, bai, bai.  
 - Bazittuzun lagunek han?  
 - L.: Ertetzen nintzan kalea, asko ez e? Asko ez, baiño bai, kalea ta ertetzen nintzan, ta baiño...  
 - Ta Madrilgo kaletan zemuz? Zeatikan Aizarnatik haruntza...  
 - L.: Bai, hemen Azpeitiar batzuk zeuden familiya ezagunak, azpeitiarrak zien, andre-gizonak, umek, hiru seme-alaba zezken. Hayen itxea juten nintzan ni. Sala de fiestas bat zeon, hua biden, ta huaxe ikusteko gogua're banekan, ze tankeatakua zan, ta nik pasara baten sartu ta beittu, aber ze-nolakua zan. Esaten [...], "gogorra in dezu horreatikan!" ta, "bai!". Eta atera nintzanen zeak, ta pentsauz "hau zein ote da?". Pentsauko zuen hayek. Nik holako sartu, beittu, eta atzea erten, ta ez zien ezer esan atentziyua...  
 - Asike sartzeko gogo haundiik ez zizun eman. Bertan eoteko gogoik ez zizun eman?  
 - L.: Ez, ikustia nahi nun nik...  
 - Joxe Mari: Zer zan sala de fiesta!  
 - L.: Bai, eta halaxen. Oso famili jatorra zan azpeitiar hoi, eta hayek andra-gizon hayekin ertetzen nun pasiera ta. Andre-gizonak, hiru ume zezken,

gaztiak.

- Ta zuk itten zendun kozinau?

- L.: Bai.

- Ta garbiketa ta ere baita?

- L.: Beste bi dontzeilla zeren, ta nik...

- Zuk kozinau bakarrik?

- L.: Bai, kozina bakarrik. Ta zien ama-alabak bakarrik. Aberatsak zian.

- Hori galdetu behar nizun, soldata ona izaten zan ordun...?

- L.: Soldata onakin jun nintzan ni, garai hartan milla pezta zan soldata.

- J.M.: Hillen milla pezta.

- L.: Hillen milla pezta. Eta biejia pagau zien nei hayek, milla pezta ta biejia. Garai hartako asko zan, eta...

- Ze irabazten zan, han gehio igual hemengo neskame-tokitan baiño?

Hemen (L) Donostin ta eon ziñatenetan baiño?

- L.: Hoixe nik ez dakit ba, nik... e, ba, ba, bai.

- Igual erak aberatsago edo...

- L.: Zea, beste etxe hoietan baiño haunditxeo, doblia o geyo. Bai.

- Eta irabazten zendun soldata zutzako izaten zan, ala etxen amai entregatzen ziozun?

- L.: Ez, neretzako.

- Zuretzako?

- L.: Bai. Neretzako.

- Ze etxe askotan esaten due normalen irabazitako soldata amai o entregatzen zien.

- J.M.: Bai, bai, zuk'e Zestuan eon ziñanen ta...

- L.: Bai, baiña Zestuan eon nintzanian ez nun irabazten.

- J.M.: Portuenen eon ziñanen zeozer irabaziko zenun ...

- L.: Ke ba, ke ba, ez, ez, ez nun irabazten nik ordun.

- Ordun neskame han ta hemen ibili ziñan?

- L.: E?

- Neskame ibili ziñala ordun han ta hemen.

- L.: Bai, bai, bai

- J.M.: Bai, urte asko kanpuan ibilli da.

- L.: Bai.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Finlandian jaioa; 26 urte Euskal Herrian (101-167/002)

Aurkezpena. Finlandiatik etorri zen duela 26 urte. Arroan bizi da, Zestoan.

### 2. Suomierari buruz (101-167/004)

Suomiera ez da hizkuntza indoeuroparra, euskara bezalaxe. Hungariera, samiera, estoniera eta beste hizkuntz atxiki batzuk dira suomieraren familiakoak.

### 3. Finlandiako hizkuntzak (101-167/005)

Finlandiako hizkuntza ofizialak suomiera eta suediera dira. Samiera ere hitz egiten da, baina errekonozimendu txikiagoa dauka.

#### **4. Maitasunak ekarri zuen (101-167/006)**

Finlandian mutil euskalduna ezagutu zuen, eta horregatik etorri zen.

#### **5. Negurik ez hemen (101-167/007)**

Lehenengo hilabeteak nolakoak izan ziren kontatzen du. Donostian bizi ziren, eta gero Zumaian. Negurik ez dago hemen, Finlandiarekin parekatuta.

#### **6. Gaztelania eta euskara ikasten (101-167/009)**

Komunikazioa ez zen erraza hasieran. Ingelesez oso gutxik zekiten, eta uste zuena baino lehenago ikasi behar izan zituen hemengo hizkuntzak. Gaztelania Finlandian ikasi zuen urtebetez. Euskara ikasteko AEKn eman zuen izena. Euskara erabat desberdina zen, eta hutsetik hasi behar.

#### **7. Gaztelania eta euskara ikasten (suomieraz) (101-167/011)**

Hemengo hizkuntzak ikasteko prozesua azaltzen du, suomieraz (aurretik euskaraz esandakoa).

#### **8. Euskara ikasteko prozesua (101-167/014)**

Euskara ikasteko prozesua. Gogoia handia zeukan, eta azkar ikasi zuen. AEKz aparte, Egunkaria irakurtzen zuen, Euskadi Irratia entzun... eta hitz egin, hanka sartu arren.

#### **9. Euskaraz bizitzeko hautua (101-167/015)**

Lehen bi urteetan ez, baina ordutik hona euskaraz bizitzen saiatzen da. Hasieran ingelesa, gaztelania, suomiera... denak nahasten zituen.

#### **10. Euskara, integraziorako tresna (101-167/016)**

Euskaraz jakitea garrantzitsua da integratzeko. Adinekoekin komunikatzeko, adibidez, euskara izan zen bere giltza, gaztelania ez baitzen haien lehen hizkuntza.

#### **11. Kanpotarrak euskaraz jakiteak bertakoengan eragina du (101-167/018)**

Bera euskaraz hitz egiten ikusita, batzuek hunkitu ere egiten ziren. Euskara hobetzeko motibazioa ere izan daiteke atzerritarrek euskara ikastea, akuilua bertakoentzat (euskara gutxi erabiltzen dutenentzat, adibidez).

#### **12. Finlandiar euskaldunaren esperientzia (101-167/020)**

Oso ongi etorria sentitu da beti Euskal Herrian. Europako atzerritarrek beste kontinente batzuetakoek baino harrera hobea ote duten... Suomierak ere interesa piztu du jendearengan.

#### **13. Euskaraz entzunda harritu? (101-167/021)**

Zumaia inguruan jada inor ez da harritzen euskaraz dakielako, baina beste toki batzuetan bai. Lehenengo hitza euskaraz egiten du. Hemengotzen joan den heinean, gutxiago igartzen zaio Finlandiakoa dela.

#### **14. Suomitar elkarte (101-167/022)**

Hemengo finlandiarrek Suomitar Euskal Herria-Finlandiar elkarte sortu zuten. Euskara-suomiera hiztegia plazaratu zuten. Urtean behin ospakizuna egiten dute, Gabon Txiki gaia (finlandiar erara, sauna saioarekin). Badu harremana beste herrialde batzuetako jendearekin ere.

#### **15. Suomitar elkarte (suomieraz) (101-167/024)**

Hemen bizi diren finlandiarrek sortutako elkarteari buruz hitz egiten du, zein jardura egiten dituzten, eta beste herrialde batzuetako jendearekin duen harremana aipatzen du. Aurrez euskaraz esandakoa, orain suomieraz.

#### **16. Zumaia inguruan 15 hizkuntza? (101-167/025)**

Zumaia inguruan 15 hizkuntza baino gehiago hitz egingo direla uste du. Zein herrialdeetako jendea ezagutzen duen aipatzen du.

#### **17. Zazpi-zortzi hizkuntza dakizki (101-167/026)**

Suomiera, suediera, ingelesa, frantsesa eta alemaniera eskolan ikasi zituen. Poloniera pixka bat ikasi zuen ondoren, eta gero gaztelania eta euskara.

#### **18. Suomieraz zeinekin hemen? (101-167/027)**

Finlandiera senarrarekin eta seme-alabekin hitz egiten du; haiek euskaraz egiten diote sarritan. Herrikide batzuekin ere bai.

#### **19. Zumaiaarekin duen harremana (101-167/028)**

Donostian hilabete batzuk igaro ondoren Zumaia joan ziren bizitzera, eta urte batzuk igaro zituzten bertan. Zumaiaetik gustatu zitzaiona: denek elkar ezagutzea. Hori ez da Finlandian gertatzen. Senarraren familia zumaiaarra da. Lagunak ere baditu Zumaian.

#### **20. Zumaiaarekin duen harremana II (101-167/030)**

Arroan bizi arren, Zumaiaarekin harreman handia du orain ere, gertu dagoelako. Seme-alabek bertan ikasi dute 12 urtetik aurrera.

#### **21. Euskaldunak gero eta irekiago (101-167/032)**

Bere harremana zumaiaarekin ona da. Euskaldunak asko ireki dira kanpora begira, bere ustez. Bertako hizkuntza indartu egin da, gainera; baita euskalkiak ere.

#### **22. Ingurune naturala gustatzen zaio (101-167/034)**

Zumaiaetik gustatzen zaiona: itsasoa, mendia...

#### **23. Finlandiatik negua faltan (101-167/035)**

Finlandiatik faltan: negua, elurtutako paisaiak, eta udarako gau luzeak, etxera bizikletan bueltatzeko.

#### **24. Oinarrizko hitzak suomieraz (101-167/037)**

Oinarrizko hitz batzuk suomieraz.

## **25. Finlandieraz "basoa" (101-167/039)**

Finlandieraz "basoa" hitza gustatzen zaio.

## **26. Kanta herrikoa suomieraz (101-167/041)**

Kanta herrikoi bat kantatzen du suomieraz.

## **27. Aizarnako alkate izan zenekoa (ZES-001/005)**

Aizarnako alkate izan zen. Lan asko, galanki.

## **28. Andre-gizonek elkar ezagutu zutenekoa (ZES-001/007)**

Zarautzen ezagutu zuten elkar. Margarita lanean zegoen Zarautzen, eta Roberto "juergan". Margaritak txapela kendu zion, eta horrela ezagutu zuten elkar. Hurrengo astean itzuli zen Roberto txapelaren bila.

## **29. Eguraldi txarrarekin agertzen diren hegaztiak (ZES-001/017)**

Eguraldi txarrarekin hegaztiak sartzen ziren: hegaberak, antzarrak, kaioak...

## **30. Aitonak egindako Irure baserrian jaioa (ZES-002/002)**

Irure baserrian jaio zen, beraz, abizena eta baserriaren izena berdinak ditu. Aitonak egindako baserria da; baserria noiz egin zuten kontatzen du.

## **31. Auzolanean egindako baserriak (ZES-002/003)**

Garai hartan harria norberak atera eta auzolanean egiten zituzten baserriak. Idiekin eramaten zituzten harriak.

## **32. Baserrietako lana eskuz (ZES-002/005)**

Bailarako baserri guztietan izaten zen ganadua eta garia egiten zuten, besteak beste. Orduan ez zuten traktore eta makinariarik izaten.

## **33. Bailarako baserriak (ZES-002/007)**

Bailarak Santa Engrazia dauka izena eta bertako baserriak izendatzen ditu, 12 inguru dira guztira.

## **34. Eskola garaia; Etumeta eta Aizarnako eskolak (ZES-002/009)**

Familia handia zen Joxe Marirena eta lagun asko bizi ziren etxean. Etumetan eta Aizarnan zeuden eskolak eta Azpeitiko maisu batek irakasten zuen eskoletan. Lanaren ordain gisa, baserrietan artoa eta garia ematen zizkioten. Etumetatik Zestoako maristetara joan zen eskolara. Emaztea Etumeta eta Erdoiztako eskoletan ibili zen.

## **35. Irakasle azpeitiarra (ZES-002/010)**

Irakaslea azpeitiarra zen. Eskola non zegoen deskribatzen du. 30 ume inguru ibiltzen ziren eskolan.

### **36. Umetako jolasak (ZES-002/012)**

Umetako jolasak: harrapaketan, "kortabanaka" etab. Jokoen nondik-norakoa azaltzen dute. Etxe atariko horman pilotan aritzen ziren auzoko umeak elkartuta.

### **37. Etumetako bolatokian boletan (ZES-002/013)**

Boletan aritzen ziren; Etumetan bazen bolatokia. Igandeetan ibiltzen ziren boletan; diru pixka bat izaten zuten, jaieko duroa. Soinujolea izaten zen eta hari ordaintzeko borondatea bota behar izaten zen. Litro erdi mostradorean eskatu eta kuadrillan edaten zuten ardoa.

### **38. Santa Engrazian igandero erromeria (ZES-002/014)**

Santa Engrazian igandero egiten zen erromeria eta Santiagoetan festa. Aizarnatik eta inguruetatik hurbiltzen zen jendea. Gehienetan mutil gehiago izaten ziren neskak baino eta neska-laguntzera joateko borrokan aritzen ziren.

### **39. Inguruetako erromeriak eta soinu-jotzaileak (ZES-002/016)**

Urdanetara, Altzolara eta Iturriotzera joaten ziren erromeriara eta festetara. Soinu-jotzaile ugari aipatzen ditu: Sakabi, Txankarta... Behin Iturriotzera joan zireneko anekdota kontatzen du.

### **40. Aizarna inguruko auzoetako festak (ZES-002/017)**

Inguruko auzoetako jaiak aipatzen dituzte: Erdoizta, Granadaerreka, Altzola... Altzolan, giro txarra zenean, ganbara batean egiten zen erromeria.

### **41. Zarauzko euskal-jaiak (ZES-002/018)**

Zarauzko euskal-jaietan izeba baten etxean geratzen ziren lotan. San Pelaion erromeria egiten zen eta dantzara joaten ziren.

### **42. Erromeria nola ordaintzen zuten (ZES-002/019)**

Santa Engrazian tabernakoek bertan ateratako diruarekin ordaintzen zuten erromeria; Joxe Mariren anaiak, berriz, erromerian bandeja pasa eta ateratako diruarekin ordaintzen zuen. Santa Engraziko tanbernaren aipamena egiten du.

### **43. Emaztea neskame ibilia han eta hemen (ZES-002/021)**

Neska-lagunarekin 10 urte egin zituen ezkondu aurretik. Joxe Mariren emaztea neskame egon zen Mutrikun, Ordu eta beste leku batzuetan. Ordu senitarteko batzuen bidez egon zen neskame. Joxe Mari 15 urterekin lehengusu batekin Javierrera joan zen gaztelaniaz ikastera.

### **44. Baserritarrak kanpora gaztelania ikastera (ZES-002/022)**

Baserritar asko joaten ziren kanpora gaztelania ikastera. Joxe Mari Javierren egin zuen egonaldiko kontuak aipatzen ditu. Euskaraz hitz egiten zuena ardo gabe uzten zuten. Aizarnan gaztelania ikasten zen, Etumetan ez.

### **45. Inguruko herrietako euskara (ZES-002/024)**

Inguruko herri eta auzoetako euskararen aipamena eta berezitasunak eta haiekiko duten ulermena aipatzen dituzte.

#### **46. Santa Engrazia eta gertuko auzoak (ZES-002/025)**

Santa Engrazikoek Etumeta eta Erdoiztarekin zuten lotura handiena. Lagunartea etxetik gertuenekoein izaten zuten. Esaera bat aipatzen du emazteak.

#### **47. Aizarnako euskara (ZES-002/027)**

Santa Engraziko eta Aizarnako euskara; hitz batzuen aipamena egiten dute. Anekdotak bat aipatzen du.

#### **48. Aizarna eta Santa Engraziko tabernak (ZES-002/028)**

Aizarnan izandako aldaketak aipatzen ditu eta garai batean nolakoa zen azaltzen du. Tabernak izendatzen ditu.

#### **49. Elizatik irtetean, tabernara (ZES-002/029)**

Anekdotak bat aipatzen du. Elizatik ateratzen ziren garaian, tabernara joaten ziren eta txakolina edateko ohitura izaten zuten.

#### **50. Igandero goizeko 7etarako mezara (ZES-002/030)**

Elizan koruan jarri ohi ziren eta handik behetik pasatzen ziren neska gazteei begira egoten ziren. Mezetara igande goizean zazpietarako joaten ziren. Derrigorra zen mezara joatea eta farola eskuan hartuta joaten ziren eguraldi txarra egin arren.

#### **51. Argi egiteko, karburoa eta petrolioa (ZES-002/032)**

Aizarnako garai bateko kalea eta orduko denda eta tabernak deskribatzen ditu. Mezetan hilarri gainean jartzen zen argi baten aipamena egiten dute; baserrian ere erabiltzen ziren karburoa eta petrolioarekin batera.

#### **52. Argia egiteko tresnak (ZES-002/034)**

Argia egiteko erabiltzen zituzten tresna ezberdinak erakusten ditu eta bakoitzaren erabilpena azaltzen du.

#### **53. Dendako jakiak etxeko truke (ZES-002/035)**

Etxean gastu gutxi izaten zen. Ogia etxean egiten zuten. Babarruna eta beste jenero batzuk plazan saltzen zituzten. Etxeko jeneroa dendara eramaten eta etxerako beste jaki batzuekin trukatzeko zituzten. Orduko bizimoduaren inguruko ikuspegia.

#### **54. Ganadua saltzera kalera (ZES-002/037)**

11 urte zituela eta gerra hasi zenean behiak mila pezeta balio zituen eta ardiak hamar duro. Behiak Zestoara eta Donostiara eramaten zituzten. Donostiara trenez, bagoietan sartuta, eramaten zituzten eta handik hiltegraino kalean zehar, oinez. Arkumeak Azpeitiko azokan saltzen zituzten edo, bestela, harakinari saltzen zizkioten.

#### **55. Inguruetako errota (ZES-002/040)**

Errotak non zeuden azaltzen du. Eramaten zuten arto eta gariaren hainbesteko bat kendu ohi zieten errota.

## **56. Garia "txanketean jo" (ZES-002/042)**

Garia "txanketean jotzea" zer izaten zen eta nola ebakitzen zuten azaltzen du; lan gogorra izaten zen. Garia batutakoan sorta egiten zen.

## **57. Gari-motak (ZES-002/043)**

Gari mota ezberdinak izendatzen ditu; gari lasto-motza eta lasto-luzea, adibidez.

## **58. Gariaren prozesua (ZES-002/045)**

Gariaren egiteko prozesuko urrats ezberdinei nola deitzen zaien azaltzen du; "garia jaulki", adibidez.

## **59. "Galbaia" (galbahea) (ZES-002/047)**

"Galbaia" (galbahea) zer den azaltzen du.

## **60. Lastoa mezetara bidean argi egiteko (ZES-002/049)**

Goizean mezetara joateko kandela edo farolarik ez bazuten, lasto sortari su emanda egiten zuten argi bidean.

## **61. Lurra lantzeko tresnak (ZES-002/053)**

Lurra lantzeko tresna ezberdinak izendatzen ditu: bostortza, karrama, etab.

## **62. Margarita "mixerikordia" eskolara (ZES-004/001)**

Margarita Zestoan jaio zen eta gurasoak azkoitiarrak zituen. Eskolan "Mixerikordiko" (Misericordia) mojekin ibili zen 13 urtera arte. Adin ezberdineko ikasleak batera egoten ziren gela berean. Mojen aipamena egiten du. "Kultura orokorra" deituriko ikasgaia ikasten zuten eta, liburu bakarra izaten zuten.

## **63. Mojekin etxeko lanak nola egin ikasten (ZES-004/002)**

Mojek "laborea" irakasten zieten, brodatzen adibidez. Eskulan ezberdinak nola egiten zituzten azaltzen du.

## **64. Miren Aizarnan jaio zen, Itzira Handi baserrian (ZES-004/003)**

Miren Aizarnako Itziar Handi baserrian jaio zen. Ama errezildarra eta aita Itziarkoa zituen. Zortzi anai-arreba ziren eta diru gutxi zutenez sarritan egoten zen osaba-izeben etxean Usurbilen.

## **65. Eskolara Lasaora oinez (ZES-004/004)**

Miren eskolan Lasaon ibili zen. Egun guztirako joaten zen eskolara eta bertan bazkaltzen zuen. Komentua zen eskola eta hiru maila ematen ziren bertan. Mojak zituzten maistra eta ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Dotrina irakasgaia oso garrantzitsua zen. Mojek agindutako pasartea buruz ikasten ez bazuten ez zieten uzten eskolatik irteten.

## **66. Aizarnako eskola eta dotrina (ZES-004/005)**

Mirenek jaunartzea Aizarnan egiten zuten eta eskolara ere bertara joan ziren dotrina ikasten bertan jarraitzeko. Anaia eta biak egoten ziren Aizarnan.

Aizarnako eskola deskribatzen du. Neskek eta mutilek maisu-maistra ezberdinak izaten zituzten.

### **67. Mirenen umetako eskola (ZES-004/006)**

Jaunartze handia 12 urterekin egin zuen eta, ondoren, Azpeitiko Jesus-Marietara joan zen etxeko lanetarako "laborea" ikastera. Aizarnan izan zuten maistra gorra zela aipatzen du. "Bixigu"n ere ibili zen eskolan; toki askotatik pasa zen. Azpeititik Donostiara joan zen neskame.

### **68. Lantokiko bizipenak (ZES-004/008)**

Jakue (Santiago) Egunean Santa Engrazira joaten ziren erromeriara. Donostian neskame egon ondoren Zestoako etxe batean aritu zen neskame. Baita Otolan ere beranduago. Lantokiak eta bertako bizipenak aipatzen ditu.

### **69. Ahizpa jaio zenekoa (ZES-004/009)**

Ahizpa txikia jaio zenean, Gorostietan zebilen orduan Miren lanean. Kotxerik ez, eta mendibidez ibiltzen ziren.

### **70. Umetako denbora-pasak (ZES-004/010)**

Umetan, udazkenean, atariko intxaur arbolatik zeinek gehiago bildu jolasean aritzen ziren. Askarirako, hartutako intxaur haiek izaten zituzten; eta, noizbehinka, baita txokolatea ere. Mirenen anaia oso txokolate zalea zen eta askotan lapurtzen zien txokolatea. Ogia azukrez gozatutako ardotan bustita askotan jaten zuten Margaritaren etxean.

### **71. Umetako jolasak (ZES-004/013)**

"Asakaponetan" jolasten zuten eta bainua hartzera askotan joaten ziren. Mirenek, ahizpak bainua hartzera joaten zirenean, bertsoak nola ateratzen zituen aipatzen du.

### **72. Anai-arreben ume garaia (ZES-004/015)**

Mirenen etxeko atarian "alberga" bat zegoen eta udan bertan hartzen zuten bainua; neskak eta mutilak txandaka bainatzen ziren. Neguan, arraskan moldatzen ziren. Anekdotak bat kontatzen du. Futbolean eta karta jokoan "puntuan" eta "zazpi eta erdian" aritzen ziren.

### **73. Mirenen umetako gaiztakeriak (ZES-004/016)**

Umetan, anaien artean pasatako gertaera bat du aipagai: eskolatik piper egin eta gurasoak jakin zutenekoa. Pagoaren ipurdian jarri eta kontu-kontari aritzen ziren anai-arrebak.

### **74. Margaritaren umetako jolasak (ZES-004/017)**

Margarita ume zela Akuara joaten zen anai-arrebekin eta hango lagunekin ibiltzen ziren jolasean: etxeko-andrezketan, kukuka, kozineketan eta abar.

### **75. Gereziak, zuhaitzetik zuzenean (ZES-004/018)**

Umetan gereziak zuhaitzetik jaten zituzten hezur eta guzti Mirenek eta bere anai-arrebek. Mutilak igotzen ziren gerezi arbolara eta handik zuhaitza astintzen zuten, gero neskek gereziak jasotzeko. Gerezi ugari izaten zen eta amak azokan saltzen zituen.

## **76. Sagar mota ezberdinak (ZES-004/019)**

Etxean izaten zituzten fruta-arbolak. Sagarrondoak eta sagar ezberdinen izenak: errege-sagarra, gazi haundia... Sagarrak makila puntadun batekin biltzen zituzten otarrera.

## **77. Etxeko sagardoa (ZES-004/020)**

Mirenen etxean bazegoen dolarea eta sagardoa egiten zuten. Sagarra makina batean txikitzen zuten.

## **78. Errotara izkutuan (ZES-004/021)**

Gerra denboran, errotak zainduta egoten ziren eta, irina "igotzeko" (ehotzeko) ezkutuan, gauez, aritzen ziren Miren eta ingurukoak. Errota etxetik gertu zuten. Errazionamendua ezagutu zuen eta ogi beltza izaten zen jasotzen zutena; etxean zuria egiten zuten bestea jaterik ez zegoelako; ganaduak ere muzin egiten zioten ogi beltzari. Taloa etxean nola egiten zuten azaltzen du.

## **79. Errazionamendua (ZES-004/022)**

Patataren ordezeko bat edukitzen zuten errazionamenduan. Kanpotik ekarritakoa zen eta boniatoa izena zuen. Kartila batzuk izaten ziren errazionamendurako eta udaletxean partitzen zituzten. Margarita eta beste herritar batzuek aritu ziren errazionamenduko kartilak egiten.

## **80. Morokila eta arto-zopak (ZES-004/024)**

Morokila nola egiten zuten eta zein osagai izaten zituen aipatzen du. Morokila esnearekin bustita jaten zuten gosaltzeko. Arto-zopak ere izaten zituzten baina lehorragoa izaten zen.

## **81. Arto-zuritzea eta gari-jotzea (ZES-004/025)**

Artoa zuritzeko garaian, familian elkartzen ziren eta ganbaran aritzen ziren elkarrekin lanean. Arto-lastoz egindako koltxoak izaten zituzten, nola egiten ziren azaltzen du Mirenek.

## **82. Gari-jotzea (ZES-004/026)**

Auzoko lagunak elkartzen ziren gari-jotzera. Prozesua nola izaten zen azaltzen du eta zein urte sasoi izaten zen.

## **83. Baserriko lanak eta gertaerak (ZES-004/027)**

Baserriko zenbait eginkizun aipatzen ditu: patata ateratzea, arto-jotzea eta abar. Goizean goiz lastargia hartu eta Aizarnara joaten ziren meza entzutera. Etxeratzean, arrautzak eta txerriak prestatu eta gurasoak mezan zeuden bitartean gosalduta egiten zuten anai-arrebek. Orduko pasadizoak aipatzen ditu Mirenek; lehenengo irratia ezagutu zueneko, besteak beste.

## **84. Umetako gaiztakeriak (ZES-004/028)**

Urtean bi txerri hiltzen zituzten baina, beldurra zioten langintza hari. Gerra garaian sardina zaharrak arrautzarekin jaten ziren. Mirenek anaiak oilaskoekin egindako barrabaskeria bat aipatzen du.

## **85. Oilasko biltzeak (ZES-004/030)**

Santa Engraziko, Aizarnako eta Zestoako jaietan oilasko biltzea egiten zen. Goizean goiz bildu eta bailaran baserriz baserri ibiltzen ziren oilaskoak jasotzen. Apaizei urtero ematen zitzairen oilaskoren bat, soroak, etxeak eta abarrak bedekatzearen trukean.

## **86. Festatik etxera ilunpetan, mutilen beldur (ZES-004/031)**

Done Jakue edo Santiago Eguna iristen zenean, mendiz joaten ziren festara eta ilunpetan bueltatzen ziren. Etxera bueltan zetozenean, mutilen beldur izaten ziren.

## **87. Gaztetako ibilerak (ZES-005/002)**

Lagun arteko gaztetako ibilerak eta anekdotak kontatzen ditu.

## **88. Zestoako eta inguruko festak (ZES-005/004)**

Erromeriara Santa Engrazira eta festetara Lasaora joaten ziren; bertsolariak, pilota partidak eta soinua izaten ziren besteak beste. Zestoako Ama Birjinaren jaietan, ezagunak izaten ziren zezenketak. Erromeria berriz goiz aldeko 3ak arte izaten, banda eta musika taldeekin. Pilota partida asko izaten ziren Zestoan eta apaiza pilotan ibili zenekoa kontatzen dute.

## **89. Kanpotarrak etxeetan apopilo (ZES-005/006)**

Udan, egunero izaten ziren pilota partidak. Merenderoan txokolatea txurroekin ematen zuten. Kanpotar ugari herriratzen zen eta etxeetan apopilo hartzen zituzten. Askok ateratzen zuten bizimodua apopiloekin irabazitakoarekin.

## **90. Titiriteroak eta musika kalean (ZES-005/008)**

Kalean animazio handia egoten zen. Titiriteroak ere egoten ziren eta afalondoan plazan eta merenderoan aritzen ziren txandaka. Ikuskizuna ikusteko norberak eramaten zuen etxetik bere aulkia plazara. Ostegun eta igande arratsetan musika egoten zen kalean.

## **91. Zestoako zinea (ZES-005/009)**

Zestoan, zinea Don Emeteriok jarri zuen 18 urte inguru zituztenean Margaritak eta Mirenek. Zinerako zaletasun handia zegoen. Uda batean bota zuten pelikula ezagun baten aipamena eta zer nolako ospea izan zuen aipatzen dute. Bi emanaldi ematen zituzten, arrat partean eta gauean.

## **92. Bainuetxeko ura gibela garbitzeko (ZES-005/010)**

Bainuetxeko ura gibela garbitzeko ona zen eta bertaratzen zen jendeak botiletan eramaten zuen ura etxera. Lurdesko uraren aipamena egiten dute. Zestoako bainuetxeko urak gustu eta usain txarra zuen eta karamelua eramaten zuten, poltsikoan ura edan ostean karmeloia jateko.

## **93. Oilo txanbilaren inguruko pasartea (ZES-005/012)**

Olio txanbil batekin gertatutako anekdota kontatzen dute.

## **94. Umeen gaiztakeriak (ZES-005/013)**

Orduko amaren esanak eta betebeharrak eta umeen gaiztakeri eta zigorrak aipatzen dituzte.

## **95. Kanpai mota ezberdinak (ZES-005/014)**

Kanpai ezberdinak aipatzen dituzte, erre-kanpaia edo su-kanpaia, anjelusetakoak, mezetakoak etab. Hildakoa aberatsa edo txiroa izan, hiletak ezberdinak izaten ziren, jantzi, kanpai eta apaiz kopurua esaterako.

## **96. Hiletak eta ohiturak (ZES-005/016)**

Hildakoaren senitartekoei dirua ematen zitzaien mezan. Hileta ondorenean, tabernan ardo-goxoa eta pastak jartzen ziren. Umeren bat jaiotzen zenean oiloa eramaten zitzaien opari gisa.

## **97. Sagar motak (ZES-006/002)**

Hainbat sagar mota izendatzen ditu: Errege sagarra esaterako. Sagarrak deskribatu egiten ditu.

## **98. Txerri-hiltzea (ZES-006/003)**

Agustin txerri-hiltzeaz ari da, txerri-hiltze bat kontatzen du. Azpeitiko osaba joaten zen beti etxera txerria hiltzeko momentu hura ikustera. Gerra garaian, debekatua zegoen txerria hiltzea eta gauez egiten zen, ezkutuan.

## **99. Txerri-gantza (ZES-006/005)**

Txerri-gantza zer den eta txorizo eta odolkiak nola egiten diren azaltzen dute.

## **100. Ezkontza garaia (ZES-006/006)**

Norbait ezkondu behar zenean, izara, alfonbra eta abarrak prestatzen ziren ezkonsaria emateko Ezkontzen ziren etxe hartara etxeko traste denak astoan hartuta eramaten ziren.

## **101. Ezkongaiantzako ezkonsaria (ZES-006/008)**

Ezkonsariko trasteak eramateko burnizko gurpildun gurdia erabiltzen zuten. Gurdiaren atalak izendatzen dituzte.

## **102. Orduko izarak eta koltxoiak (ZES-006/010)**

Pasadizo bat kontatzen du Romanak. Harizko izarak izaten ziren, ardatzean haria nola kardatzen zuten azaltzen dute. Orduko haria lodia eta zakarragoa izaten zen. Arta-zorroarekin betetako koltxoiak izaten ziren, eta ezin izaten ziren berdindu, gorputzak uzten zuen zuloa geratzen zitzaien.

## **103. Ardi hilezko koltxoiak (ZES-006/012)**

Ardi-hilez koltxoiak egiten zituzten eta urtero eguzkitan goxatu, eskuz libratu eta makilaz astintzen zituzten. Bi makila erabiltzen zituzten; makilek erdian lokarri bat zuten eta haiekin jotzen zuten koltxoa. Hilea jotzeko gailua deitzen zitzaion.

## **104. "Albandorratza" (ZES-006/014)**

"Albandorratza" zer zen eta zertarako erabiltzen zen azaltzen dute.

## **105. Etxean haurra jaiotzen zenekoa (ZES-006/016)**

Etxe batean, haurra jaiotzen bazen, bisita eguna jartzen zen. Anekdotak bat kontatzen du.

#### **106. "Arrantsua" edo "Erreziua" (ZES-006/017)**

"Arrantsua" edo "erreziua" zer izaten zen azaltzen dute eta gaur egun nola esaten den.

#### **107. Otorduetan ardoa eta sagardoa (ZES-006/018)**

Sagardoa eta ardoa potizetik edaten zen astean zehar etxean. Pitxerren neurriak. Ur eskasia izaten zuten eta ardoa errazago edaten zen.

#### **108. Ura "posaderatik" hartzen zuten (ZES-006/019)**

Berrogei egunez urik gabe egon ziren. Horregatik ura biltzeko makinak jarri zituzten. "Posadera" bat zuten ura hartzeko, hormigoizkoa zen.

#### **109. Apaiza eta neskamearen arteko elkarrizketa mezan (ZES-007/003)**

Mezan, apaizak bere neskameari arkumea nola prestatu esan zioneko anekdota kontatzen du.

#### **110. Flemoia eta neska itsusiaren txistea (ZES-007/005)**

Romanak neska itsusi bati buruzko txistea kontatzen du.

#### **111. Umeentzako sehaska-kantak (ZES-007/006)**

Umeei abesten zaizkien sehaska-kanta batzuk abesten dituzte.

#### **112. Bertsoak kantatzen (ZES-007/007)**

Pello Errotaren bertso batzuk eta Santa eskeko abestiak kantatzen ditu Romanak.

#### **113. Belar motak eta haien ezaugarriak (ZES-007/009)**

Belarrei buruz hitz egiten dute: belar motak, izenak, erabilerak...

#### **114. 'Pernando amezketarra'ren txistea (ZES-007/011)**

Pernando amezketarrari buruzko txiste bat kontatzen du Romanak.

#### **115. Belar txarrak eta haien ezaugarriak (ZES-007/012)**

Belar txarrei buruz hitz egiten dute: "uztaua", barrabasa, uxarra belarra, meloia, mirura...

#### **116. Belar onak eta haien ezaugarriak (ZES-007/013)**

Belar onei buruz hitz egiten dute: alpapa, frantses-belarra, pagotsa, bi belarra, hiru belarra...

#### **117. Baserriko tresnei buruzko azalpenak (ZES-007/014)**

Baserriko tresnei buruzko hiztegia lantzen dute: haietako bakoitza zer-nolakoa zen eta zertarako balio zuen aipatzen dute.

### **118. Baserriko tresna zaharrak eta haien izenak (ZES-007/015)**

Gaur egun lehengo tresnak apaingarri gisa erabiltzen direla aipatzen dute. Hainbat tresnari buruz hitz egiten dute, eta deskribatu egiten dituzte: txarrana, bostortza, karramarroa...

### **119. Lehen erabiltzen ziren neurri unitateak (ZES-007/017)**

Neurtzeko erabiltzen zituzten unitateei buruz hitz egiten dute, eta zer balio zuten azaltzen dute.

### **120. Santa eskea eta belarrak bedekatzeari (ZES-007/018)**

Gabonetako eskeari buruz hitz egiten dute; belarrak nola bedekatzeari zituzten azaltzen dute.

### **121. Erreberoaren anekdota (ZES-007/021)**

Erreberoa hitzari buruzko anekdota kontatzen du Ramonak.

### **122. Eskola garaia (ZES-008/001)**

Ibainarrietan jaio zen. Eskolara mojetara joan zen eta, beranduago, San Jose ikastetxera 14 urtera arte. Handik Zumaiaiko profesionaletan ibili zen. Eskolan zebilen garaian biriketako gaixotasun bat izan eta etxean geratu behar izan zuen.

### **123. Topografo, igeltsero eta galdategian lanean (ZES-008/002)**

Hamazortzi urte zituela tarteka topografo bati laguntzen hasi zitzaion eta 7 urtez aritu zen berarekin lanean. Garai hartan, dibujo lineala eskatu zioten lan horretarako. Ondoren igeltsero ibili zen amona zenaren baserria berritzen eta, gerora, galdategi batean hasi zen. Kamioiko karneta atera zuen.

### **124. Ibainarrietako festak (ZES-008/003)**

Ibainarrietako festak maiatzean izaten dira eta aipamena egiten du. Garai batean, Baserritarren Eguna ospatzen zen baina ez zen festarik izaten. Santa Kurutzetan, berriz, jende ugari joaten zen Ibainarrietara eta erromeria egiten zen. Bi taberna zeuden eta dantzari ari zenari sarrera bat kobratzen zitzaion.

### **125. Sagardo motak (ZES-008/005)**

Sagardoa urtero egiten zuten, etxerako. Sagardo asko edaten zuten. Sagardo mota ezberdinak egiteko, sagarra ere hala behar da, sagar gazia sagardo biziarentzat, adibidez.

### **126. Sagardoa eta upel ezberdinak (ZES-008/006)**

Hasierako sagarrekin egindako sagardoa makalagoa izaten da. Lehenago barrika ezberdinetan egiten zen sagardoa: barrika, bujoia eta upela. Haien arteko ezberdintasunak azaltzen ditu.

### **127. Mentuaren arabera, nahi den sagarra lortu (ZES-008/007)**

Sagar txertaketa garaiak eta mentuak aipatzen ditu. Mentuaren arabera lortzen da nahi den sagar hura. Mihura zer den; sagarrari egiten dion kaltea. Neguan karrastarroak jaten du mihura.

### **128. Sagar motak eta berezitasunak (ZES-008/008)**

Sagar mota ezberdinak izendatzen ditu: Errezil-sagarra, San Pedro sagarra, gorri-beltzak, gezak eta abar. Sagar-motaren ezberdintasunak eta sagardoari zer berezitasun ematen dioten azaltzen du. Dolarea estutu eta lehenengo kolpean ateratzen den sagardoari muztioa deitzen zaio eta sagarra txikitutakoari "patxa". "Pittara" lehenengoa izaten zen; lehenengo sagarrak ura nahasita.

### **129. Nekazaritzako belar on eta txarrak (ZES-008/009)**

Nekazaritzarako txarrak diren belarrak izendatzen ditu, adibidez barrabas-belarra eta usta-belarra. Belar onak: alpapa eta abar.

### **130. Sendabelarrak (ZES-008/010)**

Sendabelarrak eta beraien berezitasun eta funtzioak aipatzen ditu: ebaki-belarra, berbena-belarra eta abar.

### **131. Fruta-arbolak (ZES-008/012)**

Fruta-arbolak izendatzen ditu: txermena, muxurka eta abar. Bakoitzak behar duen mantenuaz eta kokalekuaz aritzen da. Lurrari ongarri gutxi ematen zioten, hogeita hamar bat zaku urtean.

### **132. Lurra lantzeko baldintzak (ZES-008/013)**

Lurra lantzeko ilargiaren eraginari eta itsasoko mareari begiratuta gidatzen ziren.

### **133. "Abasto" hitzaren esanahia (ZES-008/015)**

Erdal kutsuko hitz baten jatorria aipatzen du: "abasto".

### **134. Umetako jolasak (ZES-008/018)**

Umetan, kaniketan, txorromorroka eta udaberrian txori-kabi bila jolasten ziren.

### **135. Astoarekin enkarguak egitera (ZES-010/003)**

Joxepa enkarguak egitera joaten zen astoa hartuta. Esnea saltzen ere ibilia da.

### **136. 1919an jaioa Azpeitiko Loiolan (ZES-011/001)**

Bere burua aurkezten du. 1919an jaio zen Azpeitiko Loiolan eta 4 urterekin Iraetara joan zen bizitzera. Senitartekoak aipatzen ditu. 12 urterekin Landetara joan zen morroi 4 urtez eta 18rekin gerrara joan behar izan zuen.

### **137. Gerra denboran soldadu Gasteizen eta Segovian (ZES-011/002)**

Gerra denboran, Gasteizen, Segovian, Valladoliden eta Ferrolen egon zen soldadu, besteak beste. Gerrako ibilerak kontatzen ditu. 50 hilabeteren

ostean, etxera itzuli zen; baina, berehala, berriz deitu zioten eta soldadu itzuli behar izan zuen.

### **138. Umetako entretenimenduak; jolasak, erreka... (ZES-011/003)**

Umetan eskolara joatea baino nahiago izaten zuen lanera joatea. Umetako jolasak; kaniketan jolasten zuten intxaurrekin. Txori habiak harrapatzen eta mantzanilak biltzen aritzen ziren. Errekan eta kanalean bainatzen ziren bazkalondoan lagun artean eta amorrainak harrapatzen ere ibiltzen ziren. Ezagun baten kontuak kontatzen ditu.

### **139. Santa Ines jaiak (ZES-011/004)**

Santa Ines jaiak aipatzen ditu. Meza izaten zen eta erromeria egiten zen. Soinujolea aipatzen du. Herri-kirolak ez zen izaten orduan, geroago hasi zen ohitura hori.

### **140. Zumaian eta Iraetan lanean (ZES-011/006)**

Zumaian eta Iraetan ibili zen lanean 4 urtez eta gero ezkondu egin zen.

### **141. Ordua jakiteko eguzkiari begiratu behar (ZES-011/008)**

Orduan erlojurik ez zuten izaten eta eguzkiari begiratuta gidatzen ziren. Etxeko erlojua bazuten, baina poltsikokorik ez. Kanpaiak eta "etxaferuak" aipatzen ditu.

### **142. Zestoako bainuetxean, erromeria Karmengo egunean (ZES-011/010)**

Bainuetxera joaten zen jendea hoteletan eta etxe partikularretan egoten zen. Ezagunak eta etxeakoak aipatzen ditu. Zenbaitetan, hogeitaka lagun ere bildu izan ziren etxe partikularretan. Ezagun baten inguruko anekdota bat aipatzen du. Karmengo egunean, bainuetxean erromeria izaten zen eta gogoan du oilaskoa nola jaten zuten.

### **143. Gorputz-bideak; kandelaren argitan goizeko mezara (ZES-011/011)**

Orduan auzolan ugari egiten zen. "Gorputz-bideak" zer ziren azaltzen du, bide zidorrak. Ezagunen inguruko kontuak. Baserri bakoitzak bere "gorputz-bidea" izaten zuen. Mezara goizeko seietarako joaten ziren; bat etxeako lanak egiten geratzen zen eta etxeako besteak mezara. Kandelaren argitan joaten ziren mezara.

### **144. Ikatza nola egiten zen (ZES-011/012)**

Egur-ikatza etxetik gertu egiten zuten. Ingurukoak ikusten zituen ikazkin lanetan; ikatza nola egiten zen azaltzen du. Etxean ekonomika izaten zuten eta toki askotan beheko sua ere bai. Soldadu joan zirenean, mando simaurrarekin egiten zuten sua Valladoliden.

#### **145. Belar txarrak eta sendabelarrak; gaixotasunak (ZES-011/013)**

Nekazaritzako belar txarrenak barrabasa, uztaua eta almitza dira Tiburtzioren ustez. Katarroarentzat berbena, pasmoa eta itur-belarra. Ardien gaitzak aipatzen ditu. Garai hartan ez zen txertorik izaten. Inguruko ezagunen kontuak eta gaixotasunak.

#### **146. Etxeko sagardoa eta sagar-motak (ZES-011/014)**

Tiburtzioren etxean sagardoa egin ohi zuten. Etxekoek eta auzokoek lagunduta egiten zuten sagardoa. Errege sagarra, libra sagarra, txorten luzea eta beste zenbait sagar mota aipatzen ditu. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Sagarrak biltzera 3-4 neska joaten ziren etxera eta gero sagarrak saldu egiten zituzten, kiloa 3 pezetatan.

#### **147. Pinuak sagastien etsai (ZES-011/015)**

Sagarra galdu egin da, zuhaitzik ez landatzeagatik. Sagarra bi urtean behin izaten zen orduan eta zaintzen baziren ere ez zuten ikasketarik behar ondo zaintzeko. Gaur egungo sagardoaren inguruko kontuak. Pinuak eta pinu zomorroak kalte handia egiten diote sagar-arbolari.

#### **148. Baserriak gainbehera (ZES-011/016)**

Baserria galzorian ikusten du; garai batetik hona inguruko baserriak hutsik daude. Auzotarren inguruko kontuak.

#### **149. Errazionamendu garaian, txerri-urdaiarekin egiten zuten koipea (ZES-011/020)**

Olio errazionamenduan izaten zuten eta urdaiarekin koipea egin eta patata frijituak edo bestelakoak egiteko erabiltzen zuten. Gobernuak txerria hiltzea debekatu egin zuen eta gauez aritzen ziren txerria hiltzen.

#### **150. Orduko hozkailua: gazi-kutxa (ZES-011/022)**

Garai batean janaria mantentzeko ez zen hozkailurik izaten eta gazi-kutxan gazitzen zituzten. Eguzkiak jotzen ez zuen aldean sareakin babesten zuten janaria freskatzeko. Gerra-denboran, poteko tomatadun haragia jaten zuten eta gorroto zuen. Gerran, mendian zeudenean jaten zuten ondoen.

#### **151. Militar, apaiz eta serorei garia entregatu behar (ZES-011/024)**

Militarrei garia eta baba gorria entregatu behar izaten zitzairen; apaizei eta serorei ere eman behar izaten zitzairen.

#### **152. Kanpai-motak; klase desberdinetako hiletak (ZES-011/025)**

Goizean "matutiya" seiak eta erdietan, zazpietako mezan "txili&ntilde;a" eta hamabietan "baba naboriya" izaten ziren eta iluntzeetan erromeria bukaeran angelus-kanpaia izaten ziren. Ostiral Santuan hil-kanpaia jotzen zen. Kanpai mota ezberdinak aipatzen ditu. Aberats eta pobreen hiletetako mezak ezberdinak izaten ziren, aberatsenek kantu eta apaiz gehiago izaten zuten.

### **153. Neska-laguntzera oinez (ZES-011/027)**

Orduan gauean trena izaten zuten, baina oinez ibiltzen ziren lagunartean eta andregaiekin. Neska-laguntzeak urrutira egiten zituzten eta goiz erretiratzen ziren. Anaiaren eta ezagunen inguruko kontuak.

### **154. Ibainarrietako erromeria (ZES-011/028)**

Ibainarrietako erromeria aipatzen du; jende asko joaten zen eta soinu-jolea egon ohi zen. Orduan erromeria ugari egiten zen.

### **155. Azokara Zestoara eta Azpeitira (ZES-011/032)**

Azokara Zestoara eta Azpeitira joaten ziren. Asko ziren pattarra aldean hartuta joaten zirenak azokara eta afari-legea eginda etxeratzen zirenak. Jatorduan ez zen kaferik edaten, barra ertzean hartzen zen kafea.

### **156. Bidea egin zutenekoa (ZES-011/034)**

Orduko bideetan harri-koskorrak eta lokatza izaten ziren eta alpargatak jantzita joaten ziren. Etxeko jakiak aipatzen ditu. Bidea auzolanean egin zuten eta hura egin zutenean ospatzeko afaria egin zutenekoa kontatzen du.

### **157. Etxea egindakoan, "ostrokua" deituriko ospakizuna (ZES-011/035)**

Etxeei teilatua egindakoan "ostrokua" deiturikoa egiten zuten, afaria izaten zen ospatzeko.

### **158. 1952an Zestoan jaioa (ZES-012/001)**

1952an jaioa Zestoan. Ama aizarnarra eta aita zestoarra; 6 anai-arrebako sendikoa.

### **159. Eskola nazionaletan 'Cara al Sol' abestu behar (ZES-012/002)**

Eskolara Zestoako eskola nazionaletara joan zen. Neskak eta mutilak bereizita ikasten zuten eta bost urtetik 14ra bitartean adin guztietakoak batera ikasten zuten. Irakasle bakarra zuten, kanpotarra, eta erdaraz ikasten zuten. Bandera espainiarra ate ondoan izaten zuten eta Cara al Sol kantarazten zieten. Etxean bakarrik egiten zuten euskaraz, lagunartean ere erdara erabiltzen zuten.

### **160. 14 urterekin eskola utzi eta estankoan lanean (ZES-012/004)**

Denetik ikasten zuten eskolan: historia, matematika, geografia, etab. Arratsaldeetan eskulanak egiten zituzten. 14 urterekin eskola utzi eta estankoan hasi zen lanean.

### **161. Umetako plazako jolasak (ZES-012/006)**

Umetan plazan jolasten zuten kukuka, harrapaketa, sokasalto, etab. Jokoen nondik norakoak azaltzen ditu.

### **162. Neskak eta mutilak aparte; Zestoako zinema (ZES-012/007)**

Neskak neskekin eta mutilak mutilekin ibiltzen ziren. 16-17 urterekin hasi ziren Zarautz aldera ateratzen. Zestoan zinea egoten zen igandeetan eta 3 pezeta

ordainduta hara joaten ziren. Hasieran pantaila bat soilik izaten zen eta gerora jarri zuten benetako zinema.

### **163. Udarako aisialdiko ekintzak (ZES-012/008)**

Udaran zirku antzeko antzezlanak egiten zituztenak joaten ziren herrira eta bakoitza etxetik bere aulkia hartuta joaten zen ikustera. Pilota partiduak udaran egunero izaten ziren eta berbenak ere egiten ziren.

### **164. Ama Birjinetako jaiak, San Joseak eta Santa Kurutz festak (ZES-012/009)**

Zestoako Ama Birjinetako jaietan zezenak izaten ziren eta amonaren etxeko balkoitik ikusten zituzten. Kanpoko musika taldeak joaten ziren. 12etarako etxera joaten ziren. San Jose jaietan bizikletaz zinta karrera egiten zuten mutilek. Santa Kurutzetan afaria egiten zen, karrozetan ateratzen ziren eta danborrada ere egiten zen.

### **165. Zestoako bainuetxera kanpotarrak (ZES-012/010)**

Zestoan bainuetxea zegoen eta kanpotar ugari joaten zen. Zestoako ura osasunarentzat ona zela esaten zuten. Kanpotarrak errentan egoten ziren etxeetan.

### **166. Sakamantekasen ipuinak (ZES-012/011)**

Sakamantekasen inguruko ipuin eta kontuak. Barrerak ateratzen zirenekoa. Buruhaundiak izaten ziren orduan ere festetan.

### **167. Korrika lasterketetan (ZES-012/012)**

Denbora librean mendira joaten ziren eta udan hondartzara. Herri inguruan ibiltzen ziren. Txikitatik izan du korrikarako zaletasuna eta San Jose egun batean atera zen lasterketa batean. Jende aurrean korrika aritzeak lotsa ematen zion hasieran.

### **168. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen (ZES-012/018)**

Lehenengo zigarroa gabon batzuetan erre zuenekoa. 15 urte inguru izango zituen. Lehenago emakumeak ez ziren tabernara sartzen 19 urtera arte. Etxean eguerdietan ardoa edaten zuen.

### **169. Eskolan Zestoako Mixerikordian (ZES-015/002)**

Eskolan Zestoako Mixerikordian, mojetan ibili zen 14 urtera arte. Dotrina, geografia, historia eta eskulanak ikasten zituzten, besteak beste. Egunero ordubete izaten zuten arratsaldetan, bordatzen ikasteko eta adinaren arabera irakasle ezberdina izaten zuten.

### **170. Zazpi urterekin jaunartze txikia eta bederatzirekin handia (ZES-015/003)**

Zazpi urterekin egiten zen jaunartze txikia eta bederatzirekin handia. Mojek prestatzen zituzten jaunartzea egiteko, eta dotrina ikastera Zestoako elizara joaten ziren.

### **171. "Estudios primarios"-eko titulua (ZES-015/004)**

Zestoan mutilak maristetan eta neskak beste eskola batean ibiltzen ziren. Akua auzokoak eta Zestoako gehienak Joxeparen eskola berera joaten ziren.

14 urterekin "estudios primarios"eko titulua atera behar izaten zen eskola bukatzeko eta Madre Superiora eta apaizak egiten zuten azterketa.

### **172. Eskola bukatzean, josten ikasi eta neskame lanetan (ZES-015/005)**

14 urterekin eskola bukatzean, neguan josten ikastera joaten zen, eta udan neskame egoten zen. Eskola ordaindu egin behar izaten zuten. Anekdotak bat kontatzen du, eskola ordaintzeko emandako dirua galdu zutenekoa.

### **173. Orduko eskola ordaintzea garestia zen (ZES-015/006)**

Bost durokoak paperezkoak ziren, urdinak. Asko balio zuen orduko bost durok eta 3 anai-arreben eskola huraxe ordaintzen zuten. 12 senide ziren. Eskola orduetan ordulaurden izaten zuten idazteko makina erabiltzen ikasteko eta hura ere ordaindu egin behar izaten zen.

### **174. Umetako jolasak: erten-ertenka, obaloka... (ZES-015/007)**

"Erten-ertenka", "obaloka", eta "pañuelitos"-ka jolasten zuten, besteak beste, eta jokoen kantuak erdaraz kantatzen zituzten. Ez zuten jolaserako asti handirik izaten, ume zain edo etxeko lanak egiten aritu behar izaten zuten.

### **175. Baserriko lanak; garia eta artoaren inguruko lanak (ZES-015/008)**

Eskolara joan gabe askotan geratzen ziren aitari "ittulan" laguntzeagatik eta ume-zain ere egon behar izaten zuten. Gari-jotzea eta garbitzea nola egiten zuten ezagutu zuen etxean eta nola egiten zen azaltzen du. Artalorea, artagaina eta maizorria ganaduarentzat egitea zer den eta artoaren inguruko azalpenak ematen ditu. Artazuritzen eta arto maluta biltzen aritzen ziren, arto malutekin koltxoiak egiten ziren.

### **176. Lurra goldatu eta jorratu (ZES-015/009)**

Joxepa goldearekin aritzen zen jorran, baina ama laiarekin aritzen zen. Lurra nola lantzen zuten azaltzen du.

### **177. Txerri-hiltzea; sagardoa egitea (ZES-015/010)**

Umea zela txerri-hiltzea ezagutu zuen etxean. Sagardoa ere egiten zuten eta sagardo patxaren inguruko kontuak aipatzen ditu.

### **178. Zestoako Irure Hotelean neskame (ZES-015/011)**

Neskame joan zen Irure hotelera eta 3 uda pasa zituen bertan lanean. Oheak eta etxeko lanak egiten zituzten. Garai hartan lurra belauniko garbitzen zuten. 4-5 neska aritzen ziren lanean eta jende asko izaten zen.

### **179. Zestoako bainuetxean lanean (ZES-015/012)**

Hoteleko lana bukatzean bainuetxera joan zen lanera. Udaran 700 lagun aritzen ziren lanean. Ez ziren bainu-txorroak gaur bezalakoak izaten. Denentzat lan ezberdinak izaten ziren eta Joxepa sukaldeko mantelak eta kubiertoak antolatu eta logelak garbitzen aritzen zen. Astean behin arratsalde bat jai izaten zuten eta orduan joaten ziren etxera. Hotelean aritu zenean ez zuen jairik izaten.

### **180. Lan-baldintzak hobetzen (ZES-015/013)**

4etan lanak bukatzean mahai-tresnak jaso eta ordubeteko tarte izaten zuten siestarako; iluntzean berriz ere 12ak aldera arte lana izaten zuten. Goizean 7 eta erdietan jaikitzen ziren, baina Kontxak nahiago zuen hango lana Hotelean aritu zenekoa baino. Beraien logelan denetik izaten zuten euren beharretarako, etxean bezala.

### **181. Umetatik neskame etxetik kanpo (ZES-021/002)**

Umetatik hasita kanpoan ibiltzea suertatu zitzaion amari batere gustatzen ez zitzaion arren. Irunen, Santanderren, Elgoibarren eta Donostian egon zen, besteak beste. 13 urte egin zituen kanpoan.

### **182. Irunen neskame (ZES-021/003)**

9 urterekin hasi zen neskame lanetan Irunen; bertan egiten zituen lanak aipatzen ditu. Tailer handi bat zeukaten nagusiek eta han laguntzen aritzen zen.

### **183. Umetako Zestoa (ZES-021/004)**

Umea zenean, Zestoa nolakoa zen azaltzen du. Orduan ez zen autorik eta Azpeitiko mutil bat ibiltzen zen "kotxero". Pasadizo bat kontatzen du.

### **184. Poltsa lapurreta batekoa (ZES-021/005)**

Bi pasadizo kontatzen ditu: Donostian paseoan zebilela, andre bati poltsa lapurtu ziotenekoa; eta, udan, anaiak zuen depositu batera erori zenekoa.

### **185. Ikastolako irakasle eta erizain (ZES-021/007)**

Santandertik etxera bueltatu eta ezkondu egin zen. Orduan hasi ziren ikastolak eta irakasle postua eskaini zioten. Donostiako Lizeora joan zen ikastola ikustera eta handik hasi zen maistra lanetan. Pepitak erizain izan nahi zuen, eta auxiliar titulua atera zuen. Gaixo zegoen mutil bati indizioak jartzera nola joaten zen azaltzen du.

### **186. Jostun eta neskame Donostian (ZES-021/010)**

Josten aritzea gustatzen zitzaion eta, ahizpak uzten ez bazion ere, oso ume zela lehengusu baten bidez Donostiara joan zen eta neskame eta jostun hasi zen bertako etxe batean. Etxeko nagusia gaixotu eta medikuak hari indizioak jartzen erakutsi zion.

### **187. Umetako jakinduria eza (ZES-021/013)**

Egin berri duen amets bat kontatzen du. Umetan lagunak berak baino mundu gehiago ikusiak ziren; Donostiara joan zenean hasi zen bizimoduaren berri ikasten.

### **188. Ikasle batekin gertatutakoa (ZES-021/014)**

Ikasteko gogorik ez zuen ikasle batekin gertatutako anekdota bat kontatzen du.

### **189. Donostiako eskolako ikasleak (ZES-021/016)**

Donostian ikasle izan zituen azpeitiar eta azkoitiarren aipamena egiten du, eta anekdota bat kontatzen du.

### **190. Irakasle zela gertatuak (ZES-021/018)**

Irakasle batzuekin gertatutako pasadizoak kontatzen ditu.

### **191. 17 urterekin Zestoako bainuetxera (ZES-022/002)**

17 urterekin maleta hartu eta bi hilabeterako joan zen bainuetxera. Abentura bat zen beraientzat, 11 neska zestoar joan ziren.

### **192. Bainuetxeko lana (ZES-022/003)**

Bainuetxeko neskameen janzkera nolakoa zen azaltzen du. Jangelarako eta tabernarako jantzi ezberdina izaten zuten. Egun osoko lana izaten zuten eta ganbaran zituzten beraien logelak. Astean behin izaten zituzten ordu batzuk jai.

### **193. Alameda hoteleko dendan lanean (ZES-022/004)**

Juanita 1945ean Alameda hoteleko denda batean hasi zen lanean. Ondoan gizonezkoen bizartegi bat, zapata garbitzailea, manteleria saltzailea, korreoa eta abar zituen. Juanitak kristalezko galtzerdiak, koloniak eta beste hainbat gai saltzen zituen, opariak.

### **194. Uniforme gabe zeudenak ezkutuko atetik (ZES-022/005)**

Neskame zeudenei ez zieten uniforme gabe ibiltzen uzten hoteleko jendearen aurrean; uniforme gabe zeudenean ezkutuko ateetatik ibiltzen ziren. Jende aberatsa ibiltzen zen eta ez zen inor gaizki jantzita ibiltzen. Gorbata gabe joanez gero ez zieten jangelara sartzen uzten.

### **195. Bainuetxeko tarifak 1907an (ZES-022/006)**

1907an bainuek zituzten prezioak azaltzen dituzte.

### **196. Zestoako hotelak; kanpotar ugari herrian (ZES-022/008)**

1917an Zestoan zeuden hotelak izendatzen dituzte. Etxe partikularretan apopilo jende ugari hartzen zuten. Zestoako bainuetxean tren estazioa zegoen eta Margaritaren aita aritzen zen astoa hartuta maletak eramaten.

### **197. Jende ospetsua bainuetxean (ZES-022/009)**

Egunean hirutan aldatzen ziren bainuetxeko bezeroak; soineko luzeak eramaten zituzten emakumeek, oso dotoreak ziren. Jende ospetsu ugari bertaratu zen eta haietako batzuk izendatzen dituzte, toreatzaileak, kondeak eta markesak, besteak beste. Propina gisa dirua edota ohialak utzi ohi zizkieten neskameei.

### **198. Medikuek gomendatutako ura (ZES-022/010)**

Ura hartzera bertaratu ezin zirenek ur botilak erosten zituzten. Trenean edo autoz joaten ziren ur bila. Botikan ere saltzen zen bertako ura eta medikuek gomendatua izaten zen. Bi iturri zeuden gibelerako eta giltzurrunetarako onak zirenak.

### **199. Bainuetxeko urterik onenak; neska gizenak ederrenak (ZES-022/011)**

1961etik 1963ra oso urte onak izan ziren eta bainuetxean 80 zerbitzari, 20 bat sukaldari eta beste zenbait lagun beste zerbitzuetaarako egoten ziren. 1968an 30 erreal balio zituen egonaldi garestienak. Garai hartan neska ederrenak gizenak izaten ziren. Otorduetan bainuetxean zer jaten zen azaltzen dute, "langosta a la Americana" esaterako.

### **200. Zezenak eta pilota partidak (ZES-022/012)**

Bainuetxera joaten ziren kanpotarrek neskamea eta txoferra eramaten zuten beraiekin. Bazkalondoan zezenetara edo pilota partidak ikustera joaten ziren. Pilota partidak udan egunero izaten ziren.

### **201. Bainuetxeko gonbidatuen kotxeak (ZES-022/014)**

Bainuetxeko gonbidatuen kotxeak deskribatzen ditu.

### **202. Zestoako uren kalitate ona (ZES-022/018)**

Leku ezberdinetako bainuetxeen urak aztertu eta lehiaketak egiten zituzten; Zestoako bainuetxeak sari asko irabazi zituen. Epela, gazia eta mikatza zen bertako ura. Hiru basokadako neurria izaten zen ona eta komunera joateko larria ematen zuen ur horrek.

### **203. 15 urte zituela Donostiara neskame (ZES-023/001)**

15 urte zituela Donostiara joan zen jostun batengana neskame lanetara. Autobusez joan eta festetan eta gabonetan soilik bueltatzen zen etxera. Denbora luzez egon zen bertan.

### **204. Zestoako kooperatiba (ZES-023/003)**

Donostiatik etxera bueltatu eta berehala ama hil zitzaion eta ahizparekin jarri zen bizitzen. Kooperatiba dirua galtzen hasi zenean ahizpa hasi zen bertan lanean eta 31 urte egin zituen. Kooperatiba eta bertako sozioen inguruko kontuak kontatzen ditu.

### **205. Herriko dendak (ZES-023/004)**

Herriko denda ezberdinak izendatzen ditu. Garai bateko familiak gaur baino handiagoak izan ohi ziren.

### **206. Argizaria, txokolatea, lixiba eta gaseosa egiten zituztenak (ZES-023/005)**

Kooperatiba itxi zenekoa. Elortza deituriko lokalean argizari eta txokolatea egiten zuten. Iriondonekoek lixiba eta gaseosa egiten zuten. Manuelaren ahizpa ere hantxe aritu zen lanean.

### **207. Neskek debekatua tabernara sartzea edo prakak janzteak (ZES-023/009)**

Neskak ez ziren tabernara sartzen, debekatua zuten; prakarik ere ez zuten janzten.

## **208. Zestoako azoka (ZES-023/010)**

Azoka egunez jende ugari elkartzen zen Zestoan. Saltzaileak izendatzen ditu. Anekdotak bat aipatzen du. Azpeitia eta Urrestilla aldeko jendea joaten zen saltzera. Oinez ibiltzen ziren astoa hartuta. Emakumeek etxeko jakiak saldu edo erosten zituzten eta gizonak ganadu edo bestelakoen tratuan aritzen ziren.

## **209. Ogia urri; jatorduetan babak (ZES-023/011)**

Okindegiak izendatzen ditu. Azpeititik Zestoara ogia saltzera joaten zena izendatzen du. Ogia ez zuten egunero jaten. Jatorduetan baba gorria jaten zuten gehienetan odolkiekin. Izeba batek txorizoak egiten zituen eta haren inguruko kontuak azaltzen ditu.

## **210. Kanpotarrak Zestoako hotel eta bainuetxera (ZES-023/012)**

Kanpotar ugari joaten zen herrira bainuetxea zela eta. Jende aberatsa egoten zen. Hotel bat baino gehiago zegoen herrian eta izendatu egiten ditu. Nafarroa aldeko uzta-biltzaileak abuztu aldera joaten ziren Zestoara uzta garaia bukatzean.

## **211. Herrian erdaraz hitz egiten zen (ZES-023/013)**

Herrian erdara asko entzuten zen. Azpeitiko neskek ez zuten erdaraz ondo egiten, baina Manuelak umetatik ikasi behar izan zuen kanpotarrak zirela eta.

## **212. Kanpotar aberatsak herrian (ZES-023/016)**

Dantzaldia egoten zen eta kanpotarrak pasodobleak dantzatzen aritzen ziren. Obispoa eta jende garrantzitsua joaten zen herrira.

## **213. Arropa josten aritu zenekoa (ZES-023/017)**

Jendeak josteko lana ematen zion Manuelari. Argazkietatik begiratu eta arropa josten aritzen zen. Ehuna Azpeitian edo Donostian erosten zuen.

## **214. Mojetan ikasten eta tela-lantegian lanean (ZES-023/020)**

6 urterekin ikasi zuen idazten; 10 urte zituztenerako, matematika ikasten zuten orduan. Moja Ursulinetan ikasten zuen eta diktaketak egiten zituzten. Enkarguak egitearen ordainetan, eskola dohainik ematen zieten. Anekdotak bat kontatzen du, letra txarra omen zuen. Zakuak egiteko tela egiten zuten lantegi batean ibili zen lanean Donostiara josten ikastera joan aurretik.

## **215. Zestoako eskola eta irakasleak (ZES-023/021)**

Zestoan mojak, "maestra" (eskola nazionalakoa) eta maisua zeuden eskola emateko. Mojen eta nazionalen arteko ezberdintasunak azaltzen ditu. Ezagun batzuen aipamena egiten du.

## **216. Gosea zela-eta kontrabandoan (ZES-023/024)**

Gerra garaian gose handia izan zen, janik ez zuten eta lurra ez zenez lantzen mixeria izan zen. Kontrabandoa egiten zen, txokolatearena eta beste zenbait produktura.

### **217. Bainuetxea ospitale bihurtu zuten gerra denboran (ZES-023/025)**

Zestoan kartzela egon zen, eta gurutzea ere bai frontoi ondoan. Errazionamendua egon zen, eta jana ondo neurtuta jan behar izaten zuten. Bainuetxea ospitale bihurtu zuten gerra denboran, eta orduko kontuak kontatzen ditu. Zestoako jendeak Frantzia aldera alde egin zuen.

### **218. Herriko emakumeak frontean zeuden soldaduen arropa garbitzen (ZES-023/026)**

Herrian geratzen ziren emakumeak lanera joaten ziren frontekoen arropa garbitzera. Zestoarrek soldaduekin bazuten harremana. Anekdotak bat kontatzen du soldaduen inguruko kontuak irratian entzun zituztenekoa.

### **219. Herri osoan hiru irrati (ZES-023/027)**

Herrian hiru irrati zeuden, eta nortzuk zituzten aipatzen du; telebistarik ez zegoen.

### **220. Frontera joandakoak herrira itzuli zirenekoa (ZES-023/028)**

Kanpora frontera joandako jendea itzuli zenekoa kontatzen du. Beldurra zuten kartzelan sartuko ote zituzten; anaia ere beldurrez ibili zen, 7 urte kanpoan egin zituen. Itsasontzietan joan zen jendea ihesean. Frantzia eta Alemaniaren arteko gerratearen inguruko kontuak eta ihesean joandakoenak.

### **221. Herritar eta soldaduen arteko harremana (ZES-023/030)**

Herriko politikaren inguruko kontuak. Soldaduak kalean ibiltzen ziren herriko neskekin hitz eginez; zestoarrekin ezkonduko soldaduak baziren. Izendatu egiten ditu.

### **222. Urolako trena martxan jarri zenekoa (ZES-023/031)**

Urolako trena martxan jartzeko kanpoko jende ugari aritu zen lanean. Inauguratu zenean Donostian zegoen Manuela eta ez zuen ikusi. Arratsaldean atera eta iluntzean bueltatzen ziren etxera, aurrerapen handia izan zen. 3-4 pezeta balio zuen treneko bidaiak.

### **223. Errotak prezintatuta (ZES-023/033)**

Zestoako okindegiek bazuten errota; Iraetan ere bai, baina gerraostean prezintatuta zeuden eta ezkutuan ehotzen zuten irina. Arto-irina eta taloa jaten zituzten.

### **224. Hoteletako lanari esker emakumeak bizimodua ateratzeko modua (ZES-023/034)**

Hotelek ematen zien bizimodua ateratzeko lana emakumeei.

### **225. Eskolara joan beharrean, etxean lanean (ZES-025/003)**

Etxean ganadua zuten eta ez zuten eskolara beti joaterik izaten, haiek zaintzen eta etxeko lanak egiten geratu behar izaten zutelako. Anekdotak bat aipatzen du. Garai batean, konformidade handiagoa zegoen; gaur baino errazago asetzen ziren edozerekin.

## **226. 17 seme-alaben ama (ZES-025/005)**

17 seme-alabaren ama da. Dutxarik ez zuten eta lokatzez egindako umeak arraskan garbitzen zituen. Urte batean bi ume izan zituen eta biekin batera lo egiten zuen. Haurdunaldiko kontuak kontatzen ditu.

## **227. Umea izan ondoren teila buruan zutela kalera "elizan sartu" arte (ZES-025/008)**

Ama ez zuen ezagutu, baina bai amaordea. Umea izan ondoren, kalera ateratzerako, teila buruan zutela elizara joan behar izaten zuten emakumeek lehenengo.

## **228. Otorduetan denek batera jaten zuten (ZES-025/010)**

Otorduetan denak batera jartzen ziren mahai batean. Ondarroako emakume batek arraina eramaten zion etxera.

## **229. Auzoko ume bati ere eman zion bularra (ZES-025/012)**

Lehenengo semea izan eta berehala kanpoko ume bati bularra eman eta hura hazten aritu zen.

## **230. 21 urterekin ezkondu eta Bilbora ezkonbidaian (ZES-025/014)**

21 urterekin ezkondu zen. Ostegun batez ezkondu eta hiru egunerako Bilbora joan ziren ezkonbidaian. Ezkontzako zapaten inguruko anekdota bat kontatzen du.

## **231. 16-17 urtera arte ez zuen kalerako gogorik izan (ZES-025/015)**

Ez zitzaion ateratzea gustatzen, nahiago izaten zuen ganadua zaindu eta amari laguntzea. 16-17 urterekin hasi zen ateratzen eta Urtetara joaten zen. Eskola ere hantxe zuen.

## **232. Umeak soro bazterrean utzi eta artajorran (ZES-025/016)**

Umeak soro bazterrean utzi eta artajorran aritzen zen. Umeak berarekin ibiltzen zituen eta halaxe ikasi zuten lanean. Aiara joaten zen astoa hartuta etxerako irina ekartzera, ogia eta taloa egiteko.

## **233. Gerra-ostean ez zuten goserik pasa (ZES-025/017)**

Baba gorri-beltza, ilarrak, bainak eta abar egiten zituzten etxean. Erazionamendu garaian ogi gogorra eta janari eskasa jasotzen zuten. Urtean bi txerri hiltzen zituzten eta ez zuten goserik pasa.

## **234. Astoak jo zuenekoa (ZES-026/002)**

3 urte zituela, astoak kopetan jo eta Don Benantzio medikuak puntuak eman zizkionekoa; nola gertatu zen azaltzen du.

### **235. Arteagoikoa baserrian jaioa (ZES-026/003)**

Arteagoikoa baserrian "Ertxina"n jaio zen. Familia izendatzen du. Aitak eta aitonak meategian lan egiten zuten, eta eguneko zazpi pezeta irabazten zituzten. Baserrietako seme asko joaten zen kanpora ikazkintzara lanera. Eurena baserri txikia zen eta lau behi izaten zituzten.

### **236. "Hiraulika" lantegirako ikatza ateratzen meatzean (ZES-026/004)**

Aitona meategiko enkargatua zen. Minatik "hiraulika" (kare hidraulikoa) lantegirako ikatza ateratzen zen. 14 urte zituela hasi zen Joxe meatzean lanean. Herriko mutil gehienek gerrara joan behar izan zuten eta meatzerako langile faltan egon ziren. Laneguna nola pasatzen zuten azaltzen du.

### **237. Umetatik aitarekin meategira (ZES-026/005)**

Meategian lanean hasi zeneko kontuak kontatzen ditu. Joxe aita eta anaiarekin aritu zen lanean meatzean; aitarekin umetatik joaten ziren eta lanean hasterako ondo ezagutzen zuen meategia. Ez zuten ez segurtasun tresnarik ez eta arropa berezirik izaten.

### **238. Meategiko janzkera eta lan-baldintzak (ZES-026/007)**

Autoen gurpilekin egindako zapatak edo abarkak erabiltzen zituzten, eta praka "bonbatxoak" zakuz eginak izaten ziren. Meategian tenperatura onean lan egiten zuten beti. Istripuz hildako batzuk aipatzen dituzte. Aizarnako meategiak ezberdinak ziren; ezberdintasunak aipatzen ditu. Lepo otarrei azpian txapa jarrita aritzen ziren ikatza eramaten.

### **239. Meategiak eta "hiraulika" lantegiak (ZES-026/008)**

Meategiak eta "hiraulika" (kare hidraulikoa) lantegiak izendatu eta kokatzen ditu; meategi gehienak Ertxiendian kokatzen ziren. Joxeren aitona galdaragintzan aritu zen lanean. 8 urte egin zituen meatzean lanean.

### **240. Meategiko enkargatu (ZES-026/010)**

Iraetan meategiko enkargatu jarri zuten. Orduko kontuak eta han egindako lanak aipatzen ditu. Meategiko bulegoak; lana hartzeko nondik-nora jo behar izaten zuen azaltzen du.

### **241. Militarizazioa (ZES-026/011)**

Militarizatu zen garaiko kontuak kontatzen ditu. 712 pezeta irabazten zituen hilean eta 26 mutilen kargua zuen.

### **242. Soldadutzara ez joateagatik ordaindu (ZES-026/013)**

Militarizatutako garaian enpresak ordaintzen zien langileei. Jendeak ordaindu egiten zuen soldadutzara ez joateagatik, eta diru hori enpresariari ematen zitzaion estraperloan.

### **243. Meategiko mantenimenduan eta perratzaile lanetan (ZES-026/015)**

1946an utzi zuen meategia eta aitak jarraitu zuen. Soldadutzatik libratu zenean errementari lana ikastera bidali zuten Azpeitira eta ondoren etxean perratokia jarri zuen. Gero meategiko mantenimendua eramaten zuen eta

arotz lanetan ere aritzen zen meategian bertan. 800 metroan ikatza garraiatzen zuten otarretan, kable bidez.

#### **244. Lanbide ezberdinak probatua (ZES-026/016)**

Egin izan dituen lan desberdinak: arotz lanetan bere zerra lantegian, autoetako karrozeria konpontzen eta, azkenekoz, okindegia hartu eta bertan hasi zen lanean. Autoen ate korredera berak asmatu omen zuen lehendabizikoz; nola gertatu zen azaltzen du.

#### **245. Gurasoek etxeko lanetarako behar zuten (ZES-026/018)**

Kargu altukoek eurekin lanean hasi eta autoen ate korrederak patentatzeko eskatu arren, aitzak ez zion utzi haiekin lanean hasten, etxean behar zuela eta. Lantegia jarri eta nagusi haiek hasi ziren ate korrederak jartzen.

#### **246. Okin lanetan erabilitako autoa (ZES-026/019)**

Okin lanetan ibili zenean zuen autoa deskribatzen du, motor handikoa eta ate korrederarekin. Toreatzaileek erabiltzen zuten halako kotxea. Material gehiena egurra zuen.

#### **247. Citroen 8205aren karrozeria egin zuenekoa (ZES-026/020)**

Okindegi zaharreko Citroen 8205ari karrozeria egin zionekoa kontatzen du. Manibelarekin arrankatzen zen.

#### **248. Aitonak kontatutako Karlstadetako kontuak (ZES-026/022)**

Aitonak kontatutako Gerra karlistako kontuak aipatzen ditu. Garate gainean frontea izan zenean aitona 14 urterekin bertara.

#### **249. Aizarnako kanoikadak, soldaduen lapurretak... (ZES-026/023)**

Aitonaren gerrako ibilerak kontatzen ditu, kanoikadak... Ertxinako paretak gerra garaian eginak dira. Soldaduek lapurretan egiten zutenekoa eta etxeko pertza kendu zietenekoa kontatzen ditu.

#### **250. Soldadu frantziarren pasadizoak (ZES-026/025)**

Aitonak kontatutako soldadu frantziarren pasadizoak.

#### **251. Danbolinzulo bilatu zutenekoa (ZES-026/028)**

Aitonak eta lagun batek Danbolinzulo bilatu zuten. Izenaren jatorria.

#### **252. Aitonak kontatuak (ZES-026/031)**

Aitona bertsoan aritzen zen. Ipuin ugari kontatzen zizkien eta haietako esamolde eta anekdota bat aipatzen ditu.

#### **253. Aitonak kontatutako Errezilgo pasadizoa (ZES-026/033)**

Aitonak kontatutako Errezilen gertatutako pasadizo bat.

#### **254. Aitonarekin goldaketan gertatua (ZES-026/035)**

Aitonarekin goldean ari zela gertatua. Aitonak kontatzen zituen anekdotak.

#### **255. Aitonari isuna jarri zioteneko (ZES-026/037)**

Gaueko 11etan etxeratu behar izaten zen. Anekdotak bat kontatzen du aitona eta haren lagunak pattarra edan eta goizaldera arte egoten zireneko.

#### **256. Aitonak ahuntzari pattarra eman zioneko (ZES-026/039)**

Aitonak ahuntzari pattarra eman zioneko.

#### **257. Umetatik loreetarako zaletasuna (ZES-028/002)**

Palazioan jaio zen. Senideak izendatzen ditu. Umetatik izan du loreetarako zaletasuna. Udan berdura ugari egiten zuten baratzean eta senarrarekin aritzen zen lanean.

#### **258. Parrandatik etxeratzean gertatua (ZES-028/005)**

Parrandatik etxera bueltatu eta gertatutako anekdotak bat kontatzen du.

#### **259. Landareen inguruko azalpenak (ZES-028/009)**

Etxe ondoan dituen zuhaixken inguruan hitz egiten du. Landaketarako zein urtaro den egokia eta ilargiaren egoera zein izan behar den azaltzen du.

#### **260. Lore lehorrekin nola lan egin (ZES-028/014)**

Loreak nola lehortu eta lehortutako loreekin kuadroak nola egiten dituen azaltzen du. Loreak zapaltzeko koltxoi azpian jartzen ditu. Sortak egiteko lora lehorrak esprai margoez margozten ditu.

#### **261. Zahagiko ardoa (ZES-029/001)**

Bere gurasoen taberna nolakoa zen deskribatzen du. Ardoa zahagian ateratzen zuten. Bergararik eramaten zuten. Orduko ardo mota ezberdinak izendatzen ditu.

#### **262. Hamabi urterekin etxeko tabernan lanean (ZES-029/002)**

Hamabi urte zituela hasi zen lanean tabernan eta 16 urterekin aita hil zitzaion. Amak sukaldean lan egiten zuen. Tabernan obra egin zuten. Bi bikoteren artean hartu zuten taberna eta emakumeek tabernan eta gizonak tabernatik kanpo lan egiten zuten.

#### **263. Emakumerik ez tabernetan (ZES-029/003)**

Goiz eta arratsalde egoten zen zabalik taberna. Beste taberna batzuk izendatzen ditu. Azoka egunetan izaten zen jende gehien; emakumerik ez zen sartzen.

#### **264. Tratanteen ganadua tabernako ukuiluan (ZES-029/004)**

Baserritarrak eta tratanteak azoka egunaren bezperan joaten ziren eta ganaduak tabernako ukuiluan uzten zituzten.

### **265. Tabernako jatekoa (ZES-029/006)**

Berrogeita hamazortzi urtera arte aritu zen "Koioteko" barra atzean lanean. Emakumeak izaten ziren tabernako langileak. Jangela deskribatzen du. Jatekoa tradizionala izaten zen eta gizonak bakarrik joaten ziren tabernara.

### **266. Tabernako koadroak (ZES-029/008)**

Tabernako koadro batzuen aipamena.

### **267. Koiote tabernako kafe-makina (ZES-029/014)**

Koiote izeneko tabernako kafe-makina zaharra bezalako bat bainuetxean zegoen. Gasolinarekin ibiltzen zen makina hura eta bota izanaren pena zuten. "Blanco España" deituriko hauts batzuekin garbitzen zuten kafe-makina. Kafea jende gutxi hartzen zuen eta pattarra ere arrunta izaten zen. Ardoa zahagietan hasieran eta botiletan ondoren izaten zen.

### **268. Lehenengo irratia eta "tocaboscusa" (ZES-029/016)**

Lehenengo irratia eta "tocaboscusa" noiz eduki zituzten azaltzen dute. Mexikar kantuak jartzen zituzten.

### **269. Udako gertaera bat (ZES-029/018)**

Uda batean, gauez, etxean pasatako gertaera kontatzen du.

### **270. Sifoiak eta limonada botilak (ZES-029/021)**

Eliza kaleko Iriondonekoek sifoiak, limonada botilak eta abarrak egiten zituzten. Sifoi bizigarri bezala erabiltzen zen.

### **271. Tabernak historian zehar izandako izenak (ZES-029/023)**

Toki-eder izena zuen aurretik Kontxitaren tabernak baina, gerra garaian, euskal izenak kendu arazi zituzten eta Bar España zena izan zuen Koiote izena jarri zioten arte.

### **272. 'Koiote' izenaren jatorria (ZES-029/025)**

Aita Bartzelonara joan zen bidaia batean, eta Koiote eleberrian agertzen ziren alkandoren moduko batzuk erosi zituen. Tabernara bueltatu zenean, barran zegoela, norbaitek Koiote ezizena jarri eta hala hartu zuen tabernak izena.

### **273. Txikitero batekin gertatutakoa (ZES-029/027)**

Tabernan txikitero batekin gertatu zitzaion pasadizo bat kontatzen du.

### **274. Taberna-giroa (ZES-029/219)**

Kontxitari tabernako lana izugarri gustatzen zitzaion. Gizonekin egoten zen taberna giroa atsegin zuen.

### **275. Bizimodu gogorra; ahal zen moduan moldatu behar (ZES-030/003)**

Etxean hainbeste izanda nola konpontzen ziren. Lehen ze arropa erabiltzen zen. Lehen ez zen gaur adina arropa. Lehengo bizimodua gogorra zen

gaurkoaren aldean. Jateko etxean zutenarekin moldatu behar izaten zuten: babarruna, patata, esnea...

### **276. Ilezko koltxoiak garbitzeko lan gogorra (ZES-030/010)**

Urte berean bi ume izan zituen; gainontzekoak 16-17 hilabeteko tartearekin. 17 seme-alaba izan zituen eta hemezortzigarrena galdu egin zuen 3 hilabeterekin. Koltxoiak garbitzeko lan gogorra egitearren galdu omen zuen umea. Lehengo ilezko koltxoiak nola garbitzen ziren azaltzen du.

### **277. Lehengo bizimoduaren eta oraingoaren arteko aldea; jatekoa (ZES-030/012)**

Gaur egungo eta lehengo bizimoduaren arteko aldea. Gaur egun botikako jatekoa ematen zaiela umeei die. Beraiek zer jaten zuten etxean.

### **278. Seme-alabak nola hazi dituen (ZES-030/013)**

Bularra eman izan die seme-alabei. Lehenbiziko umea izan zuenean bere umeari eta beste bati ematen zien esnea. Baina gero gripea harrapatu zuen eta ordutik aurrera "petxua galdu" omen zuen. Orduan etxeko behi-esnea ematen zien urarekin nahastuta haurrei.

### **279. Umea soro bazterrean utzita, lanean (ZES-030/014)**

Umeak kotxean soro bazterrean eramaten zituen berak lan egiten zuen bitartean. Behin seme-alabetako batekin gertatu zitzaiona kontatzen du.

### **280. Udatiarrak etxeetan apopilo (ZES-031/014)**

Herritarrek ez zuten kanpora ateratzeko dirurik izaten eta kanpotik etortzen zirenak ugari izaten zirenez, egundoko festak egiten ziren herrian. Uda garaian herritar askorentzat diru-irteera ona izaten zen udatiarrak etxean apopilo hartzea.

### **281. Herriko lantokiak: bainuetxeak, hotelak, lantegiak eta harrobia (ZES-031/015)**

14 hotel zeuden Zestoan, eta bainuetxean ehundik gora langile. Burni lan asko egiten zen eta Egiguren lantegira jende asko gerturatu zen kanpotik. Egur lantegia eta harrobia zeuden, besteak beste. Herritar emakume gehienek hoteletan lan egiten zuten.

### **282. Udako bizimodua: malabaristak eta orkestrinak egunero (ZES-031/016)**

Udan kafetegiak zabaltzen ziren eta arratsaldeetan txurroak txokolatearekin jaten ziren terrazetan. Astean hirutan bandak jotzen zuen herrian eta kafetegi atarietan orkestrina egoten zen. Malabaristak eta antzezleak aritzen ziren kalean. Dantza lotua onartu zenekoa ezagutu zuen Xabierrek.

### **283. Edarien biltegia, etxeko lantegi (ZES-031/018)**

Iriondo edarien biltegia Xabierren gurasoena zen. Ardoa, garagardoa eta sifoiak saltzen zituzten, besteak beste. Garagardoak Donostian erosten zituzten. Sifoi batek pezeta bat balio zuen. Orduko gaseosa nolakoa zen azaltzen du.

#### **284. Estraperloa eta errazionamendua (ZES-031/020)**

Eguneroko bizimoduan ardoa eta pattar merkeena edaten zen. 1941-1942 urteetan gosea pasa zuten; errazionamenduko jatekoa izaten zen. Goseteak eta diru eskasiak estraperloa ekarri zuen. Trenean poliziak ibiltzen ziren zelatan. Ogia ez zen jateko modukoa izaten.

#### **285. Errotak estraperlo garaian (ZES-031/021)**

Etxean taloak egiten zituzten. Aitaren lagun batek errota zuen eta handik eramaten zuten ezkutuan irina. Aita eta anaia arrantzan ibiltzen ziren eta haiek eramaten zutenean soilik jaten zuten arraina. Zestoan lau errota zeuden, estraperlokoak. Egunez baimendutakoa eta gauez kontrabandoko lana egiten zuten. Ganadua etxean hiltzea ere debekatua zegoen. Pasadizo bat kontatzen du.

#### **286. Herrian 3 kotxe zeudenekoa (ZES-031/023)**

Edari almazenekoa lanaz gain harrobian eta garraiolari aritu zen, besteak beste. 19 urterekin atera zuen gidabaimena. Herrian 3 kotxe besterik ez zeuden, bizikletaz eta trenez ibiltzen ziren gehienbat. Urolako trenaren aipamena egiten du.

#### **287. Hilean behin ganadu feria (ZES-031/024)**

Arrua, Aizarnazabal eta inguruetara eramaten zituzten edariak. Zestoan ganadu feria hileko hirugarren astean egiten zen eta Goierriko tratulariak ere joaten ziren. Herriko lokal batzuetan ukuiluak jarri eta ganaduak han eta kalean egoten ziren. Idi-proba txapelketak San Jose jaietan eta irailean egiten ziren. Apusturako zaletasun handia zegoen. Goizean mezara joan eta handik irtetea egiten zituzten desafioak.

#### **288. Ahari jokoan parte-hartzaile (ZES-031/026)**

Gurasoengandik datorkio apusturako zaletasuna. Idiak, aharia, etab. zituzten eta ahari jokoan parte hartu izan dute beraiek ere. Kale-baserri batean eduki zituzten animaliak. Bigarren mailako korrikalari baten entrenatzaile ere izan zen.

#### **289. 'Urtain' eta 'Endañeta' harri-jasotzaile handiak (ZES-031/027)**

Harri-jasotzea eta aizkora betidanik gustatu izan zaizkio baina garai hartan herri-kirol garestienak ziren. Zestoan Urtain izan zen harri-jasotzaile eta boxeolari ezagunena. Endañeta harri-jasotzaile ezaguna eta bere apustuak aipatzen ditu.

#### **290. Pilotari buruzko liburua idatzia du (ZES-031/028)**

Pilotariei buruz Zestoako frontoiaren 100. urtebetetzean liburu bat idatzi zuen, Xabier Unanue eta Manolo Sagarzazurekin batera eta erakutsi egiten du. Etxabe XI. bere pilota bikotearen eta Ezkurra erremontista ezagunaren irudiak erakusten ditu.

#### **291. Zestoako apaiza pilotan (ZES-031/030)**

Zestoako apaiza pilotan ibili zeneko irudia erakusten du. Debekatua zegoen apaizek pilotan jokatzeko eta artzapezpikutzatik sotanarekin jokatzeko galarazi zioten.

### **292. Joxe Manuel Ibar 'Urtain' (ZES-031/032)**

'Urtain' en argazkia erakusten du. Umetatik lagun izan zuen eta honek egindako apustuen inguruan hitz egiten du.

### **293. Urolako trenak 5 geltoki Zestoan (ZES-033/011)**

Xabierren lagunak zestoarrak ziren eta Urolako trenean ibiltzen ziren inguruko herrietara joateko. Zestoan 5 tren-geltoki zeuden.

### **294. Mutilek ordaintzen zieten erronda neskei (ZES-033/012)**

16 urterekin hasita tabernara sartzen ziren eta txikiteoa egiten zuten; ardoa edaten zen. Lantegira zihoan jendeak kopa edaten zuen aurrez. Emakumeak ere sartzen ziren tabernara eta gizonek ordaindu ohi zieten. Musean aritzen ziren eta erramu egunez kartetan irabazita egindakoa aipatzen du. Aste Santuan ezin izaten zen kartetan jokatu.

### **295. Taloa eta morokila egunero (ZES-033/013)**

Otorduetan babak, zopa eta txerriak jaten zituzten nagusiki. Oilaskoa eta arraina egun berezietan jaten ziren. Baserrian behiak zituzten, eta ez zuten sekula goserik pasa. Ogia egiten zuen amonak labesuan. Taloak eta morokilak egunero izaten ziren.

### **296. Taberna-dendak auzoetan (ZES-033/015)**

Zestoako dendak izendatzen ditu. Auzoetan taberna-dendak izaten ziren, Aizarnan adibidez. Ile-apaindegia ere baziren eta bazuten ohitura joateko. Ama jostuna zuen eta arropa ugari egiten zion Xabierri. Alpargatak eta gomazko abarkak erabiltzen zituzten eta igandeetan zapatak.

### **297. Ama Birjinak, Santa Kurutzak eta San Esteban eguna (ZES-033/016)**

Zestoan hiru festa nagusi izaten ziren: Ama Birjinak, Santa Kurutzak eta San Esteban eguna. 3 festa egun hauek zerk bereizten zituen azaltzen du.

### **298. Lotuan dantza egiteagatik mutilek ordaindu (ZES-033/017)**

Erromerietan dantza egiteagatik mutilek ordaindu egin behar izaten zuten eta zinta bat jartzen zitzaion paparrean. Eguberri bigarrenegoz ganadu feria egiten zen eta festa handia izaten zen, denek egiten zuten dantza lotuan egun hartan.

### **299. Zestoako azoka eta idi-probak (ZES-033/018)**

Zestoako azoka eta ferietan bertako jendea izaten zen saltzaile. Zestoak auzo asko eta baserri ugari ditu. Auzo batzuk izendatzen ditu. San Jose egunez plazako probalekuan izaten ziren idi-probak; probalari ugari zen Zestoa inguruan.

### **300. Udan egunero pilota partidak (ZES-033/019)**

Zestoan pilotari garrantzitsuak zeuden. Udan egunero bi partida izaten ziren, eta Xabierrek ere jokatu izan zuen gaztetan. Txikito Iraeta, Irueta III, Etxabe XI, etab. ziren bertakoak. Udan frontoia subastatu egiten zen eta bertako jendeak hartu ohi zuen.

### **301. Udatiarrentzat pilota eta zinea (ZES-033/021)**

"Enpresas Unidas"-ek lagunduta hasi ziren pilota partidak martxan. Frontoia deskribatzen du. Bainuetxera kanpotar ugari hurbiltzen zelako hasi ziren martxan pilota eta zinea. Kubatar ugari hurbiltzen zen herrira. Atanotarrek egiten zituzten pilotak.

### **302. San Jose eguneko ospakizunak (ZES-033/023)**

San Jose egunez San Jose ikastetxean festa egiten zen, eta berezitasun handiena zinta-karrera eta Basarri eta Uztapide bertsolariak izaten ziren. Pello Kirten&nbsp;ezizenez ezaguna zen umoregilearen aipamena.

### **303. Bertsoak kantatzea zentsuratua zegoeneko (ZES-033/024)**

Zestoan bertsolaritzak erakarpen handia zuen. Manuel Olaizola Uztapide aipatzen du. Bertsolariek kantatzea zentsuratua izan zuten garaia ere aipatzen du. Kantatzeko baimena berreskuratu zuten egunean Zestoako "Hotel Asunció"en kantatu zuten lehendabizikoz.

### **304. Erromeriak eta soinujoleak (ZES-033/025)**

Anton Baltzola, Mardu eta Xiete piezas ezizenez deituriko soinujoleak izendatzen ditu. Anekdotak bat kontatzen du.

### **305. Zestoako hotelak; bainuetxean aurkitutako pelikula (ZES-033/027)**

Zestoan 14 hotel zeuden eta nagusi kanpotarrak zituzten gehienek. Bertako urak gibela sendatzen zuela-eta, bainua hartzeaz gain, edan ere egiten zen. Xabierrek bainuetxean lan egin zuen eta gerenteak bertan grabatua izan zen pelikula bat nola eman zion eta Zestoan nola proiektatu zuten kontatzen du. Bainuetxean, "casa ba", "gran hotel", Alameda, txaleta, etab. ziren. Ehundik gora lagunek lan egiten zuten bertan.

### **306. Bainuetxeari esker etxeetan apopiloak (ZES-033/029)**

Kaleko etxeetan kanpotar ugari hartzen zen apopilo. Bainuetxean lan egiteko ez zen edozein neska hartzen, aukeratuak izaten ziren.

### **307. 1930ean jaioa Zubimuzu baserrian (ZES-035/001)**

1930ean jaio zen Zestoako Zubimuzu baserrian. Aita Aizarnakoa eta ama Zestoakoa zituen.

### **308. Mojak eta maristak irakasle (ZES-035/002)**

Eskolan Zestoako mojetan eta ondoren maristetan ibili zen. Errezoak eta dotrina ikasten zituzten gehienbat.

### **309. Eskolan sartzean 'Cara al Sol' kantatu behar (ZES-035/003)**

Erdaraz ikasten zuten eta euskaraz egiten zuenari kanika bat eman eta zigortu egiten zuten. Eskolan sartzen zirenean Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Euren eskolara mutilak joaten ziren soilik. Goiz eta arratsalde joaten ziren eta ostegun arratsetan jai izaten zuten. Bazkaltzera etxera joaten zen. Dotrina buruz ikasi behar izaten zuten.

### **310. Erreal batean pilotak "Gaztaino"-ren dendan (ZES-035/004)**

Zigortuz gero paretaren kontra jarrita egon behar izaten zuten. Umetan kaniketan, "kortabanaka" jokoan, intxaurrekin, etab. jolasten zuten. Pilotan ere aritzen ziren frontoian; "erreal bateko pilotak" erabiltzen zituzten. "Gaztaino"ren dendan erosten zituzten pilotak, bigunak izaten ziren.

### **311. Mutilak "Punttua"-n eta neskak "Asakaponetan" (ZES-035/006)**

Pilotan, "punttuan" aritzen ziren; jokoaren nondik norakoak azaltzen ditu. Neskek, "asakaponetan" jolasten zuten. Mutilek eta neskek joko ezberdinak zituzten. "Lajaia" eta "Konporta" futbolerako jolastokiak ziren. Presara ere joaten ziren jolasera.

### **312. Etxez etxe esnea saltzen zuten (ZES-035/007)**

Baserrian esne-behiak eta txerriak izaten zituzten. Esnea etxez etxe banatzen zuten marmitean hartuta.

### **313. Txerria hildakoan, "txerri-erregaloa"-k auzora (ZES-035/008)**

Urtean bi txerri hiltzen zituzten; 120 kilo inguru zenean hiltzen zuen harakinak. Lehortzeko zintzilika jartzen zuten eta haragia gazi-kutxan gordetzen zen. Odolkiak eta txorizoak amak egiten zituen eta auzora banatzen zituzten; "txerri-odolkiak" edo "txerri erregaloa" deitzen zitzaaien haiei.

### **314. Katilu forman egindako errazionamenduko ogia (ZES-035/009)**

Otorduetan txerriki ugari eta baba jaten zuten. Ogia errazionamenduan egoten zen eta katiluaren forma emandakoa izaten zen, gogorra. Javierren etxean ogi gutxi egiten zen. Etxetik 100 metrora Errotatxo izeneko errota zuten eta bertara eramaten zuten artoa, gero irina lortu eta talo eta morokilak egiteko etxean.

### **315. Amuarrain eta oilagor harrapaketan (ZES-035/010)**

Javierren anaia arrantzan zaletua zen eta amuarrainak eramaten zituzten etxera. Etxean egindako kanaberarekin arrantzatzen zuten. Ehizan ere ibiltzen ziren, oilagorretan. Eskopeta Eibarren erosia zuen aita eta lizentzia Guardia zibiletan atera behar izaten zen.

### **316. Eskola utzi eta lanean hasi zenekoa (ZES-035/011)**

10 urterekin eskola utzi eta 12 urterekin peoi lanetan hasi zen Zestoako igeltsero batzuekin. 16 urterekin Arroara joan zen teila lantegi batera eta 18rekin Zestoako 'Echave y compa&ntilde;&iacute;a' fundizioan hasi zen

ofizioa ikasten. Peoi lanetan zortzi orduko lan-jarduna izaten zuen, eta irabazitako diru apurra amari ematen zion.

### **317. Soldadutzatik libratzeko, minara lanera (ZES-035/012)**

Minan lan eginez gero soldadutzatik libratzen ziren mutilak eta Javierrek 2 urte pasa zituen. Gero atzera fundizioko lantegira bueltatu zen. Egunean 7 pezeta irabazten zituen. Laneko kontuak kontatzen ditu.

### **318. Aitaren lan-istripua (ZES-035/015)**

Aita, harrobian lanean zebilela, metxaren pistoia alikateekin estutu ordez hortzekin estutzen hasi zen eta ahoan lehertu zitzaion. Istripuaren inguruko azalpenak.

### **319. Gerra garaian Pasaiaiko lehengusuenera ihesi (ZES-035/016)**

7 anaia eta arreba zituen, baina bi anaia gerran hil zitzaizkion. Anaiak soldadu joan zirelako etxetik bota zituzten Javier eta etxeokak eta Pasaiaiko lehengusu batzuen etxean egon ziren ezkutatuta. Bi anaia behiak zaintzen etxean geratu ziren.

### **320. Gerra denboran, gosea (ZES-035/017)**

Madril hartu zutenean, banderak nola jarri zituzten azaltzen du. Gosea pasa zuten gerraostean, nahiz eta baserritarrek errazagoa zuten jatekoa lortzea.

### **321. Dantza lotua egiteagatik kongregaziotik kanpora (ZES-035/019)**

Erromeriara Aizarnako Santa Engraziara, Endoiara eta inguruetara joaten ziren oinez. Lotuan dantza eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten.

### **322. Luistarren kongregazioa (ZES-035/020)**

Luistarren kongregazioan egon zenean, hilean behin zazpietako mezetara joan behar izaten zuen medaila jantzita. Igandeetan ilaran jarri eta hamarretako mezetara joaten ziren eta arratsaldeetan bezperetara joan behar izaten zuten. Jaunartze txikia eta handia Zestoan egin zituen.

### **323. Pazkoetan jauna hartzeko txartela (ZES-035/021)**

Pazkoetan jauna hartzera joateko txartela behar izaten zen eta Javierri apaizak dotrina ondo ikasteagatik txartelak oparitu zizkion. Jaunartzea egindakoan etxean ospatzen zuten. Bakoitzak nahi zuen jantzia eramaten zuen jaunartzea egiteko.

### **324. Apaizaren aurrean txapela erantzi (ZES-035/022)**

Txaketa eta prakak janzten zituzten mutilek, eta erromeriara joateko txapela janzten zuten. Elizara sartutakoan edo apaiza parean pasatzen bazen, txapela kendu behar izaten zuten.

### **325. Hilean behingo konfesioa (ZES-035/023)**

Hilean behin konfesatu behar izaten zuten; neskena sarek banatuta egoten zen eta mutilak ate batean sartuta konfesatzen ziren. Bekatua eginez gero, errezoa izaten zen zigorra.

### **326. Zestoako festak: zezenak, zahagi-dantza, oilasko biltzea... (ZES-035/024)**

Zestoako jaiak Ama Birjinetan izaten ziren. Zezenak jarri ohi zituzten eta kanpoko toreatzaileak eramaten zituzten. Zaletasun handia zegoen. "Zahagi-dantza" zer zen azaltzen du. Oilasko biltzea nola egiten zen baserriz baserri kontatzen du.

### **327. Santa Ageda eskea (ZES-035/025)**

Santa Ageda bezpera egunez arratsaldean ateratzen ziren eskera eta ateratzen zuten dirua odol emaleentzat izaten zen. Etxe batean urte hartan norbait hil bazen kantatu gabe geratzen ziren eta erreztatu egiten zuten.

### **328. San Kristobalak, Gabonak eta karrozak (ZES-035/026)**

Zestoako bandaren aipamena egiten du. San Kristobal egunez kotxeak bedekintzen ziren Zestoako plazan. Gabon egunean kalez kale ibiltzen ziren kantuan. Javier jaiotza egiten ibilia da. Errege egunez karrozak eta jaiotza bizia egiten ziren.

### **329. Zestoako 'Uztapide' bertsolaria (ZES-035/027)**

Zestoan bertsotarako zaletasun handia zegoen. Manuel Olaizola Uztapide bertsolaria ezagutu zuen. Zestoako zinean bertso jaialdiak egiten ziren, eta Fernando Aire&nbsp;Xalbador ere ezagutu zuen Zestoan kantuan. Uztapideren inguruko kontuak kontatzen ditu. Aizarnako emakume baten bertsotarako zaletasunaren aipamena.

### **330. Zestoako tabernak eta giroa (ZES-035/030)**

Neskak ez ziren tabernetara sartzen, gaizki ikusia zegoen eta. Jokoa (gehienbat musean) aritzeko ohitura zuten mutilek. Zestoako tabernak izendatzen ditu: Uztapide, Portxu, Agustin...

### **331. Bainuetxeko ura gibel eta giltzurrunentzat (ZES-035/031)**

Zestoako bainuetxean 700 lagun sartzen ziren. Beste hotel batzuk izendatzen ditu. Bainuetxeko urek gibela eta giltzurrunak sendatzen omen zituzten.

### **332. Bainuetxeko soldatak propinekin osatuak (ZES-035/033)**

Herriko jendea albergara joaten zen arropak garbitzera. Zestoako bainuetxean herritar ugari lan egiten zuen, neskek batez ere. Nesken soldata kanpotarrek emandako propinarekin osatzen zuten.

### **333. Aizarnazabalgo Ibarrenen jaioa 1928an (ZES-037/001)**

1928an jaio zen Aizarnazabalgo Ibarrene baserrian; aita Aiako Urdanetakoa eta ama Ibarrenekoa zituen. 6 anai-arreba ziren eta baseritik bizi ziren. Soroa landu eta ganadua zaintzen zuten.

### **334. Anaiak gerrara joan arte Aizarnazabalen eskolan (ZES-037/002)**

9 urtera arte Aizarnazabalgo eskolan ibili zen eta anaiak gerrara joan beharra izan zutenean etxera bueltatu behar izan zen. Iraetako maistra izan zuen

Aizarnazabalen eta euskaraz ikasten zuten. Dotrina eta matematikak ikasten zituzten nagusiki. Eskolan ikasitako buruketa bat azaltzen du.

### **335. Eskolatik piper egiteagatik... (ZES-037/003)**

Eskolara lbainarrietatik eta inguruko herrietatik joaten zen jendea. Piper egiteagatik ze gaiztakeria egiten zituen azaltzen du.

### **336. 'Sakabi'rengana soinua ikastera (ZES-037/004)**

Soinua erosi eta Azpeitira joaten zen Sakabi soinujolearengana ikastera. Bidean ikasitako pieza ahazten bazitzaion etxera joandakoan sorotik ihes egin eta pieza ateratzen aritzen zen. Sakabiren aipamena egiten du eta ezkontza baten jo zuenekoak kontatzen du.

### **337. Soinua jotzera bizikletaz (ZES-037/005)**

Bazkoetan eta ezkontzetan bi egunerako joaten zen soinua jotzera. Gidatzeko baimenik ez zuen eta bizikletan joaten zen soinua bizkarrean hartuta. Soinu txikiarekin hasi eta gero handia erosi zuen. Irakasle zein izan zuen aipatzen du.

### **338. Soinu txikia: "Infernuko hauspoa" (ZES-037/006)**

Aizarnazabalgo taberna batean soinua jotzen ibili eta gero konfesatzera joandakoan apaizaren haserrea eta esan zizkionak aipatzen ditu. Soinua "Infernuko hauspoa" zen garai hartan. Lotuan dantza egitea debekatua zegoen. Erromerietan dantzariak dantza egiteagatik kobratu ohi zien arduradun batek.

### **339. Zestoa eta inguruko soinujoleak (ZES-037/007)**

Erromeriak arratsaldean izaten ziren eta angelusarekin batera amaitzen ziren. Zestoa eta inguruko soinujole lagunak izendatzen ditu.

### **340. 'Gelatxo' soinu-jotzailearekin izandako pasadizoa (ZES-037/008)**

Gelatxo soinu-jotzailea lagun handia zuen, eta Iraetako Santa Ines jaietan berarekin gertatutako anekdota aipatzen du.

### **341. Aste Santuan bekatu zen soinua jotzea (ZES-037/009)**

Sakabi aurrean jarri eta aurrez aurre ikasi zuen soinua jotzen. Goizaldera pieza bururatuz gero, jaiki eta soinua jotzen aritzen zen. Erromeriak egiten zituen inguruko auzoak aipatzen ditu. Aste Santuan bekatu izaten zen soinua jotzea eta ez zen erromeriarik izaten, Donostiako Hirubiden soilik.

### **342. 800 pezeta ordaindutako soinua (ZES-037/010)**

Sakabirengana (Azpeitira) soinua ikastera bizikletaz joaten zen. 800 pezeta inguru ordaindu zion aitak soinua eta, soinu handia erosi zuenean, zozketatu egin zuen; diru dezente atera zuen. Orduko pasadizoa kontatzen du.

### **343. Santa Ageda eskea eta oilasko biltzea (ZES-037/011)**

Santa Ageda eskean eta oilasko biltzen atera ohi zen; azken hori San Migel jaietan egiten zuten. Etxez etxe joaten ziren lbainarrieta alderaino. Bildutako oilaskoekin bazkaria prestatzen zuten.

#### **344. Soinua lagun bati eman eta... (ZES-037/013)**

Lagun bati soinua eman zionean pasatako anekdota bat aipatzen du.

#### **345. Zestoa eta Akua inguruan soldaduak (ZES-037/014)**

8 urte zituen gerra hasi zenean. Soldaduak Zestoa eta Akua pasa ziren, eta etxe barrura sartuta ibiltzen ziren. Felixen etxean zaraustar batzuk egon ziren etxetik ihes eginda.

#### **346. Gerra garaian, "katiluko ogia" (ZES-037/016)**

Gerra garaian errazionamenduan izaten zen jana eta txartel batekin joan behar izaten zuten janari bila. "Katiluko ogia" ezagutu zuen, etxean ere egiten zuten. Estatuak gariaren hainbesteko bat kentzen zien. Errotan ezkutuan aritzen ziren.

#### **347. Estraperloko gasolina eta olio, zuhartzetan gordeta (ZES-037/017)**

Baserritik bizi ziren eta garia eta sagardoa egiten zituzten, besteak beste. Dolarea bazuten etxean eta sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Gasolina eta olio estraperloan izaten ziren eta kamioietan herrira ekarri eta zuhartzetan ezkutatzeko zituzten; gauez izaten zen estraperloa, ezkutukoa. Etxeko jakiak herriko agintariek agindutako tokira eraman behar izaten zituzten eta ordainetan diru apur bat ematen zieten.

#### **348. Txahala ukuiluan hil eta Guardia Zibila etxera (ZES-037/018)**

Eguneroko otorduetan, babak eta lekak jaten zituzten. Aizarnazabalen Guardia zibilek baba konfiskatu zutenekoa kontatzen du. Festetarako, ukuiluan txahala hil, eta guardia zibilak etxera joanda pasatako estutasuna kontatzen du.

#### **349. Txerri-hiltzearen inguruko kontuak (ZES-037/020)**

Txerria hildakoan, soldadu zeuden anaiei bidaltzen zieten zati bat. Txerri-odolkiak auzora banatzeko ohitura zegoen. Txerriak gazi-kutxa edo goitegian (freskeran) gordetzen zuten. Urtean txerri bakarra hil zitekeen. Txerria hildako batean pasatako pasadizoa kontatzen du.

#### **350. Soldadutzan Burgosen eta Donostian (ZES-037/021)**

Soldadutzatik libratzeagatik meatzean aritu zen lanean eta ondoren Iraetako lantegi batean, baina azkenean Burgosera eta Donostiara joan beharra suertatu zitzaion. Instrukzioak egin eta alpapa ebakitzen aritzen zen Burgosen; Donostian, berriz, arropen kargua izan zuen. Bizikletaz joaten zen Donostiara. Etxekoekin kartaz jartzen zen harremanetan. Soldadutzako lagun batzuk izendatzen ditu. Burgosen zegoela bi erreal irabazten zituen egunean eta irabazitakoa ogitartekotan joaten zitzaion.

#### **351. Lagun kuadrillarekin igandeetan (ZES-037/022)**

Lagun kuadrilla Aizarnazabalgoa zuen. Igandeetan mezetara joan eta handik ateratakoan pattarra edaten zuten. Arratsaldeetan boletan jokatzera joaten ziren eta pilotan ere egin ohi zuten. Umetako jolasak aipatzen ditu.

### **352. Idi-proba apustuak (ZES-037/024)**

Lagunartean elkartu eta solasean aritzen ziren; tabernan kartetan aritzeko ohitura ere bazuten. Idi-probak gustuko ditu. Etxean bazuten idi pareta eta anaiak bere lagunekin jokatu zuen apustu bateko kontuak kontatzen ditu. Urtainen aipamena.

### **353. Uholdeak Zestoan (ZES-037/026)**

Zestoan uholdeak izan zirenean gertatutako istripu baten berri ematen du.

### **354. Zestoa, 'Madril Txiki' ezizenez ezaguna (ZES-037/028)**

Zestoari Madril Txiki deitzen zioten. Udar kanpotar ugari herriratzen zen eta hotel bakoitzak bere txoferrak izaten zituen. Bainuetxeko ura gibela sendatzeko izaten zen ona eta botiletan sartu eta kanpora saltzen zuten. Herriko emakume askok lan egiten zuen bainuetxean.

### **355. Udan kalean orkestrak (ZES-037/030)**

Kafetegi asko zegoen Zestoan eta udan orkestra jartzen zuten atarian. Iraetan taberna zegoen eta txokolatea txurroekin jatera oinez joaten zen.

### **356. Iraetako tabernako alabarekin ezkondu zenekoa (ZES-037/031)**

Emaztea Iraetako tabernakoa zuen. Anai-arrebak anai-arrebekin ezkondu ziren. Iraetan ezkondu eta 4 seme-alaba izan zituzten. Orduko ezkontzak sendikoen artean egiten ziren. Elurra egin zuenez, ezkonbidaiara joan gabe geratu behar izan zuten. Emaztearen jaiotetxean, Iraetako tabernan, jarri ziren bizitzen.

### **357. Soinu giroan etxean pasatutakoa (ZES-037/032)**

Etxean betidanik izan dira soinu zaleak. Honen inguruko anekdota bat kontatzen du.

### **358. 'Uztapide', 'Basarri' eta 'Angiozarko itsua' (ZES-037/034)**

Uztapide eta Basarri bertsolarien aipamena. Felix Aranzabal&nbsp;Angiozarko Itsuarekin batera ibili izan zen soinua jotzen.

### **359. Soroan patata ateratzen ari zirenekoa (ZES-037/038)**

Patata ateratzera sorora joan, eta orduan gertatutako pasadizoa. Aitona eta anaiekin gertatutako anekdotak kontatzen ditu.

### **360. 1928an jaioa Aizarnako Etxeluzen (ZES-038/001)**

1928an jaio zen Aizarnako Etxeluzen; etxea kokatzen du. 1960an Zentraleko etxera joan zen bizitzera. Ama Aiako Altzolakoa eta aita Aizarnakoa zituen eta 7 senide ziren familian.

### **361. Minan lan eginez gero, soldadutzatik libre (ZES-038/002)**

Etxeluzen hiru behi inguru izaten zituzten, baina etxekoak jornalean ibili ziren lanean, minan, besteak beste. Minak, zentrala, etab. nagusi berarenak ziren eta Juani Zentraleko lana eskaini zion. Minan lan eginez gero soldadutzatik libre zitekeen.

### **362. Meza laguntzera erretorearengana (ZES-038/003)**

Ekolan gerra aurretik hasi zen Aizarnan, baina etxean lana bazegoen, joan gabe geratu behar izaten zuen. Aizarnako erretore baten aipamena egiten du; meza-laguntzera berarengana joaten zen Juan.

### **363. 1940an morroi joan zen auzora (ZES-038/004)**

1940an morroi joan zen auzoko etxe batera, Aldalur baserrira, eta urte eta erdi pasa zituen bertan. Gose urteak ezagutu zituen.

### **364. Eskolara sartzean 'Cara al Sol' (ZES-038/005)**

Eskolako maisuak izendatzen ditu. Erdaraz hitz egiten zuten eskolan. Eskolara sartzean Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Oriamendiko martxa, karlismoaren ereserkia, ere abesten zuten: "Por Dios, por la patria y el Rey..."

### **365. "Mikaela" makilarekin jotzen zituzten (ZES-038/006)**

Euskaraz hitz eginez gero, "mikaela" deituriko egur batekin jotzen zituzten maisuek. Euskararenganako amorrua zuten irakasleek.

### **366. Aizarna eta inguruko apaizak (ZES-038/008)**

Apaiz batzuk izendatzen ditu.

### **367. Koruko latinezko kantuak (ZES-038/009)**

Eskolan gramatika, aritmetika, geografia, etab. ikasten zuten liburu batetik. Dotrina apaizak ematen zien eta sakristau batek solfeoa. Juan Aizarnako koruan kantuan ibili zen urte askoan. Kantuak latinez izaten ziren; haietako bat kantatzen du.

### **368. Marmita bizkarrean hartuta esnea saltzera kalera (ZES-038/010)**

11 urterekin eskola utzi eta berehala hasi zen morroi lanetan Aldalur baserrian. Behiak zituzten eta esnea kalera marmitetan bizkarrean eraman eta esnezaleari saltzen zioten.

### **369. Morrontzan irabazitakoa aitari entregatu behar (ZES-038/012)**

Morroi hasi zenean mantentze aldera joaten zen, baina gerora soldata jarri zioten, lau, zortzi duro. Irabazitako dirua aitari entregatu behar izaten zion, gose urteak zirelako eta etxean bederatzi-hamar lagun zirelako. Amak eramaten zuen etxeko martxa Juan morroi zegoen bitartean.

### **370. Estraperloa eta errota prezintatuak (ZES-038/013)**

Baserrietan behiak izaten ziren gehienetan, esnea saldu edo eta txahala hazte aldera. Estaduak baserritarrei hartzen zutenaren hainbesteko bat kentzen

zien, eta baba eta antzekoen estraperloa hasi zen. Aizarnatik Lasara estraperlora joaten zenekoa kontatzen du. Errotara Zestoara joaten ziren gauez astoa hartuta, gerra ostean errotak prezintatuta egon ziren eta.

### **371. Errazionamenduko ogi beltza (ZES-038/014)**

Aizarnako Ezenarro baserrian egon zen 2 urtez morroi. Ogia ekonomikan egiten zuten. Errazionamenduan ematen zuten ogi beltza nolakoa izaten zen azaltzen du. Txartel bat hartzen zuten udaletxean eta jana hartu ahala han eramaten zen kontua.

### **372. Otola mendian lurra lantzen (ZES-038/015)**

Ezenarroko lana bukatu eta Otola mendialdera joan zen morroi, lursailak lantzen aritzen zen. Azukrea egiteko erremolatxa lantzen zuten mendian. Lasatik Otolara bidea aitzurrarekin egiten aritu ziren.

### **373. Harrobiko lana (ZES-038/017)**

Otolako lana amaitu zuenean, soldadutzatik libratzeko, Ibainarrietako harrobira joaten zen lanera oinez ordubeteko bidean. Harrobian erretako batzuen aipamena egiten du eta aitari eta aitonari gertatutako kontuak kontatzen ditu.

### **374. 1952an Zestoako zentralera lanera (ZES-038/018)**

1952an Zestoako zentrolean hasi zen lanean. Orduan familia bat zegoen zentrolean bizitzen. 1960an etxea eskaini zioten lanaren truke eta hantxe jarri zen bizitzen.

### **375. Aizarna eta Zestoako udaltzain (ZES-038/019)**

Aizarnako eta Zestoako udaletxean udaltzaingo lanetan ere ibili zen, Zentraleko lanarekin txandatu, Zentrala itxi zen arte. Denetarik egiten zuen eta hilean hogeitaz gero irabazten zituen. 65 urtera arte egon zen udaletxean, autopista egin zenean Zentrala itxi egin baitzen.

### **376. Zentrala saldu ziotenekoa (ZES-038/020)**

Zentrala itxi eta gero ere bertan egon zen bizitzen, ez zuen ordaindu beharrik izan. Urte batzuren ostean saldu egin zioten etxea.

### **377. Tabernan lagunartean kartetan (ZES-038/023)**

Aizarnan igande arratsaldean erromeria izaten zen eta baita inguruko auzoetan ere. Oinez ibiltzen ziren inguruko herrietara eta gerora osabaren bizikletarekin ibili zen motorra erosi arte. Lagun kuadrilla Zestoakoa zuen eta lagunekin eta baita etxean ere ohitura handia zuten kartetan aritzeko, musean.

### **378. Aizarnako taberna-dendak (ZES-038/024)**

Aizarnan 4 taberna zeuden eta minetara lanera joandako jendea apopilo egoten zen. Tabernak denda ere baziren eta jatekoa ere bertan erosten zen.

### **379. Dotrina garaiko txartel txuriak (ZES-038/027)**

Aizarnako eliza handia zen. Juan egunero joaten zen meza laguntzera. Gari-bedeinkazio eguna eta Pazkoakoa zer izaten ziren azaltzen du. Garizuma garaian elizara joan eta apaizak dotrina hartzen zien; ondo erantzunez gero txartela ematen zieten eta jaunartze garairako balio zuen txartel hark.

### **380. Konfesatzea derrigorra; luistarren kongregazioa (ZES-038/028)**

Konfesatzea derrigorra zen eta hilean behin joaten ziren. Luistarren kongregazioan nahiko aurrean ibili zen Juan. Jende asko ibili zen bertan. Apaizak konfesatzera joaten ez zenari kargu hartzen zion. Apaizak izendatzen ditu. Dantza lotua eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten.

### **381. Gerra garaiko kontuak (ZES-038/029)**

Gerra garaiko kontuak; elizetan meza garaian soldaduek egiten zituztenak aipatzen ditu. Aizarnan kanpotar ugari egon zen herritik ihes eginda.

### **382. Otorduetako jakiak (ZES-038/030)**

1940-41 urteetan gosea zen nagusi. Egunero talo-esnea gosaltzen zuten eta bazkaltzeko baba izaten zen normalean. Garbantzua igandeetako jaki preziatua izaten zen. Noizean behin arraina ere jaten zuten.

### **383. Zentrala utzi ondorengoak (ZES-038/031)**

Zentrala itxi ondorenean izan zituen lan eskaintzak aipatzen ditu.

### **384. Bederatzi arroako harria jasota (ZES-038/032)**

Uztapide eta Basarri bertsolarien aipamena egiten du, besteak beste. Harrijasotzen ibili zen etxean bere kasa; bederatzi arroako harria zuen etxean, (arroa 1= 12.5 kg).

### **385. Zestoako Gexala baserrian jaioa 1931an (ZES-039/001)**

1931an jaio zen. Euskaraz irakurtzeko duen zailtasunaz hitz egiten du. Zestoan jaio zen, aitaren baserrian, Gexalan. Ama Mutrikuko Aportategikoa zuen. 4 anai-arreba ziren. Anaia baten aipamena.

### **386. Koiote taberna lantoki eta bizileku (ZES-039/002)**

Zestoako Koiote taberna Kontxitaren etxekoek hartu zuten Kontxitak urtebete zuela eta bertan bizi izan ziren. Koiote izenaren nondik norakoa azaltzen du. Hasieran, Toki-alai izena zuen tabernak, baina gerra garaian euskarazko izenak debekatu egin zituzten.

### **387. Eskolan Zestoako mojetan (ZES-039/004)**

Gexala baserrian jaio arren, urtebeterekin eraman zuten Koiote tabernara. Eskolan Zestoako mojetan ibili zen. Moja gehienak euskaldunak ziren, baina bat bazuten erdalduna gogorra zena eta erregelaz jotzen zituen. Umetan neska-mutilak batera joaten ziren eskolara eta gerora mutilak maristetara aldatzen ziren. Erdaraz ikasten zuten. Josten eta dotrina ikasten zituzten. Jartzen zieten zigorra mojei josteko lanak egitea izaten zen.

### **388. Euskaraz abesteagatik espetxera (ZES-039/005)**

Eskolara sartzen zirenean errezatu egin behar izaten zuten, baita Cara al Sol kantatu ere. Iruñeara eskolako irteera egin eta euskaraz kantuan egiteagatik nola atxilotu zituzten azaltzen du. Lagunartean eta etxean euskaraz egiten zuten debekatua egon arren.

### **389. Lasaora ikastera trenez (ZES-039/007)**

16 urterekin Zestoako eskola utzi eta Lasaora hasi zen ikastera, baina aita hil zitzaion eta utzi egin behar izan zuen. Trenez joaten zen Lasaora arratsaldeetan, baina bi hilabete besterik ez zituen egin. Zestoako mojetan ibili zenean arratsaldeetan aritzen ziren josten.

### **390. Mojen eskolako zigorrak (ZES-039/008)**

Gaiztakeriaren bat eginez gero, biblia irakurriarazten zieten altuan eta ez zieten bazkaltzera etxera joaten uzten.

### **391. 16 urterekin gurasoen tabernan zerbitzari (ZES-039/010)**

16 urterekin gurasoen tabernan hasi zen lanean. Jatetxea eta lotarako tokia zuten eta tabernara joaten zitzaizkienei kanpoan ere bilatu ohi zieten lotarako tokia. Txoferrak izaten ziren gehienak.

### **392. Kaxatik angula lapurretan (ZES-039/012)**

Otorduetako jakiak aipatzen ditu. Koiote tabernara gibela jatera joaten zen jende asko. Kontxidak eta anai-arrebek angulak kaxatik hartu eta gordinik jaten zituzten.

### **393. Serenoek atea jotakoan taberna itxi behar (ZES-039/013)**

Gauean serenoak atea jotzen zuenean taberna itxi behar izaten zuten. Pattarra, anisa eta kofurgari edaten zen. Neskak ez ziren askotan sartzen tabernara. Anekdotak bat aipatzen du.

### **394. "Kortabanaka" eta asakaponekin jolasean (ZES-039/014)**

Kalera jolasera atera eta "kortabanaka" jolasean aritzen ziren; jolasaren nondik-norakoa azaltzen du. Enkarguren bat bazen etxean, aita kalera atera eta txistua jota abisatu ohi zien. Asakaponak (tortolosak) eta beste jostailu batzuk aipatzen ditu. Kartoizko panpinak izaten zituzten eta haiei arropak beraiek egiten zizkieten.

### **395. Lau iturriko albergara arropak astintzera (ZES-039/016)**

Argia eta ura beti izan zituzten etxean. Lehenengo dutxa ezkondu zenean izan zuen. Arropak eskuz garbitu eta astintzera Lau Iturriko albergara eramaten zituzten. Kontxitaren amak etxean egiten zuen xaboia. 17 urte zituela amak garbigailua erosi zuen.

### **396. Estraperloko tabakoa eta irina (ZES-039/017)**

Tabernatik inspektoreak pasatzen zitzaizkien eta estraperloko tabakoa ezkutuan izaten zuten. Honen inguruko pasadizo bat kontatzen du. Irina Azpeitiko errostatik eraman, etxean ogia egin eta estraperloan saltzen zuen amak. Errazionamenduko ogia beltza izaten zen eta patataren ordeztu boniatoa izaten zen. Gaurko tabako berdina izaten ziren orduan ere.

### **397. Mariatarren kongregaziotik bota zutenekoa (ZES-039/018)**

Mariatarren kongregazioan egon zen eta dantza lotuan egiteagatik nola bota zuten kongregaziotik azaltzen du.

### **398. Neskak gauez ateratzea gaizki ikusia (ZES-039/019)**

Erromeriara Aizarnara, Ibainarrietara eta inguruetara joaten zen oinez. Aizarnara joateko kamioi bat egoten zen. Neskak gauez ateratzea gaizki ikusia zegoen. Tabernara joaten zen mutil batekin elkartu, eta lagun batekin haserretu zenekoa kontatzen du.

### **399. Zestoako bainuetxea eta herriko hotelak (ZES-039/020)**

Udan jende ugari izaten zen Zestoan eta etxeak kanpotarrez beteta egoten ziren. Bainuetxeko urak gibela eta giltzurrunak sendatzen omen zituen. Zestoan hotel ugari zegoen eta izendatu egiten ditu. Kafetegi atarietan orkestrinak egoten ziren eta kalean komediantek.

### **400. Zestoako festak (ZES-039/022)**

Irailaren 8an eta Santa Kurutz egunez izaten ziren Zestoan festak. Zezenketak jartzen zituzten eta kanpoko toreatzaileak herriratzen ziren. Pilota partidak egunero izaten ziren, baina Kontxidak ez zuen gogoko pilota. Manuel Olaizola Uztapide Zestoako bertsolari ezaguna izendatzen du. Plazan, probalekua dago Zestoan eta idi-probak izaten ziren bertan. Plazaren aipamena egiten du.

### **401. Neskek ez zuten prakarik janzen (ZES-039/025)**

Emakumeek gona janzen zuten, prakarik ez zuten behin ere erabili. Arropak neurrira egiten zituzten jostunek. Jaunartzeko soinekoa Zestoako jostun ezagun batek egin zion, Isidrak. Garai hartan bi jaunartze egiten ziren, eta neska-mutilek elkarrekin egiten zuten.

### **402. Konfesatzera baraurik joan behar (ZES-039/026)**

Mezara igandero joan behar izaten zuten eta astero konfesatzen ziren; baraurik joan behar izaten zen, gainera. Neskek eta mutilek ez zuten berdin konfesatzen.

### **403. Tabernako kalkuluak buruz (ZES-039/029)**

Tabernan gertatutako anekdota bat kontatzen du. Tabernako kontu guztiak buruz egiten zituzten.

#### **404. Lajaia, presa eta Ertxina mendia (ZES-039/031)**

Zestoako lehena eta oraina alderatzen ditu. Lajaiako arboladia zuten toki kuttun jolaserako eta lagunartean egoteko. Presan bainu ugari hartutakoa da eta Ertxina mendira ere joaten ziren Ostegun Gizen egunez.

#### **405. Pistolero eta amodiozko pelikulak (ZES-039/032)**

Zinera joaten ziren eta pistoleroen pelikulak edo amodiozkoak ikusten zituzten. Eguberrietan "Soro feria" egiten zen, eta 3 tokitan jartzen zuten dantzaldia egun horretan.

#### **406. Ondarbaso baserrian jaioa (ZES-040/001)**

1939an jaio zen Ondarbaso baserrian. Ama Ondarbasokoa eta aita Lasturkoa zituen.

#### **407. Eskolan Lasaon eta Zestoan (ZES-040/003)**

Eskolan Lasaon ibili zen 5 urte zituela eta ondoren Zestoan. Etxetik Lasaora ordubete inguruko bidea zuen.

#### **408. Lasalletarrekin euskaraz (ZES-040/005)**

6 anai-arreba ziren eta arreba zaharragoarekin joaten zen eskolara. Dotrina ikasten zuten gehienbat apaizarekin. Maistrak mojak ziren. "Hermanos de La Salle"-n maisu izan zuen baten aipamena. Gaztelaniaz ikasten zuten, maisua erdalduna baitzen; "hermanoekin", berriz, euskaraz.

#### **409. Gariaren hainbesteko bat udalari (ZES-040/006)**

Baserritik bizi izan ziren. 14 urterekin eskola utzi eta etxera itzuli zen. Baserrian behiak, ardiak eta behorrak zituzten, besteak beste. Garia, artoa, patata... soroa lantzen zuten. Gariaren hainbesteko bat udaletxeari entregatu behar izaten zioten. Garia anegatan neurtzen zen eta nola neurtzen zen eta zenbat izaten zen entregatu beharrekoa azaltzen du.

#### **410. Etxean egindako ogia; errazionamendua (ZES-040/007)**

Etxetik gertu zituzten errota, baina gerra garaian prezintatuta egon ziren. Amak egiten zuen ogia etxean eta artoa ere bai gero zopak eginda jateko. Eguneroko otorduetan baba jaten zuten gehienbat eta igandeetan garbantzia izaten zen jaki berezia. Olio errazionamenduan egoten zen eta usain txarreko antzeko bat erabiltzen zuten.

#### **411. Baserriko bizimodua: ganadua, sagardoa... (ZES-040/008)**

Haragitarako behiak zituzten. Lehenengo laia non ikusi zuen azaltzen du. Behiak Zestoa eta Donostiako hiltegiatar saltzen zituzten. Etxe inguru guztia pagadia zen garai hartan. Sagastiak izan zituzten pinua sartu aurretik. Sagardoa egiten zuen etxean, baina sagarrak kanpotik erosita.

#### **412. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak (ZES-040/009)**

Urtean pare bat txerri hiltzen zituzten. Txerria hiltzen zen egun hura nolakoa izaten zen azaltzen du. Auzokoa joaten zen txerria hiltzera. Odolkiak banatzera auzora gustura joaten ziren trukean dirua edo beste zerbaite jasotzen baitzuten.

#### **413. Basoan lanean (ZES-040/010)**

Basoan ibili zen lanean. Etxea erre zitzaientekoa eta berria nola egin zuten azaltzen du. Orioko zerrategi batean, "Altuna y Uria"-n, etab. egin zuen lan basoan. Santanderren ere izan zen basoko lanean. Trontzan eta txondorrak egiten nola ikasi zuen azaltzen du.

#### **414. Txondorra nola egin (ZES-040/012)**

Txondorra nola egiten zen azaltzen du. 15- 22 egun behar izaten ziren egiteko eta egunero gau eta egun egon behar izaten zuten hura zaintzen. Etxetik gertu zuten.

#### **415. Soldadutza Burgosen (ZES-040/015)**

Soldadutza Burgosen egin zuen 21 urterekin. Aita jubilatzen zela eta, 3 hilabete eginda libratu zen. Instrukzioak egiten zituen. Aizarna eta inguruko lagunak zituen. Behin "Cabo primero" batekin pasatako pasadizoa kontatzen du.

#### **416. Lotuan dantza egitea bekatu (ZES-040/016)**

Erromeria zalea zen eta toki askotara joaten zen. Lagunak auzokoak zituen. Endoia, Aittola, Madariaga, etab. ziren orduko erromeria-leku ezagunenak. Arratsaldean izaten zen erromeria eta goiz bukatu ohi zen. Luistarren kongregazioan egon zenean dantza lotua bekatutzat hartzen zuten. Erromerian txartel bat ordaindu behar izaten zuten. Zestoako ferian lau "jazzband" talde izaten ziren.

#### **417. Maria Isabel Madariaga auzoan jaioa (ZES-040/018)**

Maria Isabel Madariagan jaio zen, Benta-Txuri baserrian. Aita bertakoa zen eta ama ere auzokoa. Eskolan Madariagan ibili zen, apaiz etxean. Maistra erdaldunak izaten zituzten eta dotrina, berriz, apaiz eta katekistekin euskaraz ematen zuten. Adin ezberdinetako neska-mutilak batera joaten ziren. Bi liburu izaten zituzten.

#### **418. Eskolako zigorrak (ZES-040/019)**

Euskaraz hitzik entzunez gero zigortu egiten zituzten belauniko jarrita edo paretari begira. 14 urterekin Azkoitira joaten zen matematika ikastera eta bitartean ume bat zaintzen zuen. Irabazten zuen diruarekin ordaintzen zuen eskola partikularra.

#### **419. Ia ordubeteko bidean oinez erosketetara (ZES-040/020)**

Maria Isabelek taberna bateko umeak zaintzen zituen eta izebaren etxean egiten zuen lo. Asteburuetan bakarrik joaten zen etxera. Baserrian ganadua zuten. Astoa hartuta joaten ziren erosketetara Azkoitira; ia ordubeteko bidea zuten etxetik kalera.

#### **420. Elgoibarren neskame (ZES-040/021)**

7 anai-arrebatan hirugarrena zen Maria Isabel. 16 urterekin Elgoibarrera joan zen neskame, etxeko lanak egin eta ume bat zaintzen zuen.

#### **421. Arrosarioa eta konfesatzea derrigorrezkoak (ZES-040/023)**

Inguruko erromeria-lekuak izendatzen ditu. Aittolan ezagutu zuten elkar. Mezara joatea derrigorra izaten zuten garai hartan. Madariagan bi meza egoten ziren. Zestoan kanpotar ugari egoten zela eta ordu erdiero egoten zen meza. Konfesatzea derrigorra izaten zen, eta bikotea musukatzea, dantza egitea... dena zen bekatu. Etxean egunero erreztatzen zuten arrosarioa iluntzean, afal aurretik. Ateetan gurutzeak jartzeko ohitura handia zegoen, tximista eta bestelako gaitzen kontra.

#### **422. Ur bila erre kara; etxearen garbiketa (ZES-040/024)**

Umeak zirela erre kara joaten ziren arropak garbitzera eta ur bila. Arropak eskuz garbitzen zituzten, lixiba egiten zuten lixiba ontzian. Etxeko zorua argizariz garbitzen zuten belauniko jarrita. Udaran menda-erratzarekin garbitzen zituzten gelak eta neguan txilar beltzarekin.

#### **423. Lehenengo irratia (ZES-040/025)**

Lehenengo irratia izan zutenekoa azaltzen du. Orduko irratsaioak aipatzen dituzte; erdaraz izaten ziren gehienak.

#### **424. Zestoako bainuetxeko zerbitzari (ZES-040/027)**

Isabel Zestoako Bainuetxean egon zen lanean, eta deskribatu egiten du. Zerbitzari eta taberna garbitzaile lanetan aritu zen. Nagusia zestoarra zen. Arratsaldeak libre izaten zituen eta iluntzerako bueltatzen zen. Bainuetxeko urak gibela eta giltzurruna garbitzen omen zituen.

#### **425. Kubatar ugari bainuetxera (ZES-040/029)**

Isabelek bainuetxean hiru hilabete egin zituen eta 25.000 pezeta irabazi zituen. Emakume gehienak zestoarrak ziren. Kubatar ugari izaten zen bainuetxean.

#### **426. Udan egunero pilota partidak eta musika (ZES-040/030)**

Udan egunero izaten ziren pilota partidak eta kolean musika taldeak egoten ziren. Zestoan beti izan zen bertsotarako zaletasuna. Manuel Olaizola&nbsp;Uztapide bertsolari ezaguna Ondarbasotik gertu bizi zen.

#### **427. 1927an jaio zen Arroabea (ZES-041/001)**

1927an jaio zen Arroabeko "hirautila" lantegi ondoko etxean; lantegiarena zen etxea. Ama Arroabeko "Mallu" baserrikoa eta aita Urretxukoa zituen eta 6 anai-arreba ziren familian.

#### **428. Eskola publikoan erdaraz ikasten zuten (ZES-041/002)**

Gurasoak ezkondu zirenean eta berak 2 urte zituela Zestoara joan ziren bizitzera, Osinbeltz baserrira, eta bertan ibili zen eskolan. Eskola kokatzen du. Gerra aurrean maristetara pasa zen ikastera. Eskola publikoan erdaraz ikasten zuen, maisu erdaldunak zituen.

#### **429. Maristetan dotrina euskaraz (ZES-041/003)**

Maristetan dotrina euskaraz ikasten zuten. Gerra denboran, jaunartzea egin behar zuenean, dotrina erdaraz ikasi beharra jarri zuten, baina Lazaro justuan libratu zen. Azpeitiko irakasle bat izan zuen.

#### **430. Aita turbinako zaintzaile (ZES-041/005)**

Osinbeltz etxea turbina etxea zen. Aitak hura zaindu eta baserrietan argia kobratzen zuen. Turbina nolakoa zen eta zertan zetzan azaltzen du.

#### **431. Lasaoko turbina etxera bizitzera (ZES-041/006)**

Gerra aurretik, 1935 inguruan, Lasaoko turbina etxera joan ziren bizitzera. Deskribatu egiten du. Urola ibaiko turbina indartsuena zen.

#### **432. Trukuman baserrian morroi (ZES-041/007)**

14 urtera arte ibili zen eskolan. Eskolan zebilen bitartean udaran morroi joaten zen baserriren batera, mantenuaren truke. Morroi egon zen baserri bat izendatzen du: Trukuman. Trukumangoen aipamena egiten du.

#### **433. Mugatik ihesean (ZES-041/008)**

Trukuman baserriko seme bat preso sartu zuten; eta, handik ateratzeko, falangean sartu zen. Hango pasadizoak. Mugatik ihes egin zutenekoa.

#### **434. Trukuman eta Mallu baserrietan morroi (ZES-041/010)**

Trukuman baserrian eta Arroako amaren jaiotetxean egon zen morroi, besteak beste. Gero, soldadutza egin arte Azpeitian ibili zen zapatagintza ikasten. Mantenuaren truke jende asko ibiltzen zen baserrietan lanean. Baserrian egiten zituen lanak azaltzen ditu, garia esaterako. Garia baserriko errenta ordaintzeko egiten zen gehienbat.

#### **435. Etxeko errenta ordaintzera dukeen bihitegira (ZES-041/011)**

Etxeko errenta urtean behin ordaintzen zen eta duke, konde eta abarren bihitegira joaten ziren ordainketa egitera. Lasaon eta Iraetan baziren kanpotar duke eta markesak.

#### **436. Behia umatzera Azpeitira oinez (ZES-041/012)**

"Ittulan" aritzen zen. Ganadua izaten zuten morroi egon zen lekuan, Trukumanen. Behia umatzera oinez eramaten zuen, Azpeitira esaterako. Txahalak hiltegira Zestoara eta Azpeitira eramaten zituen.

#### **437. Bainuetxean "botones" lanetan; gero zapatagintza ikastera (ZES-041/015)**

Lazaro bainuetxeko "Botones" lanetan aritu zen, enkarguak egiten zituen. Zestoako zapata denda batera askotan joaten zen enkarguak eramatera eta

ofizioa gustatu eta etxean zapatak konpontzen aritzen zen. Azpeitian hasi zen zapatagintza ikasten, eta Lasaotik bizikletan joaten zen goiz eta arratsaldean.

#### **438. Lasterketetan, egurrezko "Ilanta"-dun bizikletekin (ZES-041/016)**

Bizikleta lasterketetan parte hartua da. Ez zuen talderik eta bere kasa ibiltzen zen. Lehenengo aldiz Beasainen atera zen. Orduko bizikletek egurrezko "Ilanta"-k izaten zituzten. 1.400 pezeta inguru ordainduta erosi zuen Eibarren bizikleta eta hura ordaintzeko udara osoko bainuetxeko soldata behar izan zuen. Txirrindulari ospetsuekin batera ibilia da.

#### **439. Demetrio Egiguren zapata lantegian lanean (ZES-041/017)**

Azpeitian zapatagintza ikasi eta bertan lan egiten zuen. Dendaren ondoan tailerra zuten eta neurrira ere egiten zituzten oinetakoak konpontzeaz gain. Demetrio Egiguren zuen izena. Zapatak egiteko material ezberdina aipatzen du. Dena eskuz egiten zuten.

#### **440. Soldadutzan ere zapatagintzan (ZES-041/018)**

Soldadutza Gasteizen egin zuen, artilleriako soldadu egon zen. Ofizio lanetan eman zuen izena eta zapatagintzan sartu aurretik artifiziero egon zen. Kanoien ardura eramaten zuen. Soldaduen zapatak konpontzen aritu zen; bi erreal irabazten zituen eta zapaterian lan egiteagatik hilean duro bat irabazten zuen.

#### **441. Soldadutzan, egun bateko prebentzioa (ZES-041/019)**

Kalabozorik probatu ez bazuen ere egun bateko prebentzioa deiturikoa ezagutzea suertatu zitzaion; zertan datzan eta zer gertatu zitzaion azaltzen du.

#### **442. Zapata pare bat egiteko, egun eta erdi (ZES-041/020)**

Soldadutzatik etxera bueltatu eta zapata denda jarri zuen Zestoan, Azpeitian berarekin lanean ibili zen lagun batekin. Zapata pare batek 4.000 pezeta inguru balio zituen, eta egun eta erdi behar izaten zuten pare bat egiteko. Hasieran, eskuz lan egiten bazuten ere gerora makinak erosi zituen. Jubilatuta arte aritu zen zapatagintzan lanean.

#### **443. Bainuetxeko ura gibela sendatzeko (ZES-041/022)**

Udan kanpotar asko ibiltzen zen Zestoan bainuetxea zela eta; Lazaro ere udan ibili zen bertan lanean. Bainuetxeko urak gibela garbitzeko balio zuen, besteak beste. Bainuetxeko ura enboteilatu eta kanpora saltzen zen. Lan asko egiten zen eta jende ugari zegoen bertan lanean. Bertaratzen zen jendea kargu handiduna izaten zen eta beraien txoferra izaten zuten.

#### **444. Gerra garaian errota prezintatuta (ZES-041/024)**

Eguneroko otorduetan lentejak, babak, etab. jaten zituzten eta haiek ere errazionamenduan izaten ziren. Etxean morokila jaten zuten gehienbat. Lasaoko turbinan bizi zirenean errota gertuan zuten. Errota prezintatuta egon zirenekoa kontatzen du.

#### **445. Bainuetxeko ogiak, estraperlokoak (ZES-041/025)**

Estraperlotik isun ugari jasotzen ziren. Lazarok berak eramaten zituen bainuetxera estraperloko ogiak. Garraioa nola egiten zuten azaltzen du. Etxean aita bakarrik erretzen zuen eta orduko tabako ezberdinak izendatzen ditu.

#### **446. Estraperloan zebilela gertatua (ZES-041/027)**

Estraperloarekin lotutako anekdota bat kontatzen du.

#### **447. 1926an jaio zen Lasaoko turbina etxean (ZES-042/002)**

1926an jaio zen Lasaoko turbina etxean. 6 anai-arreba ziren. Ama Elgoibarkoa eta aita Itziarkoa zituen.

#### **448. Eskolan Zestoako nazionaletan (ZES-042/003)**

Eskolan Zestoako nazionaletan ibili zen Gasteizko maistra erdaldun batekin. Matematikak, gaztelania, dotrina, etab. ikasten zuten. Goiz eta arratsaldeztan joaten ziren eskolara.

#### **449. Eskolatik irtetean josten ikastera (ZES-042/004)**

Arratsaldeetan laborea egitera joaten ziren eskolara. 14 urterekin eskola utzi eta ume zaintzaile lanetan hasi zen. Josten ikastera joaten zirenean etxerako lanak egiten zituzten.

#### **450. Jaunartzea egiteko, dotrina derrigorrezko (ZES-042/005)**

Zazpi urte zituela hil zitzaion aita. Bi jaunartze egin zituen, Zestoan. Dotrina ikasi behar izaten zuten jaunartzea egiteko eta hura ematen zien apaiza izendatzen du. Apaizak deitutakoan bere aurrean jaiki eta ikasitakoa esan behar izaten zuten.

#### **451. Gerra hasi aurreko eguna (ZES-042/007)**

Gerra hasi zen garaian, Zestoan zegoen, 10 urte zituen. Gerra hasi aurreko egunean, eskolatik egindako irteerari buruzko kontuak kontatzen ditu. Gurasoen aipamena.

#### **452. Amak presoek jana eman eta anaiak zaindu egiten zituen (ZES-042/008)**

Gerra hasi zenean, bainuetxeko hotelean atxilotuta zeuden presoek jana eramaten zien Matilderen amak, dirua lortzeko. 17 urteko anaia fusila hartu eta bainuetxera joaten zen presoak zaintzera.

#### **453. Gerra garaian, etxetik ihesi (ZES-042/009)**

Irailaren 20ko egunez, komunistak sartu ziren Akua auzotik behera; eta, baserritarrei konfiskatutako ganaduarekin, herrira jaitsi ziren. Matildek bi ahizpa zituen Eibarren, bat bertara ezkontuta eta bestea neskame; eta anaiak haiengana ihes egin behar izan zuen. "Hotel Estaciónkoek" gonbidatu; eta Matilde hara joan zen lagunengana, umeak hartuta, beldurrez. Gau hartan eta hurrengo egunean gertatuak kontatzen ditu.

#### **454. Azkoitira eta Durangora gerratik ihesi (ZES-042/011)**

Gerra hasi eta zazpigarren hilabetera, familian "gorriak" zituztenak etxetik bidali zituzten. Matilde eta familiakoak ere Azkoitiko senitarteko batzuegana joan ziren; eta handik, Maltzagatik zehar, kotxe blindatuetan Eibarrera eraman zituzten. Han, ospitale moduko batean pasa zuten gaua, jende gehiagorekin batera. Eibarko senideak ere ihesi joanak zirela jakin zuten, eta haiengana joan ziren Durangora.

#### **455. Gerratik itzultzean etxea errexisatuta (ZES-042/021)**

Anaiak preso geratu behar izan zuen eta handik frontera eraman zuten. Matilde eta etxekoak Zestoara bueltatu ziren. Anaia Teruelgo frontean eta beste zenbaitetan ibili zen, eta karta bidez jartzen ziren harremanetan berarekin. Kanpoan hainbeste denbora igaro eta etxera bueltatzean, etxea errexisatuta aurkitu zuten eta kalean geratu behar izan zuten; Elgoibarrera joan ziren amaren senitarteko batzuen etxera.

#### **456. Gerratik bueltan ume zaintzaile eta zerbitzari lanetan (ZES-042/023)**

Zestoara itzuli zenean eskolan hasi zen berriz ere eta bitartean ume-zain ibili zen. Zestoako taberna batean zerbitzari lanetan ere aritu zen. Hileta ondorenetan Matilde neskame zegoen etxean ematen zuten lunch-a. Eskola ondorenean joaten zen tabernara lanera.

#### **457. Arropen garbiketa (ZES-042/025)**

Sukaldeko arraskara ez zen iristen eta koska baten gainera igota aritzen zen arropak garbitzen. Xaboia pastiletan izaten zen eta eskuz garbitu eta ganbaran zabaltzen zituzten arropak. Amak etxe askotan lan egin zuen eta hura labaderora joaten zen garbiketa egitera. Arropak hauts urdin batekin "aniltzen" ziren. Garbitokia non zegoen deskribatzen du.

#### **458. Lurra belauniko jarrita garbitzen zuten (ZES-042/027)**

Lehenengo sukaldea deskribatzen du. Lurra belauniko jarrita lixiba urarekin eskuilaz garbitzen zuten astean bitan. Hanka azpian alanbre bat jarri eta argizaria harekin kendu eta berriz pasatzen zuten. Garbiketako tresnak deskribatzen ditu.

#### **459. 14 urterekin eskola utzi eta neskame-lanetara (ZES-042/029)**

14 urterekin eskola utzi eta neskame hasi zen 18 urtera arte. Umezain ibili zen eta ume haien inguruan hitz egiten du.

#### **460. Maisua mantenuaren truke baserrietan irakasten (ZES-044/001)**

Joxe Mari 1925ean jaio zen Aizarnako Santa Engraziako Irure baserrian. Ama Irurekoa eta aita Akua bailarakoa zituen. Eskolan Etumeta auzoan ibili zen Azpeitiko maisu batekin eta ondoren Zestoan. Dotrina, matematika eta irakurketa zituzten ikasgai nagusi, baserri bateko gela batean ikasten zuten eta maisua mantenuaren trukean irakasten aritzen zen baserriz baserri. Euskaraz ikasten zuten.

#### **461. Dotrina eta jaunartzea (ZES-044/003)**

Gaizki portatuz gero atsedan ordurik gabe geratzen ziren. Dotrina etxean edo maisuarekin ikasten zuten jaunartze handia egiteko, Aizarnako apaizak hartzen zien lezioa. Jaunartzeak Aizarnan egin zituzten, txikia eta handia. Bakoitzak berak nahi zuen jantzia eramaten zuen jaunartzera eta neska-mutilek elkarrekin egiten zuten.

#### **462. Txerri-hiltzea auzotarren artean (ZES-044/004)**

Joxe Marik 13 anai-arreba zituen; bi ama izan zituzten. Luisaren etxean 10 ziren. Biak bizi izan ziren baserritik. Joxe Marik behiak eta ardiak izaten zituen etxean. Txerria aitak eta ondoren Joxe Marik hiltzen zuten; auzoko lagunak elkartzen ziren etxean.

#### **463. Arraina azoka egunean erosten zen (ZES-044/006)**

Txerria hildakoan, txorizo eta odolkiak auzora eramaten ziren. Txerrikia gazi-kutxan gordetzen zuten. Eguneroko bizimoduan talo-esnea eta babak jaten zituzten gehienean; arraina azokara joandakoan erosten zuten, antxoaa adibidez.

#### **464. Ogia nola egiten zen (ZES-044/007)**

Ogia etxean nola egiten zuten azltzen du Luisak; aste guztirako egiten zuten ogia. Artoa ere egiten zuten eta zopatan jaten zuten. Inguruko errota izendatzen ditu. Astoa edo zaldia hartuta joaten ziren eta hainbesteko bat kendu ohi zien errotrariak.

#### **465. Soroko lanak idiekin (ZES-044/008)**

Artoa, baba, etab. ereiten zituzten. Soroko lanetarako idiak ibiltzen zituzten. Aizarnan ia etxe guztietan zegoen idi-parea.

#### **466. Azpeitiko azokara saltzera (ZES-044/009)**

Aizarnara esnezalea joaten zen esnea jasotzera. Arrautzak, sagarrak eta oilaskoak azokan saltzen zituzten Azpeitian. Bi orduko bidea zuten etxetik Azpeitira. Gehienetan ama bakarrik joaten zen, eta mutilek ganadua eramaten zutenean laguntzen zioten.

#### **467. Santa Engrazian dantza lotua bekatu (ZES-044/010)**

Igandeetan duro bat ematen zieten gurasoek eta Santa Engraziara joaten ziren. Igandero egiten zen erromeria Santa Engrazian. Hernio, Iturriotz eta inguruetako erromeriak aipatzen ditu. Santa Engrazian soinu-jolea izaten zen eta lagun kuadrillak elkartzen ziren dantzara. Lotuan dantza egitea bekatu zen eta hala eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Erromeria garaiz hasten zen.

#### **468. Erromerietan dantzariak borondatea bota behar (ZES-044/011)**

Erromerietan bandeja pasa ohi zuten eta nahi zuenak borondatea botatzen zuen soinu-jolea ordaintzeko. Hernion dantza egiten zuenak derrigorrean hainbesteko bat bota behar izaten zuen. Santa Engrazian taberna barruan egiten zen erromeria. Neskak tabernan sartu arren ez zuten ardorik edaten; mutilek anisa edateko ohitura zuten. Aizarnan 4 taberna zeuden eta meza ondoren sartzen ziren mutil kuadrillak.

#### **469. Santa Engraziko baserriak (ZES-044/012)**

Santa Engrazia inguruko baserriak izendatzen ditu. Inguruko herrietako jaien aipamena.

#### **470. Neskame ibilitako tokiak (ZES-044/013)**

Luisa 18 urterekin hasi zen lanean, izeba baten tabernan. Gero Mutrikun, eta Urduñere ba. Azken honetan erdaraz ikasten aritu zen. Madrilen, Zarautzen, Donostian... zerbitzari lanetan taberna askotan ibili zen. Madrilen egon zenean bazuen berarekin neska euskaldun bat, gainontzean erdaraz egin behar izaten zuen.

#### **471. Xabierrera erdaraz ikastera (ZES-044/015)**

Joxe Mari Xabierrera joan zen erdaraz ikastera lehengusu batekin eta 6 hilabete egin zituen bertan. Medaila bat jartzen zioten euskaraz egiten zuenari eta eguerdian medaila zuenak ez zuen ardorik izaten. Ikasleei bazkaria ematen eta sukaldean laguntzen egiten zuen lan, gaztelaniaz ikastearen truke. Jesuitek ematen zuten eskola.

#### **472. Hilero konfesatzera (ZES-044/018)**

Igande goizean seietarako edo zazpietarako mezetara joaten ziren. Lastoari su eman eta harekin argi eginez joaten ziren ilunpetan ordubeteko bidean. Konfesatzera joan behar izaten zuten hilero, ez joatea bekatu baitzen.

#### **473. Konfesioak, errezoak eta ohiturak (ZES-044/020)**

Neskek sarearen alde batetik belauniko konfesatzen zuten eta mutilek berriz aurrez aurre. Irure sendian beti izan dira fededunak eta arrosarioa egunero errezatzen zuten. "Kirieleison"-en aipamena. Ateetan gurutzeak jartzen zituzten Santa Kurutzetan eta San Juanetan lizar hostoak; apaizari oilaskoa ematen zioten bedeinkatzearen truk.

#### **474. Gaixotasun eta sendabelarrak (ZES-044/021)**

Aizarnan ez zegoen medikurik eta zerbait pasatuz gero Zestoara joan behar izaten ziren, edo medikua joaten zen bestela etxera. Irure baserrian belarrak sendagaietarako erabiltzen ziren; batzuk aipatzen dituzte.

#### **475. Kanpaiak eta lutoa (ZES-044/022)**

Kanpai ezberdinak aipatzen dituzte, hil-kanpaia esaterako. Norbait hiltzen zenean etxean bertan izaten zen arrosarioa. Luisaren aita ezkon aurretik hil zen eta lutoz jantzita ezkondu zen. Gurasoren bat hiltzen zenean jaiero ogia bedeinkatzen zen bi urtez.

#### **476. Kaletar eta baserritarrak (ZES-044/023)**

Kaletarrek baserritarrak atzeratuagoak ziren pentsakera izaten zuten.

#### **477. Meatzean lan egiteagatik, soldadutzatik libre (ZES-044/024)**

Soldadutza ez egiteagatik Ertxina mendiko meatzeetan aritu zen lanean 4 urte eta erdiz. Egunko 4 pezeta irabazten zituen. Meatzeetan lan egiten zutenek bronkioetako arazoak izaten zituzten.

#### **478. Gari-jotzea (ZES-044/026)**

Gari-jotzea auzotarren artean egiten zuten eta lanak amaitzean afaria egiten zuten.

#### **479. Etxeko errenta ordaintzeko, garia (ZES-045/020)**

Iraetan bizi zirenean baserritik bizi ziren; bost-sei behi izaten zituzten etxean eta garia egiten zuten etxeko errenta ordaintzeko. Iraetan gehienak ziren erreterroak eta gariz ordaintzen zuten. Urtean behin ordaintzen zen errenta.

#### **480. Otorduetako jakiak eta txerri-hiltzea (ZES-045/024)**

Otorduetan baba, porrua, aza, etab. jaten zuten. Urtean bi txerri hiltzen zituzten eta txerriarekin ateratzen zuten olio, olio errazionamenduan izaten baitzen. Odolkiak egin eta auzora eramaten zituzten. Harakina joaten zen etxera txerria hiltzera eta txerriak gatz-kutxan gordetzen zuten kontserbatzeko.

#### **481. Ama Zumaiara berdura saltzera (ZES-045/026)**

Ama Zumaiara joaten zen berdura saltzera, astoari karroa lotuta. Zumaian lanean aritu zenean taloak eramaten zituen etxetik.

#### **482. Esne marmitetan ezkutatuta fideo estraperloa (ZES-045/027)**

Fideoen estraperloa ezagutu zuen Zestoan, esnea balitza moduan marmitetan sartuta. Baserritarra kaletarra baino hobeto bizi zen, kaletarrek barre egiten bazieten ere.

#### **483. Zestoa inguruko erromeriak (ZES-045/029)**

Gaztea zela, Ziolar baserrian, Santa Engrazian eta Arroa Behean egiten ziren erromeria handienak. Jai arratsaldeetan Zestoan komeriantek egoten ziren eta haiek ikustera joaten ziren. Zestoako zinearen aipamena egiten du; aberatsak bakarrik joaten omen ziren.

#### **484. Entretenimenduak: tabernako jokoa eta feriak (ZES-045/030)**

Azkoitian dantza lotua debekatua zegoen eta Mendarora joaten zen jendea han libre zelako. Igandeetan jokoa aritzen ziren tabernan. Feriak ikustera joatea gustatzen zitzaion eta trenez mugitzen zen hara edo hona.

#### **485. Labesuan ogia eta artoa (ZES-045/031)**

Argia eta ura beti ezagutu izan ditu etxean. Amak labesua egiten zuen eta arto-zopak jaten zituzten. Irinik sobratuz gero, noizean behin ogia egiten zuen, baina normalean etxeko errenta ordaintzeko erabiltzen zen.

#### **486. Igandero mezetara; etxean arrosarioa (ZES-045/032)**

Mezetara igandero joaten ziren Iraetara. Luistarren eta Mariatarren kongregazioak zeuden eta jauna hartu eta konfesatu egin behar izaten zuten igandero, txandatz. hiru apaiz egoten ziren. Neguan arrosarioa erreztatzen zuten.

#### **487. Gurutze eta eguzki-lore bedeinkatuak ateetan (ZES-045/034)**

Etxean ogiari muin eman eta gurutzea egin ondoren moztzen zuten. Ateetan eta soroan gurutzeak jartzen zituzten tximisten kontra. San Juanetan neskak eguzki-loreak bedeinkatzera joaten ziren; "erramileteak" deitzen zieten.

#### **488. Bainuetxeko ura gibela garbitzeko (ZES-045/035)**

Zestoako bainuetxean gibela garbitzeko ura izaten zen; ez zen edateko erraza izaten zuen usainagatik. Kanpotar ugari etortzen zen herrira eta hotelak beteta egoten ziren. Zestoari "Madril txiki" deitzen zioten. Ura botiletan sartu eta kanpora saltzen zuten bainuetxekoek.

#### **489. Udako pilota partiduak eta dantzaldiak (ZES-045/036)**

Udan egunero bi pilota partidu izaten ziren eta ostegunetan musika bandak jotzen zuen Lajaiako arboladian.

#### **490. Zestoa betidanik herri aurreratua (ZES-045/037)**

Zestoakoak izan ziren inguruetako lehenengo irakasle maristak. Kafe espresoa ere Zumaian hasi zen lehenbizikoz, eta inguruko herrietako jendea kafea hartzera joaten zen Zestoara. Kubatar ugari etortzen zen herrira.

#### **491. Zestoara kanpotar ugari (ZES-045/038)**

Herriko asko ezkondu ziren herrira joandako kanpotarrekin. Bainuetxean herriko nahiz kanpoko jende ugari aritzen zen lanean.

#### **492. Morroi lana (ZES-047/004)**

Morroí zela, ganaduarekin egiten zuen lan: sei behi. Bere nagusia Iraetako administraria zen, eta berak eraman behar etxeko martxa. Lan tristea zen. Soroko lanak, ganaduarentzako jatekoa bilatzea.

#### **493. Etxeko kontuak (ZES-047/005)**

Bost behi zituzten, baina gaizki ibiltzen ziren belarrarekin. Garia egiten zuten etxeko errenta ordaintzeko. Urtean behin ordaintzen zen, eta gari nahiko ez bazegoen, dirutan ordaindu behar. Errenta ez zen garestia.

#### **494. Iraetako eta Narrondoko errotak (ZES-047/007)**

Iraetako errota non zegoen azaltzen du. Narrondoko errotari buruz hitz egiten du. Errotara ezkutuan joan behar izan zuten. Etxean garia ehotzeko makina bazuten. Goserik ez zuten pasa. Gurasoei buruz hitz egiten du. Ogia ez zuten egiten hasieran gariarekin, ez baitzegoen hainbeste.

#### **495. Txerriak hiltzen ibilitakoa (ZES-047/008)**

Urtean bi txerri hiltzen ziren: bat eta erdi etxerako, eta erdia "kaminerua"rentzat. "Axalak" hiltzen zituen txerriak. Gerora, Juanek ikasi, eta berak hiltzen zituen. Ordaindutako lana zen, odolkiak ordainetan.

#### **496. Etxeko behiak (ZES-047/010)**

Etxeko behiak esnetakoak ziren, eta haien esnea eskura ematen zien bezeroei, marmitatan, egunero. Esnezaleak gerora azaldu ziren. Marmita hustu eta berriro erabiltzen zuten. Bazkaldu etxean, eta udan arratsaldetan

ere hoteletan banatzen zuten esnea. Turista asko zeuden, eta beraiek hasiberriak zirela dio.

#### **497. Teila-fabrika (I): nola egiten ziren teilak (ZES-047/011)**

Etzetik irtetea, teila-fabrikan hasi zen lanean Arroan, soldadutzara joan bitartean, 18 urte inguru zituela. Teilak eta adreiluak nola egiten ziren azaltzen du. paketatuta gabe saltzen zuten; kamioiak eta bagoiak kargatu, eta bidali egiten zituzten.

#### **498. Soldadutza (I): bere zereginak eta egun bereziak (ZES-047/013)**

Soldadutza Gasteizen. Gastadore izan zen. Zaldian ibiltzen ikasi zuen, eta orduan desfileetan ateratzen zen egun seinalatueta. Igandetan, meza eguna, eta lagundu egin behar izaten zuen. Guardiari ez zuen egin behar. Kuarteletik irteteko libre ziren. Palacioekin parrandan joaten zen.

#### **499. Soldadutza (III): kontu ugari (ZES-047/015)**

Soldadutzako janzkera. Lagunek ezkutuan gordetako janaria jaten zuten. Guardia egin behar zutenean, bandoa ematen zuten, hurrengo eguneko menua esateko.

#### **500. Soldadutza (V): bihurrikeriak eta instruktore lana (ZES-047/017)**

Ihes egiten zuteneko kontuak. Zerrautsarekin izandako istripua. Ziegarik ez zuen probatu. Berekin izandako pilotarien abenturak. Pilotarien instruktore izan zen. Erdaraz egitea, barre egiten zion jendeak.

#### **501. Soldadutza (VI): ogia eta etxerako baimenak (ZES-047/018)**

Soldadutzan egon zenean, ez zegoen nahikoa ogi. Etxerako baimen gutxi. Izatekotan, ostiraletik astelehenera bakarrik. Gerora 3 hilabeteko baimena lortu. Frantziara ihes egin ez izanagatik pena.

#### **502. Zestoako giroa Juanen gazte-garaian (ZES-047/020)**

Orain baino giro hobea: musika kalean, kartatan tabernan, sardina zaharrak jan, pilota-partiduak... Anaiari buruzko aipamena. Pilotari asko Zestoan ikasiak. Juan bera pilotan ibili bai, baina ez besteen mailan.

#### **503. Taxi-gidari lana (ZES-047/022)**

Kotxea erosi, eta taxi-gidari lanak egiten zituen Zestoako kaletik bainuetxera turistekin.

#### **504. Frantziarako bidaiak eta estraperloa (ZES-047/023)**

Frantziara irteerak egiten hasi zen. Koinatuaren anaia berekin taxi-gidari hasi zen. Zestoako denda batentzako tela ere ekartzen zuten Frantziatik. Estraperloan ibili askotan. Aduanako abenturak.

#### **505. Zorrak nola ordaindu zituzten (ZES-047/024)**

Ezkonduta eta Zumaiara bizitzera. Emazteak janaria prestatzen zien Zumaian zeuden frantsesei. Bi soldata zituzten, eta horrela aurreztu zuten. Frantziara ere bidaia asko: Lourdesera, enpresariekin...

### **506. Taxi barruko pasadizo xelebreak (ZES-047/025)**

Ume bat autoan hilda jaio zeneko istorioa. Baina bestela ere erditze asko izan dira bere taxian.

### **507. Taxian nola moldatzen zen (ZES-047/026)**

Koinatuarekin txandak egiten zituen: gaueko eta eguneko txanda. Lapurretarik ez du izan, mehatxurik ez, istripurik ez. Lehen beste modu batera kobratzen zen.

### **508. Taxiarekin egindako lan motak (ZES-047/027)**

Alfa Romeoa erosi zuen. Etekina atera zion. Irteerak egiten zituen. Ehizarako sasoian, aurretik enkargatzen zizkien fetxak. Halakoetan, kanpoan gelditzen zen lotan. Gustura ibiltzen zen.

### **509. Ezkondu eta ondorengo urteak (ZES-047/029)**

Noiz, non eta norekin ezkondu zen azaltzen du, eta ezkondu ostean zer lanekin moldatu ziren bizitzeko.

### **510. Eliza eta erlijioa lehen (ZES-047/033)**

Elizara lehen joaten zen, behartuta. Orain ez. Mezetara nora joaten ziren. Iraetako apaizaren aipamena. Nahitaez konfesatzera joan behar zuten. Orain ez du sinesten apaizengan.

### **511. Dantza eta bekatua (ZES-047/036)**

Dantza lotua bekatu handia zen. Iraetako alkateak Iraetako festetan dantza jarri zueneko. Gaur egun sinesten zailak dira kontu horiek.

### **512. Gerra (I): aurreneko tropak azaldu zirenekoa (ZES-048/001)**

Aurreneko tropak azaldu ziren. Elizako dorrera igo zen kanpaia jotzera jendea enteratzeko.

### **513. Gerra (II): ganaduari gertatutakoa (ZES-048/002)**

Ganadua hartu egin zioten jendeari. Juanen familiak laguntza izan zuen bere behiak mantentzeko. Behia saltzeko gertatutakoak. Behiak nola babesten zituzten, ez lapurtzeko.

### **514. Gerra (III): milizianoak etxean (ZES-048/003)**

Ez zuten etxetik alde egin. Milizianoek beren etxean egin zuten lo. Koñak botilaz betetako zakua topatu, eta banatu egin zituen.

### **515. Gerra (IV): armak (ZES-048/004)**

Bonbarik ez zuen ikusi. Gerrak gutxi iraun zuen Zestoan. Plazatik etxera eskopeta ekarri zuen. 15-16 urte zituen.

### **516. Gerra (V): Zestoan fusilatutakoak (ZES-048/005)**

Milizianoak mozkortu, eta hurrengo egunean fusilatu egin zituzten. Gero Iraetan 7 hil zituzten. Eta zer egin zuten gorpuekin.

### **517. Gerra (VI): gosea eta janaria (ZES-048/008)**

Goserik ez zuen pasa, artoa eta babarruna baitzeukaten. Kale-ume askok, ordea, bai. Errazionamendua ezagutu zuen. Bakailao ugari zegoen garai hartan. Baina etxean arrain gutxi; haragi gehiago, txerriak urte guztian. Kolesterolaren beldurrik ez zuten.

### **518. Aurrerapenak etxean (ZES-048/009)**

Argia etxean beti izan zuten. Ura gerora instalatu zuten; aurrenekotarikoak izan ziren. Iturri eder batetik zetorren ura. Arropa iturri hartan garbitzen zuten. Telefonoa lehenengo aldiz eskolan ikusi zuen, baina etxean gerora arte ez.

### **519. Aizarna auzoko Irure baserrian (ZES-051/002)**

Pako Eizagirre Irure, Irure baserrian jaioa, Aizarnan. 1946. urtean jaio zen. Herri izaera zuen Aizarnak, nahiz eta Zestoako auzo bat izan. Ama zen Irure baserrikoa, aita Akua auzokoa zen. Ama hil eta haren ahizparekin ezkondu zen aita. Hamalau senide izan dira guztira, Pako gazteena.

### **520. Etxean dena euskaraz (ZES-051/004)**

Amak ia ez zekien gaztelaniaz. Aita kanpora joana zen gaztelania ikastera. Etxean beti euskaraz egin dute. Bederatzi urterekin eskolaratu zen Pako.

### **521. Irakurtzen eta idazten baserrian ikasi zuen (ZES-051/005)**

Eskolan izan zuen lehen kontaktua gaztelaniarekin. Baserrian bertan ikasi zuen irakurtzen eta idazten, dotrinaren bitartez. Eskolara hasi zenean, Zestoako tabernan egiten zuen lo astean zehar, eta asteburuan joaten zen bueltan Aizarnara. Hamar urterekin Oñatira joan zen agustindarretan ikastera. Han dena gaztelaniaz egiten zuten.

### **522. Muskerraren istorioa (ZES-051/007)**

Irure baserria Santa Engrazi ermitatik gertu dago. Han inguruan ibiltzen ziren ardiak eta behiak zaintzen. Baserri ingurutik ez aldentzeko istorio asko kontatzen zizkieten, tartean muskerrarena. Musker batek koska eginez gero, zazpi herritako kanpaiak jo arte ez omen zen askatzen. Pako kezkatuta egoten zen, bost herritako kanpaiak bakarrik ezagutzen zituelako.

### **523. Trumoiaren aurkako erremedioa: otoitza (ZES-051/009)**

Mahaiaren kontra jarri, kandelak piztu eta otoitz egiten hasten zirentrumoiak eta tximistak zeudenean.

### **524. Katonaren bidez idazten ikasi zuen (ZES-051/010)**

Anai-arrebek elkarri irakasten zieten irakurtzen eta idazten, zaharrenak hurrengoari eta abar. Amak, gainera, dotrina irakasten zien. Pakoren kasuan, jaunartze txikia bost urterekin egin zuen, ordurako bai baitzekien dotrina buruz. Katona erabiltzen zuen idazten ikasteko.

### **525. Baserritarra izanagatik ezjakin konplexua (ZES-051/011)**

Baserritarra izanagatik eta gaztelaniaz ez jakiteagatik tuntun edo ezjakin konplexuarekin joaten zen eskolara, baina denborarekin konturatu da Pako

kaletarrekin konparatuta, gauza asko zekizkiela, nahiz eta orduan gauza horiek ez baloratu, hala nola, zuhaitz motak eta baserriari lotutako jakinduria.

#### **526. Aizarnatik Oñatira (ZES-051/013)**

Hamar urte zituela Oñatira joan zen agustindarren seminariora. Ordurako etxean giro erlijioso handia zegoen, hiru anai jesuita baitzituen, eta hiru arreba moja. Mutiko azkarrek berehala bideratzen zituzten seminariora. Hasiera batean, Donostiara joan behar zuen seminariora, baina azkenean Oñatira joan zen.

#### **527. Oñatin eskola gaztelaniaz, baina giro euskalduna (ZES-051/015)**

Batxillergoa aurretik urtebeteko prestakuntza bat egiten zen. Hamar urterekin Oñatira joan, eta berehala gaixotu egin zen, hezurretako tuberkulosiak jota. Urtebete ondoren, hamaika urterekin, Oñatira itzuli zen. Ikasketak gaztelaniaz baziren ere, giroa ez zen erdalduna, izan ere, ikasle gehienak euskaldunak ziren.

#### **528. "Permiso para el excusado" (ZES-051/016)**

Seminarioan zegoel, ikasten egoten ziren gelatik komunera joateko baimena eskatu behar izaten zuten. Pakok, ordea, ez zekien gaztelaniaz baimena nola eskatzen zen, eta ikaskideek zer esaten zuten entzun, eta imitatzen saiatzen zen.

#### **529. Oñatitik Gasteiza (ZES-051/018)**

Hamar urterekin Oñatira joan, eta 21 urterekin Gasteiza joan zen Pako. 67aren bueltan Teologia Fakultatea martxan zebilen Gasteizen, baita Batikano II.a ere bai. Teologia ikastera joan zen Gasteiza, pisu batean bizitzera Eusebio Osarekin batera.

#### **530. Batikano II (ZES-051/019)**

Elizak zituen joerak aldatu eta alderdi sozialaz kezkatzen hasi zen. Pakoren eta lagunaren asmoa fraidetza arlo sozialarekin uztartzea zen.

#### **531. 68ko Maitzaren oihartzuna (ZES-051/021)**

Olatitik 67an etorri ziren Oñatitik Gasteizko seminariora. Kezka sozialagoak zituzten ordurako seminarioko ikasleek, eta Gasteizen grebak hasiak ziren. Sekularizazioaren aldeko apustua egin zuten.

#### **532. Gasteizko giro euskaltzalean eta erlijiosoan murgilduta (ZES-051/023)**

Gasteiza joan zirenean, ordurako bazen euskararen gaineko kezka. Filosofian 'Gure Txokoa' izeneko aldizkaria zegoen, Teologian 'Erein'. Mezak euskaraz izaten hasi ziren, haietan laguntzen eta kantatzen jardun zuten.

### **533. Euskarazko meztatik euskalgintzara (ZES-051/025)**

Euskalgintzan sartzeko asmorik gabe joan ziren Gasteiza Oñatiko seminariotik, baina euskarazko mezetara joaten hasi eta euskal mugimendu handia sortu zen. Hala ere, lehenagotik Manuel Iradier eta Judimendi taldeak zeuden. Prestakuntza gutxi zuten, baina borondate handia. 'Euskera radiofoniko' metodoarekin hasi eta euren garatu zuten. 'Euskera hire laguna' eta 'hizketan'.

### **534. Gasteizen topatutako aurrekariak (ZES-051/027)**

Oñatiko seminariotik Gasteiza joan zirenek ez zuten Gasteizko euskararen panorama ezagutzen, gerora ezagutu zituzten euren aurrekariak, hala nola, Peli Presa, Izaskun Arrue, Sorne... Dirua jartzen zuten irakasteko materiala sortzeko.

### **535. Eusebio Osaren ibilbidea (ZES-051/029)**

Eusebio Osari jarraitu zioten Oñatiko seminariokoek. Zenbait aldizkaritan idazten zuen, abesten ere trebea zen. Haron ikasten ibili zenean irakasle izan zuen Eusebio Osa. Logika ere irakasten zuen. Oso irakasle ona omen zen, eta asko irekitzen zien burua ikasleei. Filosofo aurrelari eta kritikoenak azaltzen zituen eskolan. Kantu eta musikazalea ere izan zen. Tira-birak izan zituzten Oñatiko seminarioarekin, eta apaizgintza uzten lehenengoa izan zen Eusebio. Oso humanoa eta irekia zen.

### **536. Eusebio Osa hamaika arlotan murgildurik (ZES-051/031)**

Eusebio Osa zenbait arlotan murgildu zen, langile mugimenduan, hezkuntzan, euskalgintzan... Olabideko arlo pedagogikoaz arduratzen zen, baina bota egin zuten handik. Oso ezkertiarra zen hura, eta erlijioa eskolatik kanpo ematea defendatu zuen.

### **537. Araozgo barnetegia (ZES-051/033)**

Gau-eskolez eta eskola intentsiboez gain, Oñatiko Araotz auzoan barnetegia egin zuten. Jende ezagun mordoa joan zen bertara. Guardia Zibilak barnetegia egin zela jakin zuenean, hara joan eta dena miatu zuen.

### **538. Araozgo barnetegian atxilotu zutenekoa I (ZES-051/034)**

Araozgo barnetegiaren arduraduna zen Pako, eta Guardia Zibilak atxilotu egin zuen, beste birekin batera. Komisaldegian egun batzuk pasa ondoren, Martutenera eraman zituzten.

### **539. Araozgo barnetegian atxilotu zutenekoa II (ZES-051/035)**

Pako eta lagunak atxilotu zituztela ikusita, Gasteizen jende mordoa hasi zen Pako bizi zen pisura joaten, haren inguruan galdezka. Goardia Zibilak pisura joandako guztiak atxilotu zituen. Pisua itxi eta han zuten guztia eraman zuten, dirua barne. Euskara irakasteagatik ETakoak zirela egotzi zieten.

### **540. Burgosko prozesua (ZES-051/037)**

Burgosko prozesua zegoela, ordurako Gasteien zeuden Pako eta lagunak. Gasteizko seminarioan, barruan, greba bat bultzatu zuten eurek. Hamasei

pertsona atxilotu eta heriotz zigorra eskatu zitzaien Burgosko prozesuan. Oihartzun handia izan zuen honek, eta hamaika greba eta manifestazio egon ziren honen aurka.

#### **541. Euskara Batua sortu zeneko gatazketatik urrun (ZES-051/039)**

Euskara Batua sortu zenean, Pako eta Gasteizen zebiltzan lagunak ez ziren gatazketan sartu. Euskararen berrikuntzaren alde zeuden, hala ere. Euskara irakasteko Txillardegiaren 'Urratsak' liburua zerabiltzen.

#### **542. 1976ko Martxoak 3ko sarraskia (ZES-051/041)**

Lan mugimenduan parte hartze handia egon zen, eta beste zenbait arlotara ere iritsi zen. Pako eskola pribatu bateko irakasle zen ordurako, ia asanblada guztietara joaten zen. Hori dela eta, oso gertutik bizi izan zuen Martxoak 3an gertatutakoa. Elizan sartzen ari zirela entzun zuen sarraskiko lehenengo tiroa. Plaza hartan bertan bizi ziren eta pisura ihes egitea lortu zuten.

#### **543. Juan Bautista Gamiz taldea eta ikasleak (ZES-051/043)**

Juan Bautista Gamiz taldea sortu zuten Oñatiko seminariotik etorritako batzuek, tartean, Pako. Euskaraz bazekitenak elkartu eta irakasten hasi ziren. Gero ikasleak batu zitzaizkien, eta haiek ere euskara irakasten hasi ziren. Gasteiztarak, gipuzkoarrak, preso ohiak, euskaldun berriak, emakumeak... Ikasle gehienak arbaso abertzaleak izandakoak ziren, beste batzuk ondoren abertzaletutakoak.

#### **544. Nor zen Juan Bautista Gamiz? (ZES-051/044)**

Euskal poesia idazten zuen arabarra zen Juan Bautista Gamiz. Modu berean Umandi eta Olabide.

#### **545. Juan Bautista Gamiz taldetik sortu zen AEK (ZES-051/045)**

Eskola pribatuan 7 urtez aritu zen euskara irakasten. Berehala bideratu zuen bere jarduna irakaskuntzara, baita udan ere. Irakasleei euskara irakasten hasi zen. AEKko sorreran egon bazen ere, ez zuen zuzeneko antolakuntzan parte hartu. Oposaketak atera eta irakasleak euskalduntzen hasi zen.

#### **546. Araban ahalegin handia egin da euskararen alde (ZES-051/047)**

Araban ahalegin handia egin du jendeak euskarari eutsi eta hiztun berriak sortzeko. Arabako eskola gehienetan D eredu dago gaur egun, eta aldaketa hori oso denbora gutxian eman da. Euren kabuz euskara ikasi zuen jende asko zegoen.

#### **547. Gasteizen ez zegoen euskararik ia (ZES-051/049)**

Oñatiko seminariotik Gasteiza joan zirenean, euskarak oso bestelako egoera zuen hirian, instituzio mailan ez zen existitzen. Izaskun Arrueren isilpeko ikastola eta eskola partikular batzuk kenduta, euskarak ez zuen presentziarik. Hala ere, ikasteko eta lanerako gogo handia zuen jendea bazen.

#### **548. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (ZES-051/050)**

Pakoren iritziz, neurri handi batean euskaraz bizi daiteke Gasteizen. Egoera nahasia dago giroaren arabera, baina giro zehatzetan aukera asko dago, eta bi

hizkuntzen presentzia handia da. Egunerokotasunean euskara gehiago entzuten da, dendetan, tabernetan...

#### **549. Beste ama hizkuntzak baloratu behar dira (ZES-051/052)**

Hizkuntza jarrerei dagokienez, politika mailan euskara ez baloratzea edo errespetatzea ezin du ulertu Pakok. Oso zorteduna sentitzen da Pako ama hizkuntza euskara duelako.

#### **550. Gasteizko aisialdian euskarazko aukera gehiago (ZES-051/053)**

Gauza mordoa antolatzen da Gasteizen aisialdira begira, eta horietako asko eta asko euskaraz. Aukerak egon badaude, baina erakargarria egitea da erronka.

#### **551. Zer da euskara zuretzat? (ZES-051/055)**

Pakok euskara asko gozatzen duen hizkuntza du, komunikatzeko balio diona, bere izaeraren parte bat. Bizitzeko eta izateko modu bat. Jolasa.

#### **552. 'Aittu' Ipuinen webgunea (ZES-051/057)**

IRALEko lanerako ipuinak sortzen zituen, eta zaletasun bilakatu zen hura. Jubilatutakoan, 'Aittu' ipuinen ataria sortu zuen interneten.

#### **553. Eskolan ahozkotasuna bultzatu behar (ZES-051/059)**

Euskararen erabilera ikusita, hezkuntzak autokritika bat egin behar duela uste du, euskara oso modu akademistan tratatu duelako, ahozkotasuna ez da bultzatu.

#### **554. IRALEn ahozkotasuna lantzen (ZES-051/060)**

IRALEn izandako esperientzian, ahozkotasuna landu izan du, baina jendaurreko kontaketak saihestu ditu. Ahozkotasuna irakurketa antzeztuarekin landu du.

#### **555. Irakurketa antzezturako aholkuak (ZES-051/061)**

Irakurtzeko testua ondo ezagutu behar da, esandakoa barneratu, eta teknikoki landu: geldialdiak, enfasiak... Testuaren arabera, galdegaiak, enfasiak aldatu egingo dira. Arnasketa.

#### **556. Herri Batasunako zinegotzia (ZES-053/001)**

Eibarko lehenengo gobernu demokratikoko Herri Batasunako zinegotzia izan zen. Mikel Larrañaga zen alkatea. Udalean giro nahasia zegoen.

#### **557. Eibartik Berrizera bizitzera (ZES-053/003)**

Eibarko giroa oso gogorra zen 70. hamarkadaren amaieran. Drogaren arazoa larria zen eta Eibartik Berrizera joan ziren bizitzera.

### **558. Donostiako La Salleko barnetegian ikasten (ZES-053/004)**

Zestoa 12 urterekin utzi eta Donostiako La Salle barnetegian ikasi zuen. Alfredok bertako oroitzapen onak ditu. Bere anaiak ere bertan ikasi zuen arren, ez zuen inoiz hortaz hitz egiten.

### **559. Farmazia ikasten Iruñan (ZES-053/005)**

Alfredo Iruñara joan zen Farmazia ikastera. Ez zen ikasle ona baina karrera ona aukeratu zuen.

### **560. Farmaziaren barruan formatzen: dermofarmazia, ortopedia... (ZES-053/006)**

Eibarren farmazia eta bezeroekin euskaraz egiten zuen. Jendea harrituta zegoen baina oso ondo hartu zuten. Sendabelarrei buruz galdezka hasi ziren eta berak zaletasuna zuenez, ikastaroak egiten hasi zen: dermofarmazia, belarrak...

### **561. Eibarren farmazia zabaldu zuen (ZES-053/007)**

Eibarren farmazia zergatik eta nola zabaldu zuen kontatzen du.

### **562. Eibarko taberna guztietan abestu egiten zen (ZES-053/008)**

Eibarrera bizitzera joan zenean, tabernetan jende guztiak abestu egiten zuen.

### **563. Herri Batasunako zerrendetan (ZES-053/009)**

Euskarazko alfabetatze klaseak ematen hasi zen eta bere ingurukoek Herri Batasunako zerrendetan joateko eskatu zioten eta baietz esan zuen.

### **564. Begetarianismo eta ekologismoan nola hasi zen (ZES-053/010)**

Begetarianismo eta ekologismoan nola hasi zen kontatzen du. Gaitz txikientzat (hotzeria, beherakoa...) antibiotikoak saltzeko zegoen ohituraren kontra egon da beti eta hori botikaria izatearekin talka egiten zuen.

### **565. Ekologismoko militantea (ZES-053/011)**

Behin semea medikura eraman eta nahiz eta honek ongi ikusi, antibiotikoak eman zizkion. Bere ekologismo ideologiarekin ez zetorren bat. Gipuzkoako farmazialarien elkargoko batzarkidea izan zen eta Lemoizko zentralaren auzia planteatu nahi izan bazuen ere, ez zuen lortu.

### **566. Begetarianismotik ekologismorantz (ZES-053/014)**

Alfredok baserrian bizi nahi zuen eta bere barazkiak ekoiztu. Etxekoei ekologismoaren ideologia transmititzen.

### **567. Drogen arazoa Eibarren I (ZES-053/016)**

Alfredok botika zabaldu zuenean, drogen arazoa oso larria zen Eibarren. Bere alderdi politikoak gauetan piketeak ipini nahi zituen droga gehien kontsumitzen zen kaleetan baina bera ez zen inoiz ados agertu. Baserriara bizitzera joateko faktoreetako bat izan zen drogaren arazoa Eibarren.

### **568. Beti sistemaren kontra (ZES-053/018)**

Antisistematzat dauka bere burua Alfredok. Gaztetan manifestaldi batean egin zutenaren istorioa kontatzen du.

### **569. Euskararen presentzia botikan (ZES-053/019)**

Euskara beti izan da oso garrantzitsua Alfredorentzat. Botikako errotulazioa euskaraz jarri zuen. Eibartarrek asko eskertu zuten.

### **570. Asanbladen desagerpena demokraziarekin bat (ZES-053/021)**

Trantsizio garaian, demokrazia sartzen hasi zenean, Eibarko auzoetan zegoen asanblada-mugimendua galtzen hasi zen. Gauza ezberdinak adosten ziren.

### **571. Drogen arazoa Eibarren II: botikan xiringak ematen (ZES-053/022)**

Drogen arazoa egon zenean, botikan xiringak ematen zituen Alfredok dohainik. Nahiago zuen berak eman eta bakoitzak berea erabiltzea. Kritika asko jaso zituen.

### **572. Drogen arazoa herri borrokalarienetan (ZES-053/023)**

Euskal Herriko herri borrokalarienetan drogaren arazoa larriagoa izan zen: Eibarren, Elgoibarren, Oreretan... Beti esan da poliziak sartu zuela droga gazteria mantsotzeko eta gizarte eta politika mugimenduetan ez sartzeko. Botikan izan ditu gazteak abstinentzia-sindromearekin.

### **573. Drogen irudia trantsizio garaian (ZES-053/025)**

Drogei eta alkoholari buruz duen irudia azaltzen du. Zinegotzi izan zeneko istorio bat kontatzen du.

### **574. Mugimendu hippy-a eta askatasuna (ZES-053/028)**

70. hamarkadan, hippy-en mugimenduekin, jendea askeagoa zela uste du Alfredok. Orain, gizartea pixkanaka atzera doa.

### **575. Arrate Kultur Elkartea (ZES-053/031)**

Arrate Kultur Elkarteko zuzendaria izan zen, elkartearen garai txarrenetan, Zer egiten zen kontatzen du: hitzaldiak, zineforuma, taberna, eztabaidak, erakusketak...

### **576. San Andres azokaren sorrera I (ZES-053/032)**

Lehenengo San Andres azoka antolatu zuen Alfredok beste lagun begetariano batzuekin. Baserriz baseri joan ziren ekoizleak bilatzen, hauek postuak jartzeko azokan. Arrakasta handia izan zuen. Udala azokaren antolamenduan sartu zenean, Alfredo eta bere lagunak atera egin ziren.

### **577. San Andres azokaren sorrera II: ekologismoa (ZES-053/034)**

San Andres azoka antolatzeke helburua, jendeari barazkiak jaten erakustea izan zen. Orduan, ez zen garrantzitsua pestiziden erabilera baina gaur egun bai.

### **578. Euskarazko literatura irakurtzen du (ZES-053/035)**

Alfredok gaztetan irakurtzen zuenari buruz hitz egiten du. Hasieran filosofiari buruzko liburuak irakurtzen zituen baina gero, euskarazko liburuak bakarrik irakurtzen hasi zen.

### **579. Trantsizioa, ETA, independentzia, EAJ... (ZES-053/037)**

Trantsizioari buruz galdetzen zaionean, ETA ekartzen du burura. Euskal Herri independente bat ezagutuko zuela uste zuen baina orain badaki ez duela ezagutuko.

### **580. Mugimendu antinuklearra eta herri-mugimenduak (ZES-053/038)**

Lemoizeko zentral nuklearraren kontrako mugimenduei buruz hitz egiten du. Iberduero-ri boikota egingo zela hitz egin zen baina dirudenez, Alfredok bakarrik egin zuen eta argia moztu zioten. 70. hamarkadan, herri mugimendu asko egon ziren. Adibideak jartzen ditu.

### **581. Lemoizeko zentral nuklearraren itxiera (ZES-053/039)**

Lemoizeko zentral nuklearrari buruzko itxierari eta ETA-ri buruz hitz egiten du. Alfredorentzat borrokatzea ezinbestekoa da baina askotan uste du ez duela ezertarako balio.

### **582. Mugimendu ekologistaren kontraesanak (ZES-053/041)**

Lemoizeko zentral nuklearraren itxierak, gizartean kontzientziazio handia sortu zuela uste du Alfredok, nahiz eta oraindik lan handia egiteko dagoen beste arlo batzuetan.

### **583. Esklabotza gaur egun (ZES-053/042)**

Garai bateko eta egungo esklabotzari buruz hitz egiten du.

### **584. ETBko Osasunbidea saioko protagonista (ZES-053/045)**

ETB1-eko "Osasun Bidea" saioan parte hartu zuen eta Euskal Herrian famatu bihurtu zela kontatzen du. Herri txiki askotatik deitzen zioten hitzaldiak eta ikastaroak emateko. Senda-belarrei buruz hitz egiten zuen.

### **585. Farmazia kasualitatez ikasi zuen (ZES-053/046)**

Farmaziako ikasketak zergatik aukeratu zituen.

### **586. Umetako jolasak (ZES-054/002)**

Amaren baserrian, Aizarnako Iruren (Santa Engrazi auzoan), jaio eta bizi izan zen Tere 21 urtera arte. Asteazkenera baserrian lana egin behar izaten zuten umetan. Igandean auzoko haurrak elkartzeko ziren jolastera. Jostailurik ez zutenez, beraiek asmatzen zituzten jolasak. "Antxirriñen". Dotrina ikasi behar izaten zuten.

### **587. Baserriko eginkizunak (ZES-054/003)**

Umetan baserrian hainbat lan egin behar izaten zituzten, batez ere animaliak zaintzea. Itulan. 9-10 urterekin herrira erosketak egitera joaten zen zaldiarekin. Behin zaldia izutu eta gainean zeraman guztia bota zuen.

### **588. Igandetan meza eta etxeko garbiketak (ZES-054/004)**

Mezetara joan beharra izaten zuten igandero. Bi meza izaten ziren; goizekora anai-arreba zaharragoak joaten ziren eta txikiak arratsaldean gurasoekin. Astean zehar kanpoko lanak egiten ziren gehienbat eta asteburuan etxe barruko garbiketak. Goizeko lana amaituta, hamaiketako egiten zuten.

### **589. Azpeitiko azokara eta errotara (ZES-054/005)**

Asteartero Azpeitiko azokara joateko joera zegoen. Arrautzak, oilaskoak, babarruna... eramaten zituen amak saltzera. Irabazten zuen diruarekin etxerako gauzak erosten zituen. Umeak zain egoten ziren, amak zer ekarriko. Ogia etxean egiten zutenez, artoa edo garia ehotzera ere joaten ziren Azpeitira.

### **590. Aste guztirako ogia etxean egiten zuten (ZES-054/006)**

Ogia etxean egiten zutenez, artoa ehotzera joaten ziren Azpeitira. Inguruko errotak. Etxean taloak eta "artoa" deitzen zen ogi berezi bat egiten zuten. Ogia egiteko labe berezia zeukaten eta aste guztirako egiten zen. Gari irinezko taloak ere egiten zituzten batzuetan.

### **591. Gerraosteko zailtasunak (ZES-054/007)**

Gerraostean, gariaren parte bat entregatu beharrak eta familia ugariak zailagoa egiten zuten bizimodua. Errazionamendua ezagutu zuen. Kalekoek okerrago pasatu zuten baserritarrek baino. Beti antzerakoa jaten zuten arren, ez zitzaien jatekoa falta. Haragia kontserbatzeko gatzetan sartzen zen (zezina).

### **592. Erljioaren pisua (ZES-054/008)**

Txikitan gurasoei errespetu handia zieten. Aita nahiko autoritarioa zen. Familian erlijioak pisu handia zuen. Errezoak, arrosarioa, nobenak... Anai-arrebak kongregazioetan zeuden. Anaia zaharrenak jesuita joan ziren eta ahizpa zaharrenak moja. Igandetan mezetara joateaz aparte, arratsaldetan erromerietara joan aurretik bezperetara joan behar izaten zuten. Inguruetako erromerietara joaten ziren: Santa Engrazi (Aizarna), Etumeta (Errezil), Erdoizta (Errezil)... Neskek etxera egun-argiz itzuli behar zuten, mutilek aldiz, nahi zutenean.

### **593. Etxean lagundu behar eta eskolara gutxi joan zen (ZES-054/009)**

Anai-arreba zaharragoak auzo-eskolara joan ziren umetan. Tere 9-10 urterekin Aizarnako eskolara joaten hasi zen baina ordura arte anai-arrebek etxean gauza asko irakatsi zizkioten. Karretera egiteak eskolaraino oinez joatea ahalbidetu zuen. Bidea luzea zenez, bazkaria etxetik eraman eta familiaren lagun batzuen etxean jaten zuen. Etxean laguntzeko beharra zegoenez, eta anaia batzuk kanpoan ikasten zeudenez, goiz utzi behar izan zuen eskola.

### **594. Gaztetan ikasketak berreskuratzen (ZES-054/010)**

Umetan gutxi joan zen eskolara, etxean lagundu beharra baitzegoen. 15 urte ingururekin berriz hasi zen ikasten, Saturraranekeo seminarioa eramaten zuten emakume misiolariekin. 21 urterekin Donostiako Santa Teresa gogarte-etxera joan zen, emakume misiolariak zeukaten komunitatera.

### **595. Aizarnako eskola (ZES-054/011)**

Aizarnako eskolan nesken maistra herrikoa zen. Gazteleraz egin behar izaten zuten. Ez zen oso irakasle gogorra, mutilen maisua bai ordea. Eguerdietan pilotan jolasten aritzen zen.

### **596. Dotrina eta jaunartzeak, nahitaezkoak (ZES-054/012)**

Dotrinaren garrantzia. Bi jaunartze egiten ziren, "txikia" eta "handia". Herriko apaizak haur batzuk gaizki tratatzen zituen. Hiru ume jaunartzea egin gabe zigortu zituen. Elizako kontuak ikastea nahitaezkoa zen orduan.

### **597. Dantza lotua eta zirriak, bekatu (ZES-054/013)**

Astebururo egoten zen erromeriaren bat inguruan. Zestoako festetan lehengusuen etxera joaten ziren. Azpeitiko festetara ere joan ohi ziren. Aizarnako jaietan ez zen gauza askorik egoten. Dantza lotua debekatua zegoen garai hartan. 'Hijas de María' kongregazioan zeuden eta dantza eginez gero, bota egiten zituzten. Tere oso txintxoak zen eta ez zitzaion horrelako ezer gertatu. 14 urte zituela Aizarnara apaiz gazte bat etorri zen eta haren jarraitzailea izan zen. 20 urte zituenerako errepresio handi hori pixka bat lasaitzen hasita zegoen. Edozer gauza bekatua zen eta konfesatu egin behar izaten zuten.

### **598. Baserriko lanetan neskak mutilen pare (ZES-054/014)**

Festa kontuetan desberdintasun handia egiten zen nesken eta mutilen artean. Aldiz, baserrian neskek mutilen lan berdinak egiten zituzten: segan, artajorran, ardiak zaindu... Baserrietan beti egin izan dute lan asko emakumeek. Anaiak egiten zuen sega pikatzea.

### **599. Etxean euskaraz, eskolan gazteleraz (ZES-054/015)**

Etxean euskaraz egiten zuten. Informazio bidea irratia zen, ez zegoen telebistarik, eta hura ere euskaraz entzuten zuten. Bertsolaritzako saioak eta lehiaketak gogoan ditu. Lanagatik kanpora irteten hasi zen arte, ez zen oso kontziente izan euskararen egoera orokorrak. Eskolan gazteleraz ikasi beharra bai izan zela zaila.

### **600. Jakiteko eta irakurtzeko gogoak (ZES-054/016)**

Etxean euskarazko aldizkariak eduki ohi zituzten: 'Zeruko Argia', 'Hauspoa'... Anai-arrebek ere ekartzen zituzten erlijioarekin lotutako aldizkari eta liburuak. Beti izan du irakurtzeko zaletasuna eta bere kontura hainbat liburu esanguratsu erosi izan zituen. Ezkutuan irakurtzen zituen.

### **601. Aizarnan euskaraz; Zestoko neskek gazteleraz (ZES-054/017)**

Aizarnan erabat euskaraz egiten zuten; aldiz, Zestoan neskek gazteleraz egiteko joera zeukaten. Garai hartan turismo asko zegoen Zestoan eta horrek eragina izan zuen. Neskentzat prestigio gehiago zeukan gaztelerak. Berak zuzenean ez zuen burlarik jasan, baina gertatzen zela kontziente zen. Santa Engrazi auzokoei "menditarrak" deitzen zieten.

### **602. Arlo sozialean eragiteko gogoak piztu (ZES-054/018)**

19 urte ingururekin etorkizuna planteatzen hasi zen. Ahizpak bezala moja joatea ez zuen nahi, baina ezta ezkondu eta haurrak izatea ere. Etxean

misioen aldizkariak izaten zituztenez, horrelako zerbait egiteko gogoia piztu zitzaion. Emakume misiolari batzuekin kontaktuan jarri zen eta hilabete batzuetan Donostiako Santa Teresa gogarte-etxean ikasten eta lanean egon zen. Ondoren hilabete bat Gasteizen eta bost Salamancan eman zituen formakuntza batean.

### **603. Jaénen gizarte arloko formakuntza jasotzen (ZES-054/019)**

Gasteizen lehenengo eta Salamancan gero emakume misiolariekin 6 hilabeteko formakuntza bete ondoren, baserrira itzuli zen. Goi mailako ikasketarik ez zeukanez, Jaénen zegoen elizak bideratutako zentro batean gizarte-laguntzaile gisako ikasketak egitea proposatu zioten. Eskolako zuzendaria apaiz nahiko aurrerakoia zen. Hiru ikasturtez, irakasle eta mediku faltan zeuden auzo edo herri txikietan lan egiteko formatzen zituzten.

### **604. Jaénen lanean eta gazte mugimenduan (ZES-054/020)**

Hiru ikasturtez, gizarte-laguntzaile gisako ikasketak egiten egon zen Jaénengo zentro batean. Urte bakoitzean leku ezberdinetan egin zituen praktikak: herritxo batean, psikiatriko batean eta Jaénengo auzo behartsu batean. Egoera gogorak ikusi zituen, baina oso aberatsa izan zen. Asteburuetan 'Juventudes rurales católicas' mugimenduan parte hartzen zuen (Zumaia 'Herri Gaztedi'-ren parekoa) eta hortxe hasi zen bere militantzia.

### **605. Euskal erbesteratuei laguntzen Jaénen (ZES-054/023)**

Jaéngo eskolako zuzendaria apaiz nahiko irekia eta aurrerakoia zen. Behin azterketa batean Espainiako politikari buruz galdetu zion eta Terek zuriz entregatu zuen. Frankismo garaia zen. Bertan lanean gelditzea ere proposatu zioten baina ez zuen onartu; Euskal Herrira bueltatzeko gogoia zeukan. 1968an Melitón Manzanasen hilketarekin erbesteratutak egon ziren Euskal Herrian eta batzuk Jaénen egon ziren. Terek eta Astigarragako emakume batek bisitak egiten zizkieten eta kartzelaratuak familiarekin egoten ziren.

### **606. Kooperatiban eta baserritarren mugimenduan (ZES-054/024)**

Jaénetik bueltatuta, ez zuen misiolarien bidea jarraitu. 1970ean Itziarko kooperatiba batean lana eskaini zioten eta han egon zen 4 urte eta erdiz kontabilitatea eramaten. Baserritarren mugimenduan sartuta ere ibili zen, GKN (orduan Ayra Durex) lantegian hasi aurretik.

### **607. GKN lantegian lanean eta langile mugimenduan (ZES-054/025)**

Itziarko kooperatiban egon ondoren, 1974an GKN (orduan Ayra Durex) lantegian hasi zen lanean, Eibarren lehendabizi eta Zumaian gero. Langile mugimenduan sartzeko nahia piztu zitzaion. GKN-n 30 urtez egon zen.

### **608. GKN lantegiko lana (ZES-054/026)**

GKN (orduan Ayra Durex) lantegian egiten zuen lana: autoentzako transmisioak egiten ziren eta Terek tripode batzuk muntatzen lehenengo eta egiaztatzen gero egin zuen lan. Multinazionaletarako fabrikatzen zen. Hasi zenean 500etik gora langile zeuden, horietatik 70 emakume inguru. Baliabideak eskasak ziren. Produkzioa handitzen eta langileak gutxitzen joan dira.

### **609. Langile mugimenduaren borrokak (ZES-054/027)**

Lan baldintzak borrokatu egin behar izan zituzten. Langileen antolakuntza zaila zen; frankismo garaia zen eta asanbladak debekatuta zeudenez, lehen bilera mendian egin zuten. Norbaitek salatu eta nagusia jakinaren gainean jarri zuen. Krisi garaian kaleratzeak egon zirenean batez ere emakumeak izan ziren kaltetuak. Langile berriek soldata txikiagoa jasotzen zuten eta horren aurka ere borrokatu behar izan zuten.

### **610. Emakumeen egoera lan munduan (ZES-054/029)**

Lan berdintsuagatik emakumeek soldata baxuagoa zuten GKN lantegian. Promoziorako aukerarik ez zuten izaten. Kontziliazioaren eta zaintzaren esparruan ere borrokatu behar izan dute.

### **611. Mugimendu feministaren erronkak Zumaian (ZES-054/031)**

Langile mugimenduan beti izan dute presente feminismoa ere. Jubilatu ondoren ere sindikatuan parte hartzen zuen. Sindikatuak berdintasun plana egin zuen 2009an eta Euskal Herri mailako taldean egon zen Tere. Zumaiaiko Udalean garai bertsuan planteatu zen berdintasun plana eta sindikatuetak emakumeen laguntza eskatu zuten horretarako. Berdintasun Foroaren sorrera. Aurretik emakumeen taldea egon zen Zumaian eta hainbat ekintza egiten zituzten: kanpainak herrian zabaldu (abortua, sexualitatea, martxoak 8...), aste kulturala antolatu (hitzaldiak, bertso-afaria...)...

### **612. Berdintasun Foroaren egiteko nagusiak (ZES-054/032)**

Berdintasun Foroaren egiteko nagusiak bi ziren: Udalean feminismoa modu integral batean lantzeko proposamenak ematea eta herrian sentsibilizazioa sortzea. Hezkuntzan ere sartu ziren eta Urola kostako herrietan egun seinatuak izan ziren lan bateratua bultzatu zuten. Gero Emakumeon\* Etxearen proiektua etorri zen.

### **613. Emakumeon\* Etxearen proiektua (ZES-054/033)**

Emakumeon\* Etxearen proiektua 2018 urte bukaeran aurkeztu zuten Udalean eta onartu egin zen. Aurretik herrian aurkeztu zuten. Hainbat asanblada egin zituzten eta aniztasun handikoak izan ziren. Elkartea sortu zuten eta partaidetza handia izan zuten, 250 emakume batu ziren hasieran. 2020an gauza asko antolatu zituzten, nahiz eta etxea oraindik ez izan. 2021ean inauguratu zen etxea.

### **614. Emakumeon\* Etxearen helburuak (ZES-054/035)**

Emakumeon\* Etxearen helburuak: espazio propio bat eduki, formakuntza eta aholkularitza jaso...



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)